



Aretxabaletako IUPI

Irisgarritasun Unibertsalerako Plan Integrala
2026-2029

Jarduketa-Plana: Udal irisgarria

Aretxabaletako IUPI

Irisingarritasun Unibertsalerako Plan Integrala
2026-2029

Jarduketa-Plana: Udalerri irisingarria

Data
2025eko Iraila



Sustatzailea
Aretxabaletako Udala



LURRALDE PLANGINTZA,
ETXEBIZITZA
ETA GARRAIO SAILA
DEPARTAMENTO DE PLANIFICACIÓN
TERRITORIAL, VIVIENDA
Y TRANSPORTES

Lan honek **Eusko Jaurlaritzako Lurralde
Plangintza, Etxebizitza eta Garraio Sailaren**
%85eko dirulaguntza jaso du



Aholkularitza teknikoa eta idazketa
Proyekta Urbes



Irugarritasun Unibertsalerako Plan Integrala hurrengo dokumentuek osatzen dute:

- I. IUPI: Memoria.
- II. Eranskina: Jarduketa-Plana: Udal irugarria.
- III. Eranskina: Jarduketa-Plana: Udal irugarria.**
- IV. Eranskina: Araudia, irizpideak eta gomendioak.
- V. Eranskina: Parte-hartzearen memoria.



Aurkibidea

Jarduketa Planaren laburpena.....	4
Formakuntza eta kontzientziazioa.....	7
Udal-eragileak irisgarritasun unibertsalaren inguruan formatu.....	7
Herritarrak irisgarritasun unibertsalaren inguruan sentsibilizatu.....	12
Informazioa, komunikazioa eta parte-hartzea.....	16
Udal-informazioa eta komunikazioa irisgarriagoak egin.....	16
Udalaren hizkuntza-irizpideak eta -ohiturak irisgarriagoak egin.....	20
Udal webgunean eta sare sozialetan irisgarritasun irizpideak txertatu.....	24
Gardentasuna areagotu eta herritarren parte-hartzean irisgarritasuna txertatu.....	33
Udalerrirako seinaleztapen irisgarria, ulergarria eta homogeneoa diseinatu, eta eraikin publikoetako sarbideetan errotulazioa jarri.....	39
Arreta eta izapideak.....	43
Arreta irisgarriagoa eman herritarrei.....	43
Udal-izapideak irisgarriagoak egin.....	49
Aisialdia, ongizatea eta garapena.....	54
Zerbitzu eta Baliabideen eskaintzaren irisgarritasun- eta inklusio-mailaren diagnostikoa osatu eta hobekuntzarako irizpideak ezarri.....	54
Herriko festak irisgarriagoak eta inklusiboagoak egin.....	66
Ekitaldi eta ikuskizun jendetsuak irisgarriagoak egin.....	71
Larrialdi-planak eta ebakuaziorako protokoloak berrikusi, irisgarritasun irizpideak txertatuz.....	79
Arau-esparrua.....	83
Ordenantzetan irisgarritasun irizpideak txertatu.....	83
Dirulaguntzen Plan Estrategikoa eta Ordenantza Fiskala berrikusi irisgarritasun irizpideak txertatuz.	86
IUPIaren kudeaketa eta komunikazioa.....	89
IUPIa kudeatu, jarraipena egin eta ebaluatu.....	89
Udal-kartografia eguneratu.....	93
IUPIa komunikatu eta sozializatu.....	95

Jarduketa Planaren laburpena

Laburpen taula	2026	2027	2028	2029	2026-2029 (1)	2030-2033 (2)
Udalerri irigarria	898.000	228.000	180.000	140.000	2.015.000	930.000
Udal irigarria	20.700	13.700	17.200	26.200	20.000	111.000
Guztira	918.700	241.700	197.200	166.200	2.035.000	

Oharrak:

- (1) Zenbait jarduketa IUPI honi dagokion 2026-2029 laurtekoan kokatu dira, urtea zehaztu gabe.
- (2) IUPIaren denbora-irismena 2026-2029 laurtekoari badagokio ere, 2030-2033 laurtekoa gehitu da jarduketa batzu jasotzeko, epe ertaineko aurreikuspen gisa.

a	Zerbitzu eta Baliabideen eskaintzaren irisgarritasun- eta inklusio-mailaren diagnostikoa osatu eta hobekuntzarako irizpideak ezarri.	(4)	(4)	(4)		12.000
8.2 Festak eta ekitaldiak irisgarriagoak eta inklusiboagoak egitea.						
a	Herriko festak irisgarriagoak eta inklusiboagoak egin.	1.000	1.500	2.000	2.000	Jarraia
b	Ekitaldi eta ikuskizun jendetsuak irisgarriagoak egin.	1.000	1.500	2.000	2.000	Jarraia
c	Larrialdi-planak eta ebakuaziorako protokoloak berrikusi, irisgarritasun irizpideak txertatuz.				5.000	
9 Arau-esparrua.						
9.1 Ordenantzetan irisgarritasun irizpideak txertatzea.						
a	Ordenantzetan irisgarritasun irizpideak txertatu.					12.000
9.2 Irisgarritasun ekonomikoa hobetzea.						
a	Dirulaguntzen Plan Estrategikoa eta Ordenantza Fiskala berrikusi irisgarritasun irizpideak txertatuz.					12.000
10 IUPIaren kudeaketa eta komunikazioa.						
10.1 Plana gauzatzea errazteko baldintzak ezartzea.						
a	IUPI kudeatu, jarraipena egin eta ebaluatu.	(4)	(4)	(4)	9.000	Jarraia
b	Udal-kartografia eguneratu.					15.000
10.2 Plana komunikatzea eta sozializatzea.						
a	IUPI komunikatu eta sozializatu.	2.500	(4)	(4)	(4)	Jarraia

Oharrak:

- (1) Zenbait jarduketa IUPI honi dagokion 2026-2029 laurtekoan kokatu dira, urtea zehaztu gabe.
- (2) IUPIaren denbora-irismena 2026-2029 laurtekoari badagokio ere, 2030-2033 laurtekoa gehitu da jarduketa batzu jasotzeko, epe ertaineko aurreikuspen gisa.
- (3) Ekonomikoki baldintzatutako jarduketa, aurrekontua modu berezian jaso da IUPIaren aurrekontu orokorrean (ikus Jarduketa Planaren laburpena).
- (4) Aurrekonturik gabeko jarduketa: Udalak bere baliabideekin egitea aurreikusten da.

Formakuntza eta kontzientziazioa.

5.1.a	Udal-eragileak irisgarritasun unibertsalaren inguruan formatu.
Ardatza	5. Formakuntza eta kontzientziazioa.
Helburua	5.1. Udal-eragileen irisgarritasun unibertsalaren arloko ezagutza hobetzea eta irisgarritasunaren kultura aurrera egitea.
Lehentasuna	— Altua.
Irismena / Hartzaileak	— Udaleko teknikariak eta langileak. — Udaleko ordezkari politikoak. 
Egungo egoera	— Ezagutza heterogeneoa: Udal-eragileek irisgarritasun unibertsalari buruz duten ezagutza desorekatua da. Arlo batzuetan (hirigintzan, eraikinetan) esperientzia gehiago dago, baina beste arlo batzuetan (komunikazioa, esparru digitala, parte-hartzea) gabeziak nabarmenagoak dira. — Prestakuntza puntual eta sakabanatua: Azken urteetan ekimen edo saio bakan batzuk antolatu badira ere, ez dira modu planifikatuan egin, eta horrek ez du ahalbidetu udal-eragileen artean oinarritzko ezagutza partekatu bat sortzea. — Ikuspegi partziala: Irisgarritasuna gehienetan oztopo fisikoak kentzera mugatu da, eta ez da behar bezala ulertu eskubide zeharkako gisa, udalaren jardura guztiei eragiten dien printzipio gisa. — Tresna praktikoen falta: Udal-langile askok borondatea eta interesa erakusten badute ere, ez dute eguneroko lanean erabiltzeko nahikoa baliabide edo erreferentzia.

	- Udalaren barne-kultura, erronka: Irisgarritasunaren ikuspegia oraindik ez da modu sistematikoan txertatu, eta horrek erabaki eta jarduketa askotan bigarren mailan kokatzea eragiten du. - Ordezkaritza politikoetan eragin beharra: Arduradun teknikoez eta langileez gain, ordezkari politikoek ere behar dute irisgarritasunaren eta inklusioaren inguruan sentsibilizatzea eta prestatzea.	
Azalpena	- Urtero udaleko arduradun zein langileei prestakuntza-saioak ematea aurreikusten da. - Urteroko gaiaren proposamen bat ere egin da. - Arduradun eta langileen beharreara egokitutako prestakuntza eskainiko duten pertsonak edo baliabideak topatzeko zailtasunak aurreikusten dira: erakunde arduradunek (IVAP...), espezializatuek (ISEK...) edo eta handiagoek (Mankomunitatea, Aldundia, Jauralaritzak) horretan lagundu beharko luketela uste da. - Prestakuntza-saio hauetatik espero diren albo-emaitzak: irisgarritasunaren inguruko begirada integral eta partekatua osatzea, langileek bere neurritan baliabide praktikoak sortzea. - Gainera, “Aretxabaleta denONA” egitasmoari lotuta Udaleko arduradun eta langileei ere prestakuntza ematea aurreikusten da, urtero gai desberdin baten inguruan. Ikus azalpena hurrengo fitxan: “Herritarrak irisgarritasun unibertsalaren inguruan sentsibilizatu.”	
Kronograma	Jarduketa zehatzak	Kostua (€)
2026	Nola eman aurrez aurreko arreta irisgarriagoa herritarrei, oztopo eta desgaitasun desberdinak kontuan hartuz.	2.500
2027	Nola idatzi Irakurketa Errazeko edukiak.	2.500
2028	- Nola egin irisgarriagoak informazioa eta komunikazioa, bai eta horietarako kanal fisikoak eta digitalak. “Aretxabaleta, denONA” urteroko egitasmoaren baitan, ekitaldi bakoitzeko gaiaren inguruko formakuntza.	2.500 ---
2029	- Nola egin irisgarriagoak informazioa eta komunikazioa, bai eta horietarako kanal fisikoak eta digitalak. “Aretxabaleta, denONA” urteroko egitasmoaren baitan, ekitaldi bakoitzeko gaiaren inguruko formakuntza.	2.500 ---
2026-2029	---	---
2030-2033	IUPIaren ebaluazioan erabakiko bada ere, jarduketak urtero egitea aurreikusten da.	Jarraia
Oharrak	“Aretxabaleta, denONA” urteroko egitasmoari lotutako prestakuntzen aurrekontuak jarduketa horri dagokion fitxan jaso dira: ikus “Herritarrak irisgarritasun unibertsalaren inguruan sentsibilizatu”.	
Udaleko arduradunak	“Udal Irisgarria” jarduketa-eremu nagusiko kudeatzailea edo kudeaketa-taldea.	
Beste eragileak	---	
Esleipenak eta kanpo-baliabideak	Prestakuntzako formatzailea eta materiala.	

Ebaluazio eta jarraipen adierazleak	— Prestakuntza eman izana (saio kopurua adieraziz) eta kostua. — Parte-hartzaileak: — Udaleko teknikariak eta langileak: kopurua, udal-saila, ardura-maila. — Udaleko ordezkari politikoak: kopurua, udal-saila. — Beste parte-hartzaileak.
Jarduketarako irizpideak	— Nahitaezko izatea: Komeni da formakuntza-saioak derrigorrezkoak izatea udal-eragile guztientzat, bereziki erabakiak hartzen dituztenentzat eta herritarren arretan lan egiten dutenentzat. — Rol desberdinetara egokitzea: Gomendatzen da formakuntzaren edukia sail bakoitzaren behar espezifikoetara egokitzea, saioak eraginkorrak izateko. — Ebaluazioa egitea: Gomendagarria da formakuntza-saio bakoitzaren ostean ebaluazio bat egitea, emaitzak neurtu eta behar izanez gero plan berria diseinatzeko. — Mailakatze progresiboa: Oinarrizko maila, ertaina eta aurreratua ezartzea gomendatzen da, langileen funtzioaren arabera. — Formakuntza praktikoa: Formakuntza teorikoarekin batera, udalerriko adibide zehatzak dituzten saio praktikoa eta tailerrak egitea gomendatzen da. — Material eskuragarriak: Gida laburrak, bideo didaktikoak eta txantiloak sortu beharko lirateke, prestakuntza errazteko. — Ebaluazio sistematikoa: Prestakuntzaren aurretik eta ondoren ezagutza-maila neurtzea komeni da, eraginkortasuna baloratzeko. — Adituen parte-hartzea: Arlo honetako adituekin lan egitea gomendatzen da. — Arituen parte-hartzea: desgaitasunaren inguruan beharrak, interesak, esperientzia edo eta jakintza duten pertsonen testigantza gomendatzen da. “Yo también cuento”: prestakuntza ematen duenak desgaitasun intelektuala duenean. Prestakuntza- eta sentsibilizazio-saioetan desgaitasuna duten pertsonen parte-hartzea aztertzea gomendatzen da. Ikus “Gomendatutako dokumentazioa”.

Gomendatutako dokumentazioa	 Tratu-berdintasuna eta diskriminaziorik eza. Oinarrizko gida. EAEko Administrazioa: Ongizate, Gazteria eta Erronka Demografikoaren Saila (2020). https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/eraberean_quiabasica/eu_observat/adjuntos/ERABEREAN_GIDA-2024.pdf Gaztelaraz: https://www.euskadi.eus/contenidos/informacion/eraberean_quiabasica/es_observat/adjuntos/ERABEREAN_GUIA.pdf
	 Estrategia de inclusión y de reducción de las desigualdades sociales de Barcelona 2017-2027. Ayuntamiento de Barcelona. (2018). https://www.barcelona.cat/barcelonainclusiva/ca/2018/6/estrategia_inclusion_2017-2027_es.pdf



La accesibilidad universal en los municipios: guía para una política integral de promoción y gestión

Equipo ACCEPLAN, Instituto de Mayores y Servicios Sociales. (2006).

https://ddd.uab.cat/pub/estudis/2007/hdl_2072_4739/La_Accesibilidad_Universal_en_los_Municipios-2006.pdf



Análisis sobre la situación de los derechos de las personas con discapacidad e identificación de retos de futuro.

Fresno, Ayuntamiento de Madrid (2022).

<https://www.madrid.es/UnidadesDescentralizadas/Discapacidad/publicaciones/An%C3%A1lisis%20sobre%20la%20situaci%C3%B3n.pdf>



La situación de las personas LGTBI+ con discapacidad en España. Informe.

Ministerio de Igualdad, Dirección General para la Igualdad Real y Efectiva de las Personas LGTBI+ (2024).

https://www.igualdad.gob.es/wp-content/uploads/Informe_LGTB_discapacidad_2024_ACCESIBLE.pdf



La Accesibilidad Cognitiva en España. Estado de situación.

Observatorio estatal de la Discapacidad. (2016).

<https://www.observatoriodeladiscapacidad.info/wp-content/uploads/La-accesibilidad-cognitiva.pdf>



Accesibilidad cognitiva. Una herramienta para comprender el mundo.

Plena Inclusión Castilla y León. (2019).

https://www.plenainclusioncyl.org/uploads/blog/descarga_1614596085_Argumentario-AC-2019.pdf



Guía de recomendaciones en accesibilidad cognitiva.

FEAPS Madrid (2014).

<https://plenainclusionmadrid.org/wp-content/uploads/2017/12/GuiaderecomendacionesAccesibilidadcognitiva.pdf>



Un plan de formación en accesibilidad cognitiva.

CEACOG, Plena Inclusión (2024).

http://riberdis.cedid.es/bitstream/handle/11181/7014/Un_plan_de_formaci%C3%B3n_en_accesibilidad_cognitiva.pdf



Irakurketa Erraza.



Yo también cuento: manual de experiencias de sensibilización sobre discapacidad intelectual o del desarrollo a entidades del entorno (impartidas por personas con discapacidad intelectual).

J. M. Jiménez (2017).

<http://www.plenainclusionmadrid.org/wp-content/uploads/2017/11/Manual-de-experiencias-de-sensibilizaci%C3%B3n.pdf>

5.1.b	Herritarrak irisgarritasun unibertsalaren inguruan sentsibilizatu.
Ardatza Helburua	5. Formakuntza eta kontzientziaketa. 5.1. Herritarrak irisgarritasun unibertsalean sentsibilizatzea eta irisgarritasunaren kulturaren aurrera egitea.
Lehenetsuna	— Altua.
Irismena / Hartzaileak	— Udalerrian pertsonen zerbitzuak eskaintzen dizkieten erakunde publikoetako arduradun eta langileak, udalekoak izan ezik. — Udalerrian pertsonen zerbitzuak eskaintzen dizkieten jarduera ekonomikoetako arduradun eta langileak. — Herritarrak. 
Egungo egoera	— Kontzientzia mugatua: Herritarren artean irisgarritasun unibertsalaren inguruko ezagutza eta kontzientzia oraindik ez dira nahikoa zabaldu; askotan irisgarritasuna desgaitasun fisikoarekin soilik lotzen da, eta ez dira aintzat hartzen komunikazioari, informazioari edo parte-hartzeari dagozkien alderdiak. — Sentsibilizazio-egitasmo gutxi: Udalak irisgarritasunaren inguruan puntualki komunikazio bat edo beste egin badu ere, kanpaina gehiago eta iraukorragoak behar dira herritarren artean ikuspegi partekatu eta zabala sortzeko. Gainera, ez da nahikoa baloratzen kanpaina horiek udal-eragileengan eta -langileengan izango luketen eragin positiboa. — Estereotipoen iraupena: Gabezien, zaurgarritasunaren eta mendekotasunaren begiradak irauten du, besteak beste desgaitasunen bat duten pertsonak ikusarazteko eta ahalduzko baliabideak zein bideak falta direlako. — Informazio eskasia: Udalak egiten dituen hainbat esku-hartze eta jardueratan irisgarritasuna kontuan hartzen da, baina askotan informazio hori ez zaie herritarrei ematen. — Partaidetza eskasa: Elkarrekin eta erabiltzaileekin lankidetzak ez da sistematikoa, eta zuzeneko esperientzien lekukotzak urriak dira. — Kanal digitalen aprobetxamendu mugatua: Sare sozialen eta webgunearen potentziala ez da erabat baliatzen sentsibilizazio helburuetarako.

Azalpena

Jarduketak bi atal nagusi hartzen ditu:

- Udaleko arduradun eta langileen prestakuntza, udalaz kanpoko eragileentzako egokituta:
 - Urtero udaleko arduradun zein langileei ematea aurreikusi diren prestakuntza-saioak egokitu eta herritarrei zein udalerrian zerbitzuak eskaintzen dituztenei zuzentzea aurreikusten da.
 - Urteroko gaiaren proposamen bat ere egin da: ikus “Udal-eragileak irisgarritasun unibertsalaren inguruan formatu”.
 - Goian adierazi bezala, prestakuntza eskainiko duten pertsona edo baliabide egokiak topatzeko zailtasunak aurreikusten dira: **erakunde arduradunek (IVAP...), espezializatuek (ISEK...) edo eta handiagoei (Mankomunitatea, Aldundia, Jauralaritzak)** horretan lagundu beharko luketela uste da.
 - Prestakuntza-saio hauetatik espero diren albo-emaitzak: Udaleko arduradun zein langileek batetik, eta herriko eragileek bestetik, irisgarritasunean hobetzeko ibilbidea partekatzea eta aurrerapausoak batera ematea.
- Gainera, urtean behin **“Aretxabaleta denONA”** edo antzeko egitasmoa gauzatzea aurreikusten da.
 - **Aretxabaletako Zaintza Ekosistemaren** koordinatuko da, eta haren aterkipean jartzea aztertuko da, hark behar dituen eduki eta erritmoetara egokituz.
 - Herrian lan egiten duten elkarteekin batera lantzea aurreikusten da. Esaterako, **Aratz elkartearekin** (adimen urritasuna duten aretxabaletarrek eta haien familiek osatua) edo **DebaTea elkartearekin** (Debagoienan autismoa duten pertsonak eta haien senideek osatua).
 - Egitasmoaren erreferentzia hurbilena 2025eko urrian izango da, hain zuzen **Aretxabaletako I. Inklusio Eguna** antolatu bait dute goian aipatutako bi elkarteek elkarlanean.
 - Irisgarritasunari lotutako sentsibilizazio-jarduketak egingo lirateke: asteburu batean izan daiteke, astean zehar tantaka...
 - 2028an abiatzeko aurreikuspena egin da eta urtero gai bat lantzea proposatzen da: autismoa, esklerosia, zaintzailean beharrianak, iktusaren ondorioak...
 - IUPIan aurrekontu bat ezarri da, jarduketari lotutako ekintzak (ekitaldiak, topaketak, hitzaldiak, ikastaroak...) edo materiala (ekintzatarako, errotulaziorako, komunikaziorako...) bideratzeko.



Autismoaren Egunen bueltako ospakizuna, Iralabarri plazan, 2025eko Apirilaren 5ean.

Kronograma	Jarduketa zehatzak	Kostua (€)
2026	— Herritarrei zein udalerrian zerbitzuak ematen dituztenei zuzendutako formakuntza/sentsibilizazioa: Nola eman aurrez aurreko arreta irisgarriagoa herritarrei, oztopo eta desgaitasun desberdinak kontuan hartuz.	0 (*)

2027	— Herritarrei zein udalerrian zerbitzuak ematen dituzteneei zuzendutako formakuntza/sentsibilizazioa: Nola idatzi Irakurketa Errazeko edukiak.	0 (*)
2028	— Herritarrei zein udalerrian zerbitzuak ematen dituzteneei zuzendutako formakuntza/sentsibilizazioa: Nola egin irisgarriagoak informazioa eta komunikazioa, bai eta horietarako kanal fisikoak eta digitalak. — "Aretxabaleta, denONA" egitasmoa.	0 (*) 2.500
2029	— Herritarrei zein udalerrian zerbitzuak ematen dituzteneei zuzendutako formakuntza/sentsibilizazioa: Nola egin irisgarriagoak izapideak, aurrez aurrekoak zein elektronikoak. — "Aretxabaleta, denONA" egitasmoa.	0 (*) 2.500
2026-2029	— ---	---
2030-2033	— IUPIaren ebaluazioan erabakiko bada ere, jarduketak urtero egitea aurreikusten da.	Jarraia
Oharrak	— (*) Urtero zehaztu diren prestakuntza/sentsibilizazio jarduketak Udaleko langileen formakuntza prozesua aprobetxatuz (eta egokituz) ematea aurreikusten da. Aurrekontuak "Udal-eragileak irisgarritasun unibertsalaren inguruan formatu" jarduketan jaso dira.	
Udaleko arduradunak	— "Udal Irisgarria" jarduketa-eremu nagusiko kudeatzailea edo kudeaketa-taldea.	
Beste eragileak	— Irisgarritasunari lotutako herritar eta taldeak. — Merkataritza- eta ostalaritza-elkartea. — Udalerrian zerbitzu publikoak ematen dituzten udalaz kanpoko erakunde publikoak.	
Esleipenak eta kanpo-baliabideak	— Urtero "Aretxabaleta, denONA" egitasmoak gauzatu ahal izateko kanpo-baliabideak: pertsonak, materiala...	
Ebaluazio eta jarraipen adierazleak	— Prestakuntza eman izana (saio kopurua adieraziz) eta kostua. — Parte-hartzaileak: — Udalerrian pertsonen zerbitzuak eskaintzen dizkieten erakunde publikoetako arduradun eta langileak, udalekoak salbu. — Udalerrian pertsonen zerbitzuak eskaintzen dizkieten jarduera ekonomikoetako arduradun eta langileak. — Herritarrak.	
Jarduketarako irizpideak	— Mezua egokitzea: Gomendatzen da mezuak modu argian eta positiboan aurkeztea, herritarren jarrera-aldaketa sustatzeko, eta ez arazo bat balitz bezala tratatzeko. — Partaidetza komunitarioa: Elkarrekin eta herritarrekin sentsibilizazio-edukien ko-diseinua egitea beharko litzateke. — Erreferente positiboak: beharko litzateke herriko bizipen errealak eta testigantzak txertatzea. — Kanpaina irisgarriak: Garrantzitsua da kontzientziazio-kanpaina bera irisgarria izatea, mezu guztiak pertsona guztiek irakur eta uler ditzaten. — Formatu irisgarriak: Edukiak audio, bideo eta testu formatuetan zabaltzea komeni da, transkripzio eta azpitituluekin. — Partaideen segmentazioa: Mezuak eta ekintzak publiko-talde desberdinetara	

	egokitzea gomendatzen da, adin, sexu, maila soziokultural edo eta jatorri guztietako herritarrengana iristeko. — Adibide errealak erabili: Komeni da udalerriko adibide errealak erabiltzea, mezuak hobeto ulertu daitezzen, eta herritarrek beren burua identifikatzea lortzeko. — Ebaluazioa: Jarduketa honen eragina neurtu beharko litzateke, inkestak edo iritzi-adierazpenak eginez, eta horren arabera plana egokitzea. Sentsibilizazio-ekintzen aurretik eta ondoren inkestak egitea gomendatzen da, eragina neurtzeko. — Presentzia iraunkorra: Eduki-egutegi egonkorra eta berrikuspen periodikoa ezartzea komeni da, mezua mantentzeko. Prestakuntza espezifikoak ere egin daitezke: — Duen berezitasunagatik, honako erreferentzia txertatu nahi izan da IUPIan: “Ermuko plan experimental soziosanitarioa 2012-2015” planaren baitan hainbat jarduketa egin zen, horien artean herriko gremioei zuzendutako prestakuntza ematea eta eskuliburu bat argitaratzea, etxebizitzaren egokitzapenean irisgarritasun-irizpideak txertatzeko. “Etxebizitzan esku hartzeko eskuliburua. Ermuko profil soziosanitarioko pertsonen etxebizitzaren kalitatea hobetzea” gidaliburua: https://labur.eus/yshi7alr
Gomendatutako dokumentazioa	Ikus aurreko fitxa: “Udal-eragileak irisgarritasun unibertsalaren inguruan formatu.”


Informazioa, komunikazioa eta parte-hartzea.

6.1.a	Udal-informazioa eta komunikazioa irisgarriagoak egin.
Ardatza	6. Informazioa, komunikazioa eta parte-hartzea.
Helburua	6.1. Komunikazioen ulergarritasuna hobetzea, herritarren informaziorako eskubidea bermatzeko.
Lehentasuna	— Altua.
Irismena / Hartzaileak	— Irismena: Udalak herritarrei zuzentzen dituen informazioa eta komunikazioaren osagai guztiak (edukiak, kanalak, lengoia...). Hurrengo fitxan hizkuntzari dagokion jarduketa espezifikoa jaso da. — Hartzaileak: — Komunikazioaren, parte-hartzearen eta euskararen inguruan ardurak dituzten teknikariak eta langileak. — Herritarrei zuzendutako edukiak sortzen dituzten udaleko teknikariak eta langileak.
	

Egungo egoera

Erakunde publikoen komunikazioen hautematen diren gabezia arruntenak:

- Oinarrizko printzipioak falta: Komunikazio-planek ez dute espresuki aipatzen irugarritasuna printzipio gisa, eta hori gabe, ezin da behar bezala garatu.
- Irugarritasunaren ebaluazio mugatua: Ez dago irizpide sendorik edo tresnarik udal-komunikazioen irugarritasun-maila neurtzeko, eta horrek hobekuntzarako bideak lantzea zailtzen du.
- Formatu irugarrien erabilera mugatua: Ez da sistematikoki erabiltzen irakurketa erraza, piktogramak edo bestelako baliabide kognitiboak informazioa eskuragarriago egiteko, eta horrek oztopoak sortzen ditu.
- Komunikazio-kanalen erabilera desorekatua: Udalak hainbat kanal erabiltzen ditu herritarrak informatzeko (webgunea, sare sozialak, iragarki-taulak, prentsa-oharrakak), baina ez da beti bermatzen informazioaren ulergarritasuna pertsona guztientzat.
- Kanal banaketa irregularra: Informazioa ez da beti kanal guztietan modu koherentean zabaltzen, eta horrek herritarren sarbidea mugatzen du.
- Hizkera teknikoaren eragina: Komunikazio instituzionala hizkera administratiboan eta teknikoan oinarritzen da sarritan, eta horrek zaildu egiten du herritar guztien ulermena, bereziki zailtasun kognitiboak badituzte.
- Irugarritasun-protokoloen gabezia: Ez dago protokolo edo gida argirik komunikazio irugarriaren irizpideak udaleko dokumentuetan, webgunean edo ekitaldi publikoetan txertatzeko.
- Desgaitasuna duten pertsonen beharrak kontuan ez hartzea: Komunikazioaren diseinuan ez dira modu sistematikoan kontuan hartzen desgaitasuna duten pertsonen behar espezifikoak, eta horrek informaziorako eskubidea mugatu dezake.



Albisteak, Aretxabaletako Udalen webgunearen "Aktualitatea" atalean.

Aretxabaletako Udala

Herria ezagutu

Udala

Zure zerbitzura

Tramiteak

Aktualitatea

Gardentasuna

Español

Sarrera

Aktualitatea

Harpidetza

HARPIDETZA

Harpidetu nahi dut

Aretxabaleta-eu buletina Postaria.com zerbitzuan oinarritzen da. Buletineko oharra elektronikoz jasotzeko, izena eman, ondoko eskaera-orria beteaz. Ondoren, webgune honetan argitaratzen diren albisteak zuzenean jasoko dituzu zure postontzian. Mezu bat jasoko duzu, zure eskaera berretsi dezazun.

Harpidetzu:

Helbide elektronikoa:

Zure izena (hautazkoa):

☐ Ez naiz robota

WUPTONIA

WUPTONIA

Harpidetu

Udal webguneak buletinera harpidetzeko aukera ere eskaintzen du.



Jon Ander Alberdi aretxabaletarra 'Argazkia.eus' lehiaketako sarituen artean

Larraitx Zeberio Lekuona 2025-05-11 15:11 **Kultura** Aretxabaleta,



dute Euskal Herriko zazpi lurraldeetako proiektu banak eta **Aretxabaletako** proiektu onenak. Azken hori sari banaketa **Aretxabaletako** Arkupe aretoan. **Aretxabaletako** Udalak babesten duen topaketa da eta lehiaketak. Hauek izan dira sarituenak: **Aretxabaletako** proiektu onena: Jon Ander Alberdi. Gipuzkoa onena: Elian Huguiphal. Askotarikoak gaia: Askotariko gaia **Aretxabaletako** proiektu onena Jon Ander Alberdiarena izan da. **Aretxabaletako** paisaia osatzen duten baserri abandonatuak erretratatu ditu. Proiektu honek historikoki **Aretxabaletako** biztanleen bizileku eta euskarri izan den paisaiaren erabileren

Udal aurrekontua 18 milioi euroraino igo du Aretxabaletako udalbatzak, bi kreditu txertatuta

Mirari Altube Arrese 2025-05-09 16:29 **Gizarte** Aretxabaleta,



Ezohiko osoko bilkura egin du **Aretxabaletako** udalbatzak eta erabaki 3,6 milioi euroko kreditua bestea **Aretxabaletako** merkataritza bultzatzeko helburuarekin, azaldu dute Udal Gobernuak kideek: "Eta horrek behar adinako finantza-gaitasuna emango du datoen bi urteetan **Aretxabaletako** azpiegiturak

Aretxabaletan informazioa eta berriak jasotzeko tokiko hedabide nagusia da Goiena.eus, Tokikom (Toki komunikabideen bateragunea) eta Hekimen (Euskal Hedabideen Elkarte) plataformetan parte hartzen du. Aretxabaletako Udalak diruz laguntzen du (58.300 euro 2025ean).

Azalpena

- Prestakuntza-prozesuak aurrera egin ahala zehaztuko bada ere, IUPIaren idazketa-fasean honako urratsak aurreikusten dira:
- Dokumentuen idazketan Irakurketa Errazeko irizpideak aplikatu, adibidez:
 - Herritarren eskubide eta betebeharre lotutako dokumentuak ulergarriagoak eginez (ordenantzak, izapideak egiteko informazioa, ordainketen edo zergen inguruko...).
 - Laburpen irisgarriak erantsiz egitasmo garrantzitsuei lotutako dokumentazioan (plan estrategikoak, parte-hartze prozesuak...).
 - Informazioa eta komunikazioa irisgarriagoak egiteko neurriak ezarri, adibidez:
 - Testuen itzulpenak sistematikoki egitea aztertuz. Ikus hurrengo jarduketa: "Udalaren hizkuntza-irizpideak eta -ohiturak irisgarriagoak egin".
 - Bideoak azpigitulatu.
 - Irudietan testu alternatiboak txertatu.

	— Komunikazio eta Estilo Liburua idatzi, irisgarritasun irizpideak txertatuz: — Irismena: edukiak, kanalak, lengoaia, hizkuntza, egokitzapen espezifikoak... — Eskema eta gidalerro estandarizatuak sortzea proposatzen da, testu edo eta jakinarazpen guztietan aplikatzeko. — Aholkularitza-zerbitzu baten bitartez egitea proposatzen da, eragile desberdinen parte-hartzearekin: Udala (ordezkariak, arduradunak eta langileak), herriko elkarteak eta herritarrak. Jarduketa hauek Udaleko arduradunei eta langileei emango zaien prestakuntzaren menpe daude (ikusi "Udal-eragileak irisgarritasun unibertsalaren inguruan formatu" jarduketa). IUPI honetan jaso diren jarduketak aurreikuspenak dira: prestakuntzan zehar ikasitakoaren arabera espero da gauzatzea komunikazioaren irisgarritasuna hobetzeko jarduketa zehatzak.	
Kronograma	Jarduketa zehatzak	Kostua (€)
2026	— ---	---
2027	— ---	---
2028	— Edukien idazketan Irakurketa Errazeko irizpideak aplikatzen hasi, horretarako jasotako prestakuntzari jarraituz.	(4) 0
2029	— Informazioa eta komunikazioa irisgarriagoak egiteko neurriak ezartzen hasi, horretarako jasotako prestakuntzari jarraituz.	(4) 0
2026-2029	— ---	---
2030-2033 (2)	— Komunikazio eta Estilo Liburua idatzi, irisgarritasun irizpideak txertatuz.	12.000
Oharrak	— 2028ko eta 2029ko jarduketak, behin abiatuta, urteetan zehar modu jarraian gauzatzea aurreikusten da. — (4) Aurrekonturik gabeko jarduketa: Udalak bere baliabideekin egitea aurreikusten da. — (2) IUPIaren denbora-irismena 2026-2029 laurtekoari badagokio ere, 2030-2033 laurtekoa gehitu da jarduketa jasotzeko, epe ertaineko aurreikuspen gisa. Aurrekontua modu berezian jaso da IUPIaren aurrekontu orokorrean (ikus Jarduketa Planaren laburpena).	
Udaleko arduradunak	— Komunikazioa eta partaidetza, edo alor horietan ardurak dituzten pertsonak.	
Beste eragileak	— ---	
Esleipenak eta kanpo-baliabideak	— Komunikazio eta Estilo Liburuaren idazketa.	
Ebaluazio eta jarraipen adierazleak	— Gomendatzen da jarduketa bakoitzaren aurreko prestakuntzan zehar partaideekin batera zehaztea adierazleak.	
Jarduketarako irizpideak	— Ikus "Informazioa eta komunikazioa" fitxa, "Araudia, irizpideak eta gomendioak" atalean.	

6.2.a	Udalaren hizkuntza-irizpideak eta -ohiturak irisgarriagoak egin.
Ardatza	6. Informazioa, komunikazioa eta parte-hartzea.
Helburua	6.2. Hizkuntzen erabilera irisgarriagoa egitea.
Lehentasuna	— Ertaina.
Irismena / Hartzaileak	— Irismena: Udalak ezarriak dituen hizkuntza-irizpideak eta -ohiturak. — Hartzaileak: _ Euskara teknikaria. _ Herritarrei zuzendutako edukiak sortzen dituzten udaleko teknikariak eta langileak. _ Herritarrei aurrez-aurreko arreta ematen dieten teknikariak eta langileak. 
Egungo egoera	— Euskararen lehentasuna: Arrazoi soziolinguistikoak direla eta, Udalak euskararen erabilera lehenesten du (euskara egoera zaurgarrian dago eta babes- zein sustapen-neurri bereziak behar ditu euskal erakundeetan). — Ulermen zailtasunak: Herritarren artean aniztasun handia dago euskararen ezagutzari eta ulermenari dagokionez; euskarazko komunikazioek batzuetan zailtasunak sortzen dituzte euskara menperatzen ez duten pertsonentzat, are handiagoak muga edo desgaitasun kognitiboren bat badute. — Herritarren parte-hartze prozesuak: Hizkuntza-baliabideak (hala nola itzulpenak, interpretazioak edo material moldatuak) ez dira sistematikoki eskuragarri jartzen, eta euskara menperatzen ez duen hainbat herritarrek adierazten du horrek bere parte-hartzea mugatzen duela. — Irisgarritasun unibertsala, eskubide: Hizkuntzen erabilerarako irizpideetan ez dira nahikoa hartu kontuan irisgarritasun unibertsala eta eskubideen ikuspegia. — Gaur egungo irizpideen arau-esparrua: _ 10/1982 Legea, Euskararen erabilera normalizatzeko oinarrizkoa. _ Eskualdeetako edo Eremu Urriko Hizkuntzen Europako Gutuna.

- 2/2016 Legea, Euskadiko Toki Erakundeei buruzkoa.
 - 9/2017 Legea, Sektore Publikoko Kontratuena.
 - 179/2019 Dekretua, Euskadiko toki-erakundeetan hizkuntza ofizialen erabilera instituzionala eta administratiboa normalizatzeari buruzkoa.
 - 3/2022 Legea, Euskal Sektore Publikoarena.
 - 11/2022 Legea, Euskal Enplegu Publikoarena.
 - 19/2024 Dekretua, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzekoa.
- **Udaleko Euskara Zerbitzuaren** helburua da Aretxabaletan euskararen normalizazioa lortzea. Horretarako, beharrezko planak eta egitasmoak diseinatuko dira, udal barrura begira batetik eta gizarteko gainontzeko esparruetara begira bestetik. Eskaintzen dituen zerbitzu nagusiak dira:
- Administrazioa: udal administrazioetik bizitzaren eremu guztietan euskararen erabilera bultzatzeko.
 - Udalaren Hizkuntza Normalkuntza Plana. Udal eremu guztietan euskararen erabilera bultzatzen du, honakoentzat lan egiten duelarik: udalbatza eta udal zerbitzuak, zuzeneko nahiz zeharkako kudeaketako zerbitzuak.
 - Euskara Biziberritzeko Plan Nagusia: Aretxabaletako udalerriko hizkuntza normalizazioa lortzeko, elkarte, eskola eta entitateen hizkuntza normalizazioa sustatuz eta haiekin elkarlanean, hizkuntza aholkularitza eta laguntza eskainiz.
 - Euskararen ezagutza eta erabilera sustatzeko ekintzak eta diru laguntzak.
 - Euskaltegia, Aretxabaletako helduak euskalduntzeko eta alfabetatzeko.
- **Euskara Biziberritzeko Planaren** egitekoak, hainbat esparrutan:
- Familia Transmisioa. Familia transmisioan eragitea: Herriko ikastetxeekin, erakunde eta elkarteekin elkarlanean.
 - Aisia eta gazteak. Euskara sustatzea herriko eragileekin elkarlanean (Ludoteka, Gaztelekua, Udalekuak).
 - Etorkinak: Hizkuntzaz jabe daitezen laguntzea eta horretarako esparruak eskaintzea.
 - Merkataria Plana: Merkatarientzako eta ostalarientzako zerbitzua: Itzulpenak, zuzenketak, informazio interesgarria.
 - Dirulaguntzak ematea ikastaroetarako, paisaia linguistikoa euskaratzeko, web orriak euskaratzeko...
 - Euskarari buruzko ikerketak bultzatzea, herriko hizkera jaso eta gizarteratzea, toponimia...
 - Helduen euskalduntze-alfabetatzea. Esaterako, Barriketan egitasmoaren bitartez, Euskaltegiarekin elkarlanean.
 - Bertako elkarten eta entitateen hizkuntza normalizazioa sustatzea. Adib. Kirola euskaraz egitasmoaren bitartez.
 - Lan Mundua: Enpresetako Erabilera Planen inguruko jardunaldiak, Aretxabaletako Institutuarekin elkarlanean.
 - Balarako gainontzeko herriekin elkarlana.
- **Etorkinak** euskarara hurbiltzeko eta euskararen ezagutza zein erabilera sustatzeko, honako baliabideak ditu Udalak:
- Euskaraz Jolasten egitasmoa. Loramendi Euskara Elkartearekin lankidetzan. LHko haurrei zuzendua.
 - Hizkuntza errefortzuak: Nerabeentzako plana euskaltegiarekin eta herriko ikastetxeekin elkarlanean. DBHko gazteei zuzendua.
 - Harrera etorri berri diren hizkuntza etorkinei.
 - AISA taldeak: Euskaltegiarekin eta Lanbide Heziketako institutuarekin elkarlanean.



Aretxabaletako Udalak, azkenengo hilabeteetan, AROA plana garatzen jardun du, euskara indarberritzeko eta euskaldunak ahalduzko asmoarekin. Plana 10 urtetarako izango da.

Azalpena

Udalaren hizkuntza-irizpideak eta -ohiturak irisgarriagoak egiteko, aurreikusten direnak:

- Irizpide korpusa: Hizkuntzen erabileraren inguruko irizpideak aztertzea eta, hala badagokio, eguneratzea, irisgarritasunaren ikuspegia txertatuz.
- Lehentasunaren eta irisgarritasunaren uztarketa: Euskararen lehentasuna mantenduz, erdarazko edukiei emango zaien tokia berrikustea, Udalak ematen duen informazio osoa herritar gehiagok eskuratu eta ulertuko duela errazteko, edo eta parte-hartze efektiborako oztupo gehigarriak sortuko ez dela bermatzeko.
- Hausnarketa partekatua: Hizkuntzari lotutako irisgarritasun unibertsalaren inguruan prestatzea eta sentsibilizatzea eskatuko duen hausnarketa partekatua egitea.
- Irisgarritasun unibertsala, erronka eta baliabide: Edukietan irisgarritasun unibertsaleko irizpideak (irakurketa erraza, hizkuntza sinplifikatua, piktogramak...) integratzea, bi helburuak (lehentasuna batetik, irisgarritasuna bestetik) uztartzeko gakoetako bat izan baitaiteke.

Gainera, nahi izan da IUPIan jasota geratzea urtero Udalak euskara ikasteko herritarrentzako luzatzen dituen dirulaguntzak.

Kronograma	Jarduketa zehatzak	Kostua (€)
2026	— Euskara ikasteko dirulaguntza.	7.200
2027	— Euskara ikasteko dirulaguntza.	7.200
2028	— Euskara ikasteko dirulaguntza.	7.200
2029	— Euskara ikasteko dirulaguntza.	7.200
2026-2029 (1)	— Udalaren hizkuntza-irizpideak eta -ohiturak irisgarritasunaren ikuspegitik berrikusteko hausnarketa-prozesu partekatua.	9.000
2030-2033	— Euskara ikasteko dirulaguntza.	Jarraia
Oharrak	— (1) Hausnarketa-prozesua lehenengo laurtekoan kokatu da, urtea zehaztu gabe.	

Udaleko arduradunak	— Euskara, edo alor horretan ardurak dituzten pertsonak. — Beste sail/pertsona inplikatuak: — Komunikazioa eta partaidetza, edo alor horietan ardurak dituzten pertsonak.
Beste eragileak	— UEMA.
Esleipenak eta kanpo-baliabideak	— Irizpideak berrikusteko aholkularitza-zerbitzua.
Ebaluazio eta jarraipen adierazleak	— Euskara ikasteko dirulaguntza: — Emandako diru kopurua, hartzaileen kopurua eta profila. — Irizpideen berrikusketa: — Jarduketa egin izana, eta bere kostua. — Lanketa eta parte-hartze saio kopurua, parte-hartzaileen kopurua eta profila.
Jarduketarako irizpideak	— Irisgarritasun Unibertsalaren definizioa barneratzea: "Inguruneek, prozesuek, ondasunek, produktuek eta zerbitzuek, bai eta objektuek, tresnek, bitartekoez eta gailuek ere, bete behar duten baldintza da, pertsona ororentzat segurtasun- eta erosotasun-baldintzetan eta ahalik eta modu autonomo eta naturalenean ulergarriak, erabilgarriak eta praktikagarriak izan daitezen". — Irisgarritasun Unibertsala baliabide gisa ulertzea: Edukietan irisgarritasun unibertsaleko irizpideak (irakurketa erraza, hizkuntza sinplifikatua, piktogramak...) integratzea, euskararen lehentasuna eta irisgarritasuna uztartzeko gakoetako bat izan daiteke.

6.3.a	Udal webgunean eta sare sozialetan irisgarritasun irizpideak txertatu.
Ardatza	6. Informazioa, komunikazioa eta parte-hartzea.
Helburua	6.3. Esparru digitalaren irisgarritasuna hobetzea.
Lehentasuna	— Ertaina.
Irismena	— Udal webgunea: https://www.aretxabaleta.eus/eu — Udal aplikazioa: Aretxabaletaklik https://www.aretxabaleta.eus/eu/aretxabaleta-1/aretxabaletapp — Udalak sare digitaletan dituen kontuak eta espazioak. 
Egungo egoera	— Irizpide bateratuen falta: Webgunean eta sare-sozialetako mezuetan ez dago irizpide bateraturik, eta horrek irisgarritasun-arazoak sortzen ditu. — Webgunearen irisgarritasun maila mugatua: Udalaren webguneak informazio ugari eskaintzen badu ere, ez ditu sistematikoki betetzen irisgarritasun digitalerako nazioarteko estandarrak (WCAG), eta horrek mugak sortzen ditu desgaitasuna duten pertsonentzat. — Formatu alternatiboen eskasia: Ez dira sistematikoki erabiltzen irakurketa errazeko bertsioak, azpтитuluak dituzten bideoak edo eta material bisual irisgarriak. — Sare sozialen erabilera: Udalak sare sozialetan presentzia aktiboa du, baina ez dira beti aplikatzen irisgarritasun irizpideak (adibidez, irudien deskribapen alternatiboak edo bideoen azpтитuluak). — Herritarren pertzepzioa: Zenbait herritarrek zailtasunak adierazi dituzte webgunean nabigatzeko, edukiak aurkitzeko edo prozedura administratiboak linean egiteko. — Erabiltzaileen feedback falta: Ez da sistematikoki jasotzen erabiltzaileen iritzia irisgarritasunaren inguruan. — Irisgarritasunaren ezagutza falta: udal teknikari eta arduradun askok ez dute formakuntza espezifikorik arlo digitalean. — Aurrerapenak, baina ez nahikoak: Udalak digitalizazioan inbertitu badu ere, oraindik ez da estrategia integralik ezarri irisgarritasun unibertsala bermatzeko komunikazio eta partaidetza digital guztietan.

Udal webguneak [Open Source Content Management System Plone](#) erabiltzen du: erabilterraza da eta erabilgarria izateko diseinatua, Web Edukien Irigarritasun Gomendioetara (WCAG v1.0) egokitzen zaiola dio webguneak berak. Webgune honetan —irigarritasun edo balidazioaren inguruan— estandarretara egokitzen ez den ezer topatuz gero, formulario batetara esteka eskaintzen du.


- Sarbide gakoak zein diren adierazten du (nazioarteko gomendioek ezartzen dituzten sarbide-teklen gaineko gomendio gehienak jarraitzen ditu).
- Irigarritasun adierazpena honakoa da:
 - “Jendea Internetera konektatzen den modu desberdinen inguruan, gure ezagutzak erabili ditugu, erraz eta guztientzako sinplea den webgune bat garatzeko.”
 - **“Balidazioa.** Espezifikazioekin bat datorren XHTML 1.0 eta CSS erabili dugu, W3C-k esaten duen moduan, gure ustez irigarritasun eta erabilgarritasunak fundazio solidoa eduki behar baitute. Webgune honetako zerbait ez bada ondo balidatzen, atariaren kudeatzailearekin jarri harremanetan eta ez Ploneren Garatzaile Taldearekin. WCAG 1.0 bertsioari dagokion AA irigarritasun mailara heltzeko lan handia egin dugu. Hala ere, WCAGren zenbait egiaztatze puntu subjektiboak direnez eta zintzoki bete ditugula dakigun arren, kasu batzutan bestelako interpretazioa eman dakioke.”



Aretxabaletako Udalaren webguneko sarbide-orriaren goikaldearen pantaila-irudia. Atal nagusiak (webgunean goiburuan): Herria ezagutu, Udala, Zure zerbitzura, Tramiteak, Aktualitatea, Gardentasuna. Irudi nagusiaren azpian 3 atal ditu nabarmenduta: Harremanetarako, Tramiteak eta Txoko Feminista.



Aretxabaletako Udalaren webguneko sarbide-orriaren oinaren pantaila-irudia. “Beste webgune batzuk” izenburupean, estekak daude honako hauetara: [Arkupe Kultur Etxea](#), [Ibarra kiroldegia](#), [MerkAtAre](#) eta [Debagoieneko Mankomunitatea](#).



Aretxabaletaklik Herritarrentzat interesgarri eta baliagarri den informazio guztia mugikorretan izatea ahalbidetzen duen aplikazioa da.

- Alde batetik, Aretxabaletaklik herritarrentzako informazio-iturria da, eta atal hauek ditu: informazio orokorra, albisteak, sare sozialak, agendako ekitaldiak, inzidentziak, mezularitza...
- Bestalde, herriko eragileek ere parte hartzen duten aplikazio berria da, sare sozial bat izango balitz bezala, herritar orok interesatzen zaion eragile profil horren jarraitzaile izanda, informazioa eskuragarri izango du.
- Aretxabaletaklik aplikazioak eskaintzen dituen funtzionalitate nagusiak: Argitalpenak irakurri eta herriko azken berrien berri izan, Agenda eta ekitaldiak kontsultatu, Espazio zein materialen erreserba egin, Eragileen bilatzailea eta beraien profila jarraitzea, zuzenean haien informazioa jasotzeko, Galdetegiak betetzeko aukera, Mezularitza bidez komunikatu, Bideoak ikusi, Herriko intzidentziak zuzenean jakinarazi eta Dokumentuak eskuratu.

Azalpena

- Udalaren esparru digitalaren alderdi publikoa identifikatu (webguneak, aplikazioak, sare sozialak...) eta bere irisgarritasun maila diagnostikatu eta hobetu:
 - Irisgarritasun-irizpideak jarraituz.
 - Irisgarritasunerako baliabide espezifikoak txertatuz.
- Jarduketa aldian-aldian egitea aurreikusten da: lau urtean behin egingo dela adierazi bada ere, une egokiena beste aldagai batzuk erabakiko dute: esaterako, webgunearen birdiseinua edo migrazioa egiterakoan.
- Jarduketa kanpo-aholkularitza baten bitartez egitea aurreikusten da.

Kronograma	Jarduketa zehatzak	Kostua (€)
2026	— ---	---
2027	— ---	---
2028	— ---	---
2029	— ---	---
2026-2029 (1)	— Udalaren esparru digitalaren alderdi publikoa identifikatu (webguneak, aplikazioak, sare sozialak...) eta bere irisgarritasun maila diagnostikatu eta hobetu.	6.000

2030-2033 (2)	Udalaren esparru digitalaren alderdi publikoa identifikatu (webguneak, aplikazioak, sare sozialak...) eta bere irisgarritasun maila diagnostikatu eta hobetu.	6.000
Oharrak	(1) Lehenengo laurtekoan, urtea zehaztu gabe. Jarduketa lau urtean behin egitea aurreikusi bada ere, une egokiena beste aldagai batzuk erabakiko dute: esaterako, webgunearen birdiseinua edo migrazioa egiterakoan. (2) IUPIaren denbora-irismena 2026-2029 laurtekoari badagokio ere, 2030-2033 laurtekoa gehitu da jarduketa jasotzeko, epe ertaineko aurreikuspen gisa. Aurrekontua modu berezian jaso da IUPIaren aurrekontu orokorrean (ikus Jarduketa Planaren laburpena).	
Udaleko arduradunak	- Webgunearen arduraduna. - Beste sail/pertsona inplikatuak: - Komunikazioa eta partaidetza, edo alor horietan ardurak dituzten pertsonak.	
Beste eragileak	---	
Esleipenak eta kanpo-baliabideak	- Irisgarritasun-auditoria egin izana. - Irisgarritasun-egokitzapenak egin izana. - Erabiltzaileen parte-hartzea: saio kopurua, parte-hartzaileen kopurua eta profila.	
Ebaluazio eta jarraipen adierazleak	- Auditoriak egin izana, eta bere kostuak. - Egokitzapenak egin izana (adostasun mailak adieraziz), eta bere kostuak.	
Jarduketarako irizpideak	Web-irisgarritasunaren auditoria eta WCAG 2.0 arauak - Gidalerro hauen helburu nagusia web-orrialdeen diseinua irisgarria izatea da, horrela informaziorako dauden hesiak murriztuz. - Aau-esparruari jarraitu: Auditoria RD 1112/2018ko eskakizunen eta WCAG 2.1 AA irizpideak jasotzen dituen UNE-EN 301 549 arauaren arabera egin behar da. - WCAG hamabi jarraibidez osatuta dago, diseinu-irtenbideak eskaintzen dituztenak, web-orrialde batek informazio-sarraerako arazoak sor ditzakeen ohiko egoerak adibidetzat hartuta. Gidalerroen barruan egiaztapen-puntuak daude, egon daitezkeen akatsak detektatzen laguntzen dutenak. - Hamabi jarraibideek oinarritzko helburuak ematen dituzte, egileek edukia desgaitasun desberdinak dituzten erabiltzaileentzat irisgarriagoa izan dadin lan egin dezaten. Jarraibideak ez dira egiaztagarriak, baina esparrua eta helburu orokorrak ematen dituzte, egileek arrakasta-irizpideak ulertzen eta teknikak hobeto ezartzen laguntzeko. - Talde eta egoera desberdinen beharrak asetzeko, hiru adostasun-maila definitzen dira: A (baxuena), AA eta AAA (altuena). Gutxienez A mailako gidalerroetan jasotzen dena landu eta hobetu behar litzateke. WCAG 2.0 arauak: 1. Hautemangarria: Informazioa eta erabiltzailearen interfazeko osagaiak erabiltzaileentzat hauteman daitezkeen moduan aurkeztu behar dira. - Testu-alternatibak: Eman testu-alternatibak testua ez den edozein edukitarako, pertsonak behar dituzten beste forma batzuetara aldatu ahal izateko, hala nola letra handia, Braille, mintzaira, sinboloak edo hizkuntza sinpleagoa. A - Denboran oinarritutako euskarriak: Eman alternatibak denboran oinarritutako euskarrietarako. A - Egokigarria: Sortu edukia modu desberdinetan (adibidez, diseinu sinpleago bat) aurkez daitekeena, informazioa edo egitura galdu gabe. A - Bereizgarria: Erabiltzaileentzat edukia ikustea eta entzutea erraztu, atzeko planoaren eta aurreko planoaren arteko bereizketa barne. AA	

- 2. Erabilgarria: Erabiltzailearen interfazeko osagaiak eta nabigazioa erabilgarriak izan behar dira.
 - Teklatu bidez eskuragarria: Egin funtzio guztiak teklatu batetik eskuragarri. **A**
 - Denbora nahikoa: Eman erabiltzaileei denbora nahikoa edukia irakurri eta erabiltzeko. **AA**
 - Krisi fisikoak: Ez diseinatu edukia krisiak eta erreakzio fisikoak eragiten dituela jakin den modu batean. **AAA**
 - Nabigagarria: Eman erabiltzaileei nabigatzen, edukia aurkitzen eta non dauden zehazten laguntzeko moduak. **AAA**
- 3. Ulergarria: Erabiltzailearen interfazeko informazioa eta funtzionamendua ulergarriak izan behar dira.
 - Irakurgarria: Egin testuaren edukia irakurgarri eta ulergarri. **A**
 - Aurresangarria: Egin web-orrialdeak modu aurresangarrian ager eta funtziona dezaten. **AA**
 - Sarrera-laguntza: Lagundu erabiltzaileei akatsak saihesten eta zuzentzen. **A**
- 4. sendoa: Edukiak nahiko sendoa izan behar du, erabiltzaile-agente ugari modu fidagarrian interpretatu ahal izateko, laguntza-teknologiak barne.
 - Bateragarria: Egungo eta etorkizuneko erabiltzaile-agenteeekiko bateragarritasuna maximizatu, laguntza-teknologiak barne. **A**

Auditoria egiteko urrats garrantzitsuenak.

- Noiz: Web erabilerraztasunaren auditoria egiteko unerik onena produktu digitalaren garapen-prozesua bera da. Webgunearen birdiseinu edo migrazio kasuetan, hasieratik irisgarritasun-praktikak integratzea eraginkorragoa da produktua erabiltzen hasi ondoren arazoei aurre egitea baino.
- Lege-esparrua:
- Egokitasun-ebaluazioa: Irisgarritasun-estandarrak identifikatzen hasi, hala nola WCAG, eta lortu nahi dituzun adostasun-mailak ezarri.
- Edukiaren berrikuspina: Aztertu webgunearen egitura eta edukia, ikusmen-, entzumen- edo mugimendu-urritasunak dituzten erabiltzaileentzat irisgarria dela ziurtatuz.
- Nabigazioa eta teklatua: Gunearen funtzio guztiak teklatuaren bidez eskuragarriak direla egiaztatu, eta, horretarako, erraztasunak eman mugikortasun mugatua duten pertsonen.
- Kontrastea eta irakurgarritasuna: Ziurtatu nahikoa kontraste dagoela testuaren eta fondoaren artean, eta informazioa erraz irakurtzeko modukoa dela ikusmen-urritasunak dituzten erabiltzaileentzat.
- Multimedia erabilerraza: Egiaztatu multimedia-elementuek, hala nola bideoek eta audioek, zentzumen-urritasunak dituzten erabiltzaileentzako deskribapenak eta transkripzioak dituztela.
- Asistentzia-teknologiekiko bateragarritasuna: Egiaztatu gunea asistentzia-teknologiekiko bateragarria dela, hala nola pantaila-irakurgailuekin.
- Formularioak eta elementu interaktiboak: Ziurtatu formularioak irisgarriak direla eta elementu interaktiboak laguntza-teknologiekiko erraz erabil daitezkeela.
- Nabigatzaile eta gailu desberdinetako probak: Nabigatzaile eta gailu ugarietan erabilerraztasuna egiaztatu, erabiltzaile guztientzako esperientzia sendoa bermatzeko.
- Probak, benetako erabiltzaileekin: Probak egin hainbat ezintasun dituzten benetako pertsonen, esperientziaren ebaluazio espezifikoak lortzeko eta hura hobetzeko.
- Dokumentazioa eta ekintza zuzentzaileak: Auditorian identifikatutako edozein irisgarritasun-arazori aurre egiteko beharrezkoak diren aurkikuntzak eta neurrizuzentzaileak dokumentatu.

Irisgarritasun- edo erabilerraztasun-deklarazioen adibideak:

- Gasteizko Udalaren Ingurugiro Gaietarako Ikastegiaren (CEA) webgunea:

<https://cea.vitoria-gasteiz.org/portal/eu/irisgarritasuna>

- Ekonomia Gaietarako eta Eraldaketa Digitalaren Ministerioaren Egoitza Elektronikoa: <https://sedediadid.digital.gob.es/eu-es/paginas/accesibilidad.aspx>

Web-irisgarritasunaren kudeaketaren adibideak:

- Web-irisgarritasuna kudeatzeko eredua www.euskadi.eus webgunean:
<https://www.euskadi.eus/web-irisgarritasuna-kudeatzeko-eredua-euskadi-eus/web01-a2wz/eu/>

Gomendatutako dokumentazioa



Arrakalarik gabeko ekimen digitalak sortzeko gida.

Gipuzkoako Foru Aldundia, Innobasque (2023).
<https://www.gipuzkoa.eus/documents/917770/64145661/Arrakalarik%20gabeko%20ekimen%20digitalak%20sortzeko%20gida/545831aa-599f-c544-4866-702675f3a382?t=1708946108717>




Guía básica de accesibilidad web.

UPV-DicaTIC C. Esteve, S. Mascarell (2023).
<https://brechadigital.gva.es/documents/173628581/173628739/2023+UPV+GUIA+WEB+CAST/f3e9515b-54dd-4802-bca3-2f803fcf8da8>



Guía básica para crear contenidos accesibles en RRSS.

UPV-DicaTIC C. Esteve, S. Mascarell (2023).
<https://brechadigital.gva.es/documents/173628581/173628739/2023%20BUPV%20GUIA%20RRSS%20BCAST/72edcecc-d932-49fe-80f0-fd330bc13a91>



Guías para la elaboración de materiales educativos accesibles: vídeos con subtitulado, audiodescripción y lengua de signos.

J. L. López-Cuadrado et al. (2024).


<https://www.siiis.net/documentos/ficha/594887.pdf>



Guías para la elaboración de materiales educativos accesibles: generación de documentos PDF desde Word, Excel o PowerPoint.

J. L. López-Cuadrado et al. (2024).

<https://katalogoa.siiis.net/Record/594886>



Guías para la elaboración de materiales educativos accesibles: presentaciones en Microsoft PowerPoint.

J. L. López-Cuadrado et al. (2024).

<https://www.siiis.net/documentos/ficha/594884.pdf>



Guías para la elaboración de materiales educativos accesibles: documentos en Microsoft Excel.

J. L. López-Cuadrado et al. (2024).

<https://www.siiis.net/documentos/ficha/594883.pdf>



Guías para la elaboración de materiales educativos accesibles: documentos en Microsoft Word.

J. L. López-Cuadrado et al. (2024).

<https://www.sjis.net/documentos/ficha/594882.pdf>



Guías para la elaboración de materiales educativos accesibles: documentación con LaTeX.

J. L. López-Cuadrado et al. (2024).

<https://www.sjis.net/documentos/ficha/594885.pdf>



Accesibilidad Web. WCAG.2.2 de forma sencilla.

O. Revilla, O. Carreras (2024).

http://itakora.com/Accesibilidad_Web_WCAG_2_2_2024_Revilla_Carreras



Pautas de Accesibilidad Cognitiva Web.

Observatorio de Accesibilidad, Ministerio de Asuntos Económicos y Transformación Digital (2020).

<https://plenainclusionmadrid.org/wp-content/uploads/2020/12/Guia-Pautas-Accesibilidad-2020-final.pdf>



Guía de validación de accesibilidad web.

Observatorio de Accesibilidad, Ministerio de Asuntos Económicos y Transformación Digital, Ministerio de Hacienda y Función Pública (2023).

http://riberdis.cedid.es/bitstream/handle/11181/6955/Gu%C3%ada_de_validaci%C3%B3n_de_accesibilidad_web.pdf?sequence=1&rd=0031644940490209



Guía técnica para la revisión de accesibilidad de un sitio web según la UNE-EN 301549:2022.

Observatorio de Accesibilidad, Ministerio de Asuntos Económicos y Transformación Digital (2022).

<https://addaw.org/cdn/web/pdf/Guia-Tecnica-Revision-Accesibilidad-Sitio-Web-UNE-EN-301549-2022-v1-0.pdf>




inSuit

<https://www.insuit.net/es/preguntas-frecuentes/#propietarios-de-webs>

6.4.a	Gardentasuna areagotu eta herritarren parte-hartzean irisgarritasuna txertatu.
Ardatza	6. Informazioa, komunikazioa eta parte-hartzea.
Helburua	6.4. Udalaren gardentasuna areagotzea eta herritarren parte-hartzean irisgarritasuna txertatzea.
Lehentasuna	— Altua.
Irismena	— Udal-webguneko gardentasun-ataria. — Udalak herritarren parte-hartzearen inguruan ezarriak dituen irizpideak eta ohiturak, bai eta parte-hartze prozesuak ere. — Udalak publiko egiten dituen dokumentuak eta edukiak, bai eta horien inguruko irizpideak eta ohiturak ere. — Udalak egiten dituen komunikazioetako edukiak, eta horien inguruko irizpideak eta ohiturak. 
Egungo egoera	— Komunikazio asimetrikoa: Komunikazio gehienetan udaletik herritarrengana doa informazioa, eta ez dago bide argirik alderantzizkoa gertatzeko, herritarren komunikazioak jasotzeko, ez eta horien jarraipena egiteko. — Gardentasunaren garapena: Informazioa ez da beti modu errazean eskuratzen; edukiak sakabanatuta daude eta ez dira herritar guztientzat ulerterrazak, gehienak hizkuntza teknikoan idatzita daudelako. — Parte-hartze mekanismo mugatuak: Herritarren parte-hartzea sustatzeko kanalak badaude, baina ez dira sistematikoki irisgarritasun irizpideak aplikatzen (espazio fisikoetan, komunikazio digitaletan edo informazio materialetan). — Parte-hartze prozesuak: gero eta gehiago egiten dira, baina ez dira guztiz irisgarriak kolektibo guztientzat. — Irisgarritasun digitalaren gabeziak: Parte-hartze prozesuetarako online plataformek ez dituzte beti irisgarritasun arauak betetzen, eta horrek bazterria-arriskua sortzen du desgaitasuna duten pertsonetan.

- Inklusio desorekatua: Parte-hartzean ohikoagoa da kolektibo aktibo eta informatuen presentzia, eta eskasagoa, aldiz, desgaitasuna duten pertsonena, etorkinena edo gaitasun digital mugatuak dituztenena.



The screenshot shows the 'Gipuzkoa Irekia' website. The header includes the logo and navigation links like 'Datu irekiak' and 'Gardentasuna'. The main content area is titled 'Gardentasuna' and features three cards. The first card, 'Diru-laguntzak', dated 2023-11-02, mentions 'Aretxabaletako Udala' and 'Aretxabaletako Udalak ezarritako diru-laguntza programen deialdi irekia eta emandako diru-laguntzak'. The second card, 'Udal-gobernuko organoak eta dagozkien eginkizunak', dated 2022-03-17, mentions 'Aretxabaletako Udala' and 'Udal-gobernuko organoak eta dagozkien eginkizunak'. The third card, 'Hautetsiei buruzko informazioa', dated 2022-03-17, mentions 'Aretxabaletako Udala' and 'Aretxabaletako Udaleko hautetsiei buruzko informazioa'. A left sidebar contains filters for 'Erakundea' (Aretxabaletako Udala) and 'Gaia' (Antolaketa, plangintza eta ondarea; Arauak eta garrantzi juridikoa duen informazioa; Ekonomia, Finantza, Aurrekontuak eta).

Udal webgunean “Udala” atalean udal-informazioa eskuratzea ez da erraza. “Albisteak” atalean begiratu beharra dago, edo eta “Zerbitzuak” atalean, eskuratu nahi den informazioaren sail arduradunean topatzeko, baldin badago. “Gardentasuna” estekak, berriz, “Gipuzkoa Irekia” webgunera bideratzen du erabiltzailea.

Ordenantza

Aretxabaletako Udalak badauka parte-hartzea eta gardentasuna arautzen dituen udal-ordenantza, 2017an onartua.

- Ordenantza: <https://www.aretxabaleta.eus/eu/udala/ordenantzak>
- Partaidetza prozesu baten bitartez idatzi zen ordenantza. Prozesuari buruzko informazioa: <https://www.tapuntu.eus/proiektuak/aretxabaletako-parte-hartze-ordenantza-sortzeko-web-orria/>

Bi xede nagusir jasotzen ditu:

- Herritarrak ahaldundu, udal politika eta kudeaketa parte har dezaten neurriak sustatu eta parte hartzeko dituzten eskubideak bermatu.
- Herritarrek udal administrazioaren inguruko informazioa eskuragarri izatea ahalbidetu, udal administrazioaren funtzionamendu eta kudeaketa gardena bermatuta.

Helburu hauek zehazten ditu:

- Gizon eta emakume atxabaltarrak udal kudeaketa publikoan era orekatuan inplika daitezen bultzatzea, eremu publikoa interesatzen zaien herritar aktiboak izatearren.
- Udal gobernuaren jardueraren gardentasuna areagotzea eta gobernu jardueraren eta Aretxabaletako gizartearen arteko lotura egituratzea.
- Udal administrazioak herritarrei eskaintzen dien arreta hobetzea, udal administrazioaren eta herritarren arteko harremana eta komunikazioa hobetze aldera.
- Atxabaltarren udal administrazioaren funtzionamenduan parte hartzeko dituzte eskubideak bermatzea.
- Aretxabaletako elkarten ehuna sustatzea eta partaidetzaren kultura eta ohiturak zabaltzea.

	Arautzen dituen esparruak: — Parte-hartzeko moduak. — Herritarren elkarte eta taldeen parte hartzea. — Udalaren arreta zerbitzua. — Gardentasun publikoa. — Informazioa. Irisgarritasunari dagokionez: — Ordenantzan ez dago irisgarritasunaren, ulerterreztasunaren edo eta desgaitasunen inguruko aipamenik. — Parte-hartzea, gardentasuna, gobernantza-eredua eta horrelakoak irisgarritasunaren ikuspegitik landu eta egokitu beharko lirateke. — Lanketa amaigabea da, eta esparru honetan erreferentzia diren erakundeek etenik gabeko prozesu gisa hartzen dute, ez proiektu puntual bat bezala.
Azalpena	Parte-hartze inklusiboa: Herritarren parte-hartze prozesuetan irisgarritasun irizpideak txertatu nahi dira. — Epe laburrera hizkuntzaren inguruko oztopoak leundu nahi dira, epe ertainera desgaitasuna duten pertsonen parte-hartze eraginkorra sustatzeko. — Denboran aurrerago ekin beharko litzaioke Komunikazio, Partaidetza eta Gardentasun Ordenantzaren (edo antzeko baten) idazketari, irisgarritasun irizpideak txertatuz. Ekitaldi publikoetan aldibereko itzulpenak egitearen inguruan: — Lehenengo pausoa parte-hartze prozesuetarako itzulpen-sistema bat izatea aurreikusten da: jarduketan gailuen erorketa eta itzultzailearen lana sartu beharko lirateke. — Itzultzailearen lana garestia izan daiteke, are gehiago udal txiki batentzako. Lan hori Udalak berak edo komunitatearen bitartez egiteko modua lotzen bada, jasagarriagoa izaten da. Bestalde, teknologiak epe laburrera lan hori ordezkatzeko duela aurreikusten da: ikusi “Aditu” plataforma sortu berriari buruzko informazioa “Jarduketarako irizpideak” atalean, fitxa honetan bertan, beheago.  <i>Itzulpen maleta Hernanin 2015ean egindako parte-hartze prozesuan herritarrek aukeratutako proposamena izan zen, Udalak zein erabiltzaileek balorazio positiboa egin dutelarik behin baino gehiagotan. Aipatu maletina elkarleen eskura ere jartzen duela Udalak, beren jarduerak euskalduntzen laguntzeko.</i> Pixkanaka parte-hartze prozesuetan irisgarritasuna hobetzeko neurriak txertatzea aurreikusten da, jarduketa zehatzik jaso ez bada ere: udaleko arduradunen eta langileen formakuntza desberdinetatik espero da eratortzea esku-hartze horiek. Ikus irizpideak fitxaren azken atalean.
Kronograma	Jarduketa zehatzak Kostua (€)

2026	— Itzulpena: Ekitaldi publikoetan aldibereko itzulpenak egiteko sistemaren erosketa ("itzulpen maleta"). Arduradun teknikoari prestakuntza eman gailuen erabileraren eta mantentze-lanen inguruan. — Itzulpena: Ekitaldi jendetsuetarako itzulpen-lanaren ordainketa.	4.000 500
2027	— Itzulpena: Ekitaldi jendetsuetarako itzulpen-lanaren ordainketa.	500
2028	— Itzulpena: Ekitaldi jendetsuetarako itzulpen-lanaren ordainketa.	500
2029	— Itzulpena: Ekitaldi jendetsuetarako itzulpen-lanaren ordainketa.	500
2026-2029	— ---	---
2030-2033 (2)	— Komunikazio, Partaidetza eta Gardentasun Ordenantza idatzi, irisgarritasun irizpideak txertatuz.	12.000
Oharrak	— (2) IUPIaren denbora-irismena 2026-2029 laurtekoari badagokio ere, 2030-2033 laurtekoa gehitu da jarduketa jasotzeko, epe ertaineko aurreikuspen gisa. Aurrekontua modu berezian jaso da IUPIaren aurrekontu orokorrean (ikus Jarduketa Planaren laburpena). — Itzulpen lanari dagokion aurrekontu bat jarri bada ere, itzulpena udal-langileek egiteko aukera aztertzea gomendatzen da. Saio txikiei begira, herriko elkarteekin edo bolondresekin egiteko aukera ere ez litzateke baztertu behar.	
Udaleko arduradunak	— Komunikazioa eta partaidetza, edo alor horietan ardurak dituzten pertsonak. — Euskara, edo alor horretan ardurak dituzten pertsonak.	
Beste eragileak	— ---	
Esleipenak eta kanpo-baliabideak	— Ekitaldi publikoetan aldibereko itzulpenak egiteko sistemaren erosketa.	
Ebaluazio eta jarraipen adierazleak	— Ekitaldi publikoetan aldibereko itzulpenak egiteko sistemaren erosketa egin izana, eta kostua. — Emandako diru kopurua, hartzaileen kopurua eta profila. — Jarduketa nagusia: — Jarduketa egin den ala ez, eta bere kostua. — Lanketa eta parte-hartze saio kopurua, parte-hartzaileen kopurua eta profila.	
Jarduketarako irizpideak	— Webgunearen irisgarritasuna: Gardentasun-atariak irisgarritasun-irizpide guztiak betetzea gomendatzen da. — Hizkuntza ulergarria: Udaleko dokumentu guztietan, ahalik eta hizkera ulergarriena erabiltzea komeni da. — Formatu digital irisgarriak: Online parte-hartze plataformek ere irisgarritasun-estandarrek bete beharko lituzkete. — Parte-hartzailen profil anitza: Komeni da desgaitasuna duten pertsonen elkarteak erakartzea parte-hartze prozesuetara, beren ikuspegia txertatzeko. — Feedbacka jasotzea: Parte-hartze prozesuen osteko ebaluazio bat egitea gomendatzen da. Parte-hartze espazio eta prozesuak irisgarriagoak egiteko: — Laguntza-zerbitzuak eta -produktuak: Interpretazio zerbitzuak, laguntza teknikoak eta espazio irisgarriak bermatzea lortu nahi da. — Komunikazio irisgarria: Parte-hartze deialdiak eta prozesuak kanal eta formatu	

irisgarrietan zabaltzea proposatzen da, informazioa eskuratzeko aukera berdintasunez ziurtatzeko.

- Komunikazio bidirekzionala: Proposatzen da udalaren eta herritarren arteko komunikazio irekiagoak bultzatzea.
- Dokumentazio egokitua: Parte-hartzearekin lotutako dokumentuak irakurketa errazean, hizkuntza sinplifikatuan eta formatu alternatiboetan eskaintzea lortu nahi da.
- Prestakuntza eta sentsibilizazioa: Udal-langileei zuzendutako prestakuntza eta herritarrentzako sentsibilizazio-ekintzak garatzea proposatzen da, irisgarritasunaren kultura parte-hartzean txertatzeko.
- Aholkuak jasotzea: Gardentasun eta parte-hartze prozesuak diseinatzeko adituen aholkuak eskuratzeko proposatzen da.
- Protokolo bateratua: Gardentasuna eta irisgarritasuna uztartzen dituen gida bat egitea proposatzen da.

Komunikazio, Partaidetza eta Gardentasun Ordenantzari dagokionez:

- Aholkularitza-zerbitzu baten bitartez gauzatzea.
- Udaleko arduradunen zein langileen parte-hartzearekin.
- Herritarren parte-hartzearekin.
- Irisgarritasun irizpideak txertatuz.
- Partaidetza baxuena hauteman den herritar-taldeengana joz, arrazoiak eta baldintzatzaileak hautemateko.


Herritarren parte-hartzea: teknologiaren onurak eta erronkak

Teknlogiek komunikazio-arrakalak arintzeko aukerak eskaintzen dituzte, horien artean hizkuntzari lotutakoak. Herritarren partaidetzarako saioetan gauzaten da, besteak beste, arrakala hori.

- Xuxurlarien laguntzak eskaintzen dituen alderdi positiboak eta negatiboak kontuan hartuta, teknologikoetan oinarritutako hainbat irtenbide probatu dira azken urteotan, hauek ere bere alderdi positiboak zein negatiboak dituztelarik: tartean daude “itzulpen maleta” edo Telegramen erabilera.
- Irisgarritasunari dagokionez, irtenbide hauen inguruan bi arrakala hautematan daitezke: bata, gailu teknologikoek berekin dakartena (erabiltzaile batzu edo askok ikasketa-prozesu bat behar dute), eta bestea, ekonomikoa (batez ere Udal txikien kasuan).

Teknologiai esker eman daitezkeen jauzien azken adibidea da **“Aditu”**, Adimen artifizialean eta sare neuronaletan oinarritutako teknologia-multzoa.

- 2025eko irailean jakitera eman duenez, Elhuyarrek plataforma bakarrean bateratu ditu hizketaren eta ahotsaren bere teknologia guztiak.
- Eskaintzen dituen teknologien artean dago zuzeneko itzulpena aurkezpen eta ekitaldietarako.
- Prezio bat ere adierazi du, harpidetzik gabe erabileraren araberakoa izango dena: 15 euro orduko (gehi BEZa).
- Sistema hau ezartzeak ez luke “itzulpen maletak” eskatzen duen lehen kostua saihestuko (erabiltzaileek beharko dute gailuren bat itzulpena entzuteko), baina prezio oso merkean eskainiko luke itzulpena.
- Une honetan itzulpenaren kalitate- eta fidagarritasun-maila zein den ez badakigu ere, gauza jakina da datozen urteetan hobetu baino ez dela egingo.



The screenshot shows the Aditu website with a blue header. The main heading is "Transkribatu, azpigitulatu, itzuli eta bikoiztu azkar eta erraz" (Transcribe, subtitle, translate and dub quickly and easily). Below it, a subheading says "Sei hizkuntzatan lan egiteko aukera" (Opportunity to work in six languages). There are four circular images representing different services: "Transkribapenak" (Transcription), "Azpigituluak" (Subtitles), "Itzulpenak" (Translation), and "Bikoizketa" (Dubbing).

Zuzeneko itzulpenaz haratago, Adituk hiru erabilera nagusi izango ditu: alde batetik, bideoak eta audioak transkribatzea eta azpigituluak automatikoki sortzea; bestetik, sortutako transkripzioak eta azpigituluak automatikoki itzultzea; eta, azkenik, ikus-entzunezko edukiak itzultzea eta bikoiztea. Informazio osoa: <https://aditu.eus/>

Gomendatutako dokumentazioa



Herritarren partaidetza programa 2024-2027.
Gipuzkoako Foru Aldundia (2024).
https://www.gipuzkoa.eus/documents/917770/78362513/PROGRAMA_EU.pdf/f6c0dbf6-4019-f57f-de4b-ab737aca0517?t=1728650027881



Gipuzkoako Foru Aldundiaren Herritarren Partaidetza Programa 2024-2027.
Gipuzkoako Foru Aldundia (2024).
https://www.gipuzkoa.eus/documents/917770/78362513/IE_GFA%2520PARTAIDETZA_PROGRMA_EU.pdf/34b66ad1-8ac1-48a3-acad-35af116716c7?t=1728890207261



Irakurketa erraza.



Guía: Ciudadanía Activa ASPACE. Promoción de la participación.
Confederación ASPACE (2019).
<https://aspacebizkaia.org/w/wp-content/uploads/2019/07/Gu%C3%ADa-Ciudadania-Activa-Participaci%C3%B3n-LF.pdf>



Irakurketa erraza.

6.5.a	Udalerrirako seinaleztapen irigarria, ulergarria eta homogeneousa diseinatu, eta eraikin publikoetako sarbideetan errotulazioa jarri.
Ardatza	6. Informazioa, komunikazioa eta parte-hartzea.
Helburua	6.5. Informaziorako eta seinaleztapenerako errotulazioaren irugarritasuna hobetzea.
Lehentasuna	— Altua.
Irismena	- Seinaleztapenaren diseinua: udalerriko espazio eta eraikin publikoak. - Errotulazioa jartzea: eraikin publikoetako sarbideak, gutxienez herritarrek gehien erabiltzen dituzten udal-eraikinetakoak.
Egungo egoera	- Errotulazio aniztasuna eraikin publikoetan: Eraikin publikoetako sarbideetan dauden errotuluak estilo, tamaina eta kokapen desberdinetakoak dira, eta ez dago estandar bateraturik udalerrian zehar. - Irugarritasun-irizpideen aplikazio irregularra: Seinaleztapen guztiek ez dituzte bermatzen kontraste, tamaina eta kokapen egokiak; hainbatek ikusmen-arazoak dituzten pertsonen zailtasunak izan ditzakete. - Baliabide osagarrien eza: Seinaleztapen klasikoaz gain, ez dago beste baliabiderik, adibidez, Braille edo seinaleztapen akustikoa, sarbidea hobetzeko. - Informazio desorekatua: Ematen den informazioa ez dago estandarizatua, eta herritar askorentzat garrantzitsua izan daitekeen informazioa falta da batzutan. - Hizkuntza erabileraren ezberdintasunak: Orokorrean euskarak lehentasuna du eraikinetako errotuluetan, baina batzutan gaztelerazko informazioa urria edo gabea da, eta horrek ulermena oztopatzen du erabiltzailearen batzuentzat. - Seinaleztapenaren ikusgarritasun eta irakurgarritasun eskasa: Eraikin batzuetan, errotuluak ez daude ikusgai sartzen denean edo leku gutxi irugarritasun-baldintzak berrituta. - Homogeneotasun eta ulergarritasun faltak: Sarritan, eraikin bakoitzak bere eredu edo estiloa du, eta horrek desorientazioa eta informazio galera sor dezake erabiltzaileentzat.
Azalpena	Epe ertainera herriko seinaleztapena, iruditeria eta errotulazioa lantzea aurreikusten da, besteak beste irugarritasun-irizpideak txertatuz. Kanpo-zerbitzu baten bitartez



	egino litzateke, erabiltzaileen partaidetza txertatuz diseinu-fasean. Jarduketa zehatzak: — Udalerriko errotulazioa eta seinaleztapena diseinatu, irigarritasun-irizpideak txertatuz: identitate bisuala (tipografia, piktogramak, koloreak...), erabilera eta kokapen desberdinetarako irizpideak (informazio-karga, neurriak...), eta abar. — Errotuluak produzitu eta instalatu, irigarritasunaren inguruko informazioa txertatuz: udal eraikinetako sarbideak lehenetsiz, eta bigarren maila batean leudeke garraio publikoko geltoki zein geralekuak. Errotulu fisikoez gain, fitxategi digital editagarriak eskatu, informazioa aldatzen denean errazago eguneratzeko.	
Kronograma	Jarduketa zehatzak	Kostua (€)
2026	— ---	---
2027	— ---	---
2028	— ---	---
2029	— ---	---
2026-2029	— ---	---
2030-2033 (2)	— Udalerriko errotulazioa eta seinaleztapena diseinatu, irigarritasun-irizpideak txertatuz. — Errotuluak produzitu eta instalatu, irigarritasunaren inguruko informazioa txertatuz.	10.000 5.000
Oharrak	— (2) IUPIaren denbora-irismena 2026-2029 laurtekoari badagokio ere, 2030-2033 laurtekoa gehitu da jarduketa jasotzeko, epe ertaineko aurreikuspen gisa. Aurrekontua modu berezian jaso da IUPIaren aurrekontu orokorrean (ikus Jarduketa Planaren laburpena).	
Udaleko arduradunak	— Komunikazioa eta partaidetza, edo alor horietan ardurak dituzten pertsonak. — Hirigintza, Obrak. Beste sail/pertsona inplikatuak: — Euskara, edo alor horretan ardurak dituzten pertsonak.	
Beste eragileak	— ---	
Esleipenak eta kanpo-baliabideak	— Diseinu-zerbitzua. — Errotuluen produkzioa.	
Ebaluazio eta jarraipen adierazleak	— Udalerriko errotulazioa eta seinaleztapena diseinatu izana, eta kostua. — Errotuluak produzitu eta instalatu izana, kopurua eta kostua. — Erabiltzaileen parte-hartzea: saio kopurua, parte-hartzaileen kopurua eta profila.	
Jarduketarako irizpideak	— Sarbideetako errotulazioaren estandarizazioa: Proposatzen da eraikin publikoetako sarrera guztietan errotulazio irigarria, ulergarria eta homogeneoa ezartzea, irigarritasun unibertsala sustatzeko eta erabiltzaile guztientzat eskuragarri izateko lortu nahi da. — Informazio argia eta zehatza lortzea: Eraikin bakoitzaren inguruko informazio garrantzitsua modu argi eta zehatzean aurkeztea lortu nahi da, sarbidean bertan. — Homogeneotasun grafikoa: Diseinu homogeneoa bilatuko da, seinale guztiek antzeko formatu, kolore eta testu-irizpideak izan ditzaten; horrekin udal irudia indartu eta informazioaren ulergarritasuna hobetu nahi da.	

- Kontraste, tamaina eta kokapenaren zaintza: Seinale berriek letra-tamaina handi eta irakurgarriak, kontraste bisual egokia eta kokapen irisgarri eta ikusgaiak izan behar dituzte, eta horrela guztientzako irisgarritasuna lortu nahi da.
- Hizkuntza aniztasuna eta eraketa: Errotuluetan bi hizkuntzak (euskara eta gaztelania) erabili beharko lirarteke, informazioa herritar guztiari egokitzeko helburuz, eta behar denean piktogramak edo sinbologia ere txertatzea proposatzen da, edonork ulertzeko modukoak.
- Orientazio eta informazio argitasuna: Helburua da erabiltzaile guztien orientazioa erraztea, informazio-eskuragarritasun unibertsala eta sarbide segurtasuna lortu nahi dira egitasmo honen bidez.
- Ukipen eta audio baliabideak: Braillea, ukipen-mapak eta audio-gidak ezartzea proposatzen da, informazioaren eskuragarritasuna handitzeko.
- Larrialdi seinaleen koherentzia: Ebakuazio eta larrialdi seinaleen kokapena eta diseinua bateratzea lortu nahi da.
- Ikusgarritasun eta irakurgarritasun hobea: Gomendatzen da letra-tamaina handi eta kontraste handiko seinaleak erabiltzea, ikusmen-arazoak dituztenentzat irakurterrazak izan daitezen.
- Hizkuntzen erabilera argi eta anitza: Komeni da errotulu guztiak bi hizkuntzatan egitea (euskara eta gaztelania), eta informazioa modu grafiko ulergarrian osatzea beharrezkoa bada.
- Formatu osagarriak: Braillea, piktogramak eta QR kodeak bezalako baliabideak integratzea gomendatzen da.
- Kokapen eta altuera irisgarria: Seinaleen kokagunea eta altuera pertsona ororentzat erabilgarri egin, tartean gorpil aulkidunak edo mota ezberdineko mugikortasun- eta adimen-desgaitasuna duten pertsonak kontuan hartuta.
- Egokitasun juridiko eta normatiboa: Irisgarritasunaren eta larrialdien alorreko araudia bete beharko da.
- Elkarlana: Eraikin publikoetako arduradunek irisgarritasunaren arloko adituekin lan egitea gomendatzen da.

Gomendatutako dokumentazioa



Accesibilidad cognitiva en el uso público de los edificios.

Plena Inclusión, CERMI, CEAPAT (2021).

<https://www.plenainclusion.org/wp-content/uploads/2021/10/Accesibilidad-cognitiva-en-el-uso-publico-de-los-edificios.pdf>



Guía de recomendaciones en accesibilidad cognitiva.

OACEX, Plena inclusión Extremadura (2017).

<https://www.plenainclusionextremadura.org/plenainclusion/sites/default/files/publicaciones/Guia%20Orientaciones%20AC%20Edificios.pdf>



Accesibilidad cognitiva. Modelo para diseñar espacios accesibles.

Berta Brusilovsky (2015).


https://sid.usal.es/idocs/F8/FDO27112/Accessibilidad_cognitiva.pdf



Guía de recomendaciones en accesibilidad cognitiva.

FEAPS Madrid (2014).


<https://plenainclusionmadrid.org/wp-content/uploads/2017/12/GuiaderecomendacionesAccesibilidadcognitiva.pdf>



Accesibilidad cognitiva.

Cristina Larraz (2015).

https://ceapat.imsero.es/documents/20123/758147/reto_diez_acc_cog.pdf/2047b280-f98a-17d5-a344-554f6c631cde?t=1651263472890



Guía de Buenas Prácticas para una Señalización Accesible en Edificios. Catálogo de Pictogramas Accesibles.

GTAAC - Grupo de Trabajo Andaluz de Accesibilidad Cognitiva (2025).

https://www.iuntadeandalucia.es/sites/default/files/2025-06/IIGuiaSe%C3%B1alizacionAccesibleV6DEFweb_0.pdf

150 piktograma deskargatu:

https://drive.google.com/drive/folders/1bNWzEtCBmGL-Q4sI5215rZ_bXewgveJU

Arreta eta izapideak.

7.1.a Arreta irisgarriagoa eman herritarrei.	
Ardatza	7. Arreta eta izapideak.
Helburua	7.1. Arreta eta izapide irisgarriagoak eskaintzea.
Lehentasuna	— Altua.
Irismena / Hartzaileak	— Irismena: herritarrei eskaintzen zaien arreta zerbitzua. — Hartzaileak: herritarrei aurrez-aurreko arreta ematen dieten arduradunak eta langileak.
	Gida 1 Arreta-bideen irisgarritasunari buruzko jarduera-protokoloa Irigarritasunaren Behatokia Observatorio Accesibilidad de Euskadi
Egungo egoera	— Hitzorduen eskuragarritasuna: Arreta-zerbitzurako hitzordua eskuratzea zaila izaten da askorentzat, bereziki adinekoentzat, mugikortasun mugatua dutenentzat eta gaitasun kognitibo mugatuak dituztenentzat, sistema digitalak eta telefonoak ez baitira beti intuitiboak. — Komunikazioan oztopoak: Aurrez aurreko arreta-prozesuan komunikazioa eragozten duten oztopo nabarmenak daude. Ez dago baliabide teknikorik entzumen-murritzua duten pertsonen zerbitzu egoki bat emateko, hala nola entzumen-begizta magnetikoak edo zeinu hizkuntzako interprete birtualak. Horrek herritar horiek zerbitzu hori eraginkortasunez erabiltzea eragozten du. — Ahozko itzulpen informala. Ez euskara ez gaztelera ez dakiten herritar eta erabiltzaileekin komunikazioa informala da. Askotan, bapateko itzulpena “Google Translate” eta antzeko aplikazioen bitartez egiten da; beste batzutan, senide baten edo herrikide baten bitartekaritza eskertzen da. Bigarren aukera honen konfidentzialtasunari buruzko zalantza daude. — Informazioaren irakurgarritasun mugatua: Herritarrei arreta emateko puntuetan ematen den informazio bisuala, esaterako, pantailak edo kartelak, ez da beti ulergarria. Askotan, tipografia txikiak da, kolore-contraste eskasa du, edo erabiltzaileek hizkuntza oso teknikoak da. Horrek zaildu egiten die informazioa ulertzea aniztasun kognitiboak duten pertsonen, baita gaitasun mentalen bat duten edo hizkuntza menperatzen ez duten ere.

	— Informazioaren ulergarritasun mugatua: Informazioa sarritan testu tekniko eta formalean ematen da, eta horrek ulermen-arazoak edo gaitasun kognitibo mugatuak dituztenei eragozpenak sortzen dizkie. — Informazio eta prozesuen homogeneotasun faltak: Udal izapideen informazioa ez da beti modu ulergarrian eta homogeneoan aurkezten. Herritarrek behar duten informazioa modu koherentean jasotzeko arauak ez daude finkatuta, eta horrek laguntza eskatzeko bideak nahasi edo irregular bihurtzen ditu, batez ere desgaitasunak dituzten pertsonentzat. — Langileen formakuntza murrizta: Arreta ematen duten langileen prestakuntza ez da nahikoa desgaitasun eta behar desberdinak kontuan hartzeko. Honek komunikazio-arazoak sortzen ditu, adibidez, entzumen murriztua duten pertsonekin modu egokian aritzeko gaitasunik eza, edo irakurketa erraza behar duten dokumentuak modu egokian azaltzeko trebetasun faltak. — Teknologia lagungarrien falta: Aurrez-aurreko arreta zerbitzuetan ez dago baliabide nahikorik arreta irisgarria emateko, hala nola audio-gidak, pantaila interaktiboak edo bestelako baliabide digitalean oinarritutako laguntzak. Horrek mugikortasun edo ikusmen mugatua duten pertsonen autonomia mugatzen du eta arreta modu berdinean jasotzea oztopatzen du. — Erabiltzaileen iritzien eza: Herritarrek beren esperientziari buruzko iritzia emateko bide formal eta irisgarririk ez dago. Horrek zaildu egiten du zerbitzuaren akatsak eta hobekuntza-eremuak identifikatzea. Feedback-mekanismo irisgarririk gabe, udalak ezin du bere zerbitzua modu eraginkorrean ebaluatu, eta horrek oztopoak sortzen ditu herritar guztientzako arreta eraginkor bat bermatzeko.	
Azalpena	Lehenengo laurtekoan aurreikusi diren jarduketa zehatzak: — Atzerriko hizkuntzak hitzegiten dituzten erabiltzaileei arreta emateko sistema formal eta fidagarri bat ezartzea: — Alternatiba egokiena EUDELek eskaintzen duen hitzarmena sinatzea da, biztanle kopuruaren arabera Dualia enpresaren zerbitzua hainbat minutuz doan erabiltzeko aukera ematen duena. — Kontuan izan behar da hitzarmena udalen Gizarte Zerbitzuetara mugatzen dela. — Orohar, udal txikiek ez dute hitzarmenak eskaintzen duen doako minutuen kopurua gainditzen. — Entzumen mugatuko erabiltzaileei arreta emateko mahai gaineko begizta magnetikoak erostea. — Prestakuntzan herritarren arreta irisgarriaren inguruan ikasitakoak aplikatzen hastea. Noski, jarduketak jarraia izan beharko luke. Herritarrei arreta ematen zaien puntuetako izapideen irisgarritasuna hurrengo fitxan jorratu da: “Udal-izapideak irisgarriagoak egin”.	
Kronograma	Jarduketa zehatzak	Kostua (€)
2026	— Itzulpena: Arreta eskaintzen den zerbitzuetan Dualia erabiltzea. — Begizta magnetikoak erosi eta jarri herritarren arretarako gunetan: Hiru ale x 500 euro.	500 1.500
2027	— Itzulpena: Arreta eskaintzen den zerbitzuetan Dualia erabiltzea. — Herritarrei aurrez aurreko arreta irisgarriagoa ematen hasi, horretarako jasotako prestakuntzari jarraituz.	500 (4) 0
2028	— Itzulpena: Arreta eskaintzen den zerbitzuetan Dualia erabiltzea.	500
2029	— Itzulpena: Arreta eskaintzen den zerbitzuetan Dualia erabiltzea.	500

2026-2029	— ---	---
2030-2033	— Itzulpena: Arreta eskaintzen den zerbitzuetan Dualia erabiltzea.	Jarraia
Oharrak	— Dualia zerbitzuaren aurrekontua estimazio bat da. — 2027ko jarduketa, behin abiatuta, urteetan zehar modu jarraian gauzatzea aurreikusten da. — (4) Aurrekonturik gabeko jarduketa: Udalak bere baliabideekin egitea aurreikusten da.	
Udaleko arduradunak	— Euskara, edo alor horretan ardurak dituzten pertsonak. — Beste sail/pertsona inplikatuak: – Komunikazioa eta partaidetza, edo alor horietan ardurak dituzten pertsonak.	
Beste eragileak	— Herritarrek, bereziki desgaitasunaren inguruan beharrak/interesak/esperientzia/jakintza duten elkarte edo herritarrek.	
Esleipenak eta kanpo-baliabideak	— Begizta magnetikoen erosketa. — Dualia zerbitzua.	
Ebaluazio eta jarraipen adierazleak	— Herritarrei arreta eskaintzen den zerbitzuetan Dualia erabiltzea: erabilera kopurua, kosta, asebetasun-maila. — Begizta magnetikoak erosi eta jarri herritarren arretarako gunetan: kopurua, kostua.	
Jarduketarako irizpideak	— Gune eta bide irisgarriak: Gomendatzen da arreta puntuetara sartzeko dispositibo eta espazio fisiko guztiak sarbide libre eta irisgarriak izatea, erabilera orokorra bermatzeko. — Komunikazio erraztua erabiltzea: Esaldi laburrak, hiztegi arrunta eta euskarri bisualak erabiltzea komeni da, ulermena errazteko. — Komunikazio sistema egokituak: Komeni da informazio eta komunikazio baliabideak irisgarritasun kognitibo eta sentsorialerako egokituak izatea; piktogramak, testu handiak, braillea edo magneto indukzioak erabili beharko lirateke kasu bakoitzean. — Baliabideetan inbertitzea: Laguntza-teknologiak eskuratzea eta etengabe eguneratzea komeni da. — Pertsonalaren prestakuntza jarraitua: Gomendatzen da arreta-zerbitzuetako langileek prestakuntza eta eguneraketa iraunkorra jasotzea, irisgarritasun eta komunikazio inklusiboan. — Hizkuntzen erabilera plurala: Komeni da hizkuntza ofizial guztiak, eta beharrezkoak direnean beste hizkuntza baliabideak (ingelesa, frantsesa...) kontuan izatea, herritarrek informazioa modu berdinean jasotzeko aukera izan dezaten. — Arreta integrala: Harrera eredua irisgarritasun unibertsalaren printzipioetan oinarritzea beharko litzateke. — Arreta-protokolo argia: Gomendatzen da zerbitzuan erantzun-epeak, arretaren prozesua eta informazioaren banaketa aurrez definituta eta publiko eginda, herritarren esperientzia hobetzeko eta irisgarritasunean etapa guztiak bermatzeko. — Herritarrekin batera: Adituen laguntzaz gain, gomendatzen da kolektibo desberdinen elkarteekin batera diseinatzea neurriak. — Protokoloen aplikazioa eta berrikuspina: Arreta-protokoloak betetzeaz gain, aldian-aldian berrikustea gomendatzen da. — Aurrez aurreko arreta irisgarria: Proposatzen da herritarrei zuzendutako aurrez aurreko arreta sistema birdefinitzea, baliabideak eta zerbitzuak irisgarritasun fisiko, kognitibo eta sentsoriala ziurtatuko duten parametroekin, pertsona guztiek eskaintza berdinak izan ditzaten.	

- Arreta eskuragarria: Aurrez-aurreko arreta guztientzako eskuragarri egitea da asmoa, hitzorduak lortzeko prozesuak sinplifikatuz eta kolektibo bereziei erraztasunak eskainiz. Gainera, aurrez-aurreko arreta herritar askoren lanaldien ordutegietara egokitzeko, astean egun batean arreta arratsaldean emateko aukera aztertuko da.
- Pertsonalaren prestakuntza irisgarritasunaren inguruan: Arreta-zerbitzuetan diharduen lan-taldearentzat prestakuntza espezifiko eskaintzea proposatzen da, irisgarritasuna, komunikazio erraza, eta hizkuntza aniztasuna barne, lortu nahi da arretaren kalitatea berdintzea.
- Informazioa irisgarri egitea: Ematen diren edukiak irisgarriagoak egitea eta informazio-kartel, pantaila eta jakinarazpen guztiak formatu irisgarrietan eskaintzea proposatzen da.
- Hizkuntza eta komunikazio baliabide irisgarriak: Informazioa eta komunikazioa herritar ororentzat ulergarria izan dadin, beharrezkoak diren komunikazio-baliabideak (adibidez, piktogramak, entzumen-begizta magnetikoa edo eta zeinu hizkuntzako interprete birtuala) ezartzea proposatzen da. Gainera, hizkuntza menperatzen ez dutenei arreta emateko itzulpen-baliabideak eskaintzea da asmoa.
- Espazioen egokitzapen eta seinaleztapena: Arreta guneak eta zerbitzu-puntuak arras egokitu, seguru eta identifikaziorako erraztasunarekin uztea proposatzen da, lortu nahi da mugikortasun eta orientazio berezia dutenentzat egokitutako guneak izatea.
- Itxarote erosoak: Itxarote-guneetan irisgarritasuna, konforta eta laguntza-baliabideak hobetu nahi dira.
- Herritarren gogobetetzea: Arreta jasotzen duten pertsonen esperientzia hobetzea da helburua.
- Iraunkortasuna: Ez da neurri puntual bat izango; jarraipena eta hobekuntzak aldian-aldian berrikustea aurreikusten da.

Begizta magnetikoak

Teknologia honek soinu kalitatea hobean eta zaratarik gabe entzuteko aukera ematen die audifonoak eta inplante koklearrak dituzten pertsonen. Aretoko batean jarritako instalazioa izan daiteke (kontzertuek, hitzaldiek, zinemak eta abar gozatzeko) edo aurrez-aurreko arreta-puntuetan jarritako gailua izan daiteke, instalazio-lanik behar ez duena. Bigarren aukera da IUPIan jaso dena.

HAZ

Hurrengo fitxa udal-izapideen irisgarritasunari buruzkoa bada ere (ikus “Udal-izapideak irisgarriagoak egin.”), herritarren arreta-guneetan egin daitezkeen izapideak identifikatzea eta irisgarritasunaren ikuspegitik aztertzeak aukera jasotzen du IUPIak. Hurrengo pausoa litzateke emaitza karta gisa komunikatzea. Adibidez, Errenteriako Udalak bezala:

- HAZko karta:

https://static.errenteria.eus/web/eu/udala/zu/zerbitzu-karta/Zerbitzu-karta_ZU_lu_EU.pdf

- eta bere laburpena:

https://static.errenteria.eus/web/eu/udala/zu/zerbitzu-karta/Zerbitzu-karta_ZU_la_EU.pdf

<https://www.cnse.es/media/k2/attachments/Guia-Accesibilidad-CNSE-PS.pdf>



Egitasmoa: PROP bulegoetan herritarrei arreta hobea ematea.

Generalitat Valenciana.

<https://rendiciocomptes.gva.es/es/millorar-atencio-ciudadania-oficines-prop>



Harrera komunitarioetara hurbilketa: ibilbide integralak diseinatzeko gakoak.

Gipuzkoako Foru Aldundiak sustatutao
Herritarren Partaidetzarako Erakunde Arteko
Espazioa (2024).

<https://www.gipuzkoa.eus/documents/917770/0/Harrera%20komunitarioetara%20hurbilketa.%20Ibilbide%20integralak%20diseinatzeko%20gakoak.pdf>

7.1.b	Udal-izapideak irisgarriagoak egin.
Ardatza	7. Arreta eta izapideak.
Helburua	7.1. Arreta eta izapide irisgarriagoak eskaintzea.
Lehentasuna	— Altua.
Irismena / Hartzaileak	— Irismena: herritarren eskura dauden udal-izapideak. — Hartzaileak: izapide horiek diseinatzeko edo kudeatzeko dituzten arduradunak eta langileak. 
Egungo egoera	— Dokumentu ulergaitzak: Inprimakiak eta informazio-orriak ez daude irakurketa errazean idatzita, eta hizkuntza teknikoak nagusi da. Horrek ulermen-arazoak eragiten ditu. — Prozedura konplexuak: Udal izapide gehienak paper-oinarrian eta modu tradizionalean kudeatzen dira, eta horrek zailtzen du desgaitasunak dituzten pertsonentzako ulermena eta erabilera. Prozedura hauetan urratsak askotan ez dira modu argi eta homogeneoan aurkezten. — Formatu irisgarri faltak: Dokumentu eta inprimaki askok ez dute testu handirik, kontraste egokirik edo irakurketa errazeko bertsiorik. Honek herritarrei informazioa modu errazean jasotzea zailtzen die, bereziki adimen edo irakurketa-zailtasunak dituztenei. — Digitalizazio eta laguntza teknologiko irregularra: Izapideen webguneetan eta plataforma digitaleetan ez da beti bermatzen irisgarritasun maila bera; adibidez, formatu elektronikoak ez dira beti nabigagarria pantaila-irakurgailuentzat edo bestelako tresna lagungarrientzat. — Informazio-kanalen koherentzia falta: Herritarrek informazioa jasotzeko bideak ez dira beti koherenteak eta koordinatuak; aurrez-aurreko zerbitzua, telefonoa eta online kanalen artean irisgarritasun maila ezberdinak daude. — Hizkuntza ulermen mugatua: Sarritan, euskara edo gaztelera menperatzen ez duten herritarrek informazioa jasotzeko zailtasunak adierazten dituzte. — Langileen prestakuntza ez nahikoa: Udal langileek ez dute beti prestakuntza egokia izapideak modu irisgarrian kudeatzeko, hala nola, pertsona adimen-urritasuna dutenekin edo hizkuntza-erraza behar dutenekin komunikatzeko.

	— Zerbitzuen ebaluazioa: Udaleko izapideen irisgarritasun-maila ebaluatzeneko sistemarik ez dago. Horrek zaildu egiten du hobekuntza. Izan ere, ez badago modu eraginkor bat arazoak detektatzeko, ezin dira neurri zuzentzaile egokiak hartu, eta horrek udalak ez du aukerarik hobetzeko, eta horrek herritarrei kalte egiten die.
Azalpena	— Izapideak irisgarriagoak egiteko ibilbide bat jaso da IUPIan. Udaleko arduradun eta langileek gidatutako prozesu bat litzateke, izapideen irisgarritasun-mailaren diagnostiko partekatu bat egitera bideratua. — Ondorengo laurtekoan etorriko litzateke diagnostikoa bera osatzea, eta ondorioen arabera esku-hartzeak diseinatzea. 2026-2029 laurtekoako jarduketa zehatzak: — Izapideen identifikazioa eta sailkapena. Helburua: Udal-sail bakoitzean egiten diren izapideak identifikatu, sailkatu eta dokumentatzea. — Adierazleen diseinua eta behaketa-plana. Helburua: Izapideen erabilera errealaren behaketa eta neurketarako metodologia eta adierazleak zehaztea.. — Behaketa, neurketa eta iritzien bilketa. Helburua: Izapideen erabilera errealaren behaketa eta neurketa, eta herritarren iritzia jasotzea. Aurreko lanen emaitza 2030-2033 laurtekoan gauzatzea aurreikusten da. Jarduketa zehatza aurrean horietan zehar definituko bada ere, IUPI honetan bertan bi aukera iradoki dira: — Herritarren Arreta Zerbitzuaren zerbitzu-karta zehaztu (irisgarritasun-irizpideak jarraituz eta irisgarritasunerako baliabide espezifikoak txertatuz) eta argitaratu. — Herritarrentzako Izapideen Gida zehaztu eta argitaratu, irisgarritasun- eta gizarteratze-irizpideak txertatuz, bai eskaintzaren diseinuan, bai sortutako dokumentazioan bertan. Datozen urteotan Udalak jorratu ditzakeen lan-ildoak: — Arrakala digitala ekiditeko neurriak hartzea, izapideak gauzatzeko modu bakarra online ez delarik. — Helburu nagusia: Udal izapide guztiak irisgarriagoak izatea da asmoa, bai formatuan, bai prozeduretan. — Prozeduren sinplifikazioa: Izapideak urrats argietan eta hizkera erraztuan egituratzea da asmoa, gaitasun desberdinak edo ulermen-arazoak dituztenentzat prozesuak errazagoak izan daitezen. — Baliabide irisgarriagoen eskaintza: Dokumentuak eta informazioa audioan, bideoan, piktogramatan edo testu sinplean eskaintzea proposatzen da, mugikortasun mugatua, ikusmen edo gaitasun kognitibo mugatuak dituztenek errazago izateko. — Laguntza pertsonalizatuaren indartzea: Presentzial nahiz telematikoko bideko laguntza pertsonalizatu eta inklusiboa bermatzea da helburua, kolektibo berezien galderak eta zailtasunak kontuan hartuz. — Tresna digitalak berrikustea. Modu horretan, irisgarritasun estandarrak betetzen dituztela ziurtatu ahal izango da. Lortu nahi da webguneek eta inprimaki digitalek funtzionalitate irisgarri guztiak izatea, adibidez, nabigazioa teklatuaren bidez egiteko aukera edo pantaila-irakurgailuekin bateragarritasuna izatea. — Leihatila bakarraren eredua: Izapide gehienak leku fisiko edo digital bakarrean zentralizatzea da asmoa, kolektibo berezientzat bide eta pausuak ulerterrazak izan daitezen. — Herritarren parte-hartzea: Diseinu-prozesuan herritarren iritzia txertatzea aurreikusten da. — Ebaluazio sistema bat ezartzea: Izapideen irisgarritasuna aldi-aldi ebaluatzea lortu nahi da. Horren bidez, hobekuntza plan bat ezartzeko aukera izango da. Ebaluazio hori erregularra eta formala izango da, eta herritarren iritzia jasotzea ahalbidetuko du, eta horrek udal-izapideak etengabe hobetzea ahalbidetuko du.

Kronograma	Jarduketa zehatzak	Kostua (€)
2026	— ---	---
2027	— Izapideen identifikazioa eta sailkapena.	(4) 0
2028	— Adierazleen diseinua eta behaketa-plana.	(4) 0
2029	— Behaketa, neurketa eta iritzien bilketa.	(4) 0
2026-2029	— ---	---
2030-2033 (2)	— Herritarren Arreta Zerbitzuaren zerbitzu-karta zehaztu eta argitaratu. — Herritarrentzako Izapideen Gida zehaztu eta argitaratu.	15.000
Oharrak	— (4) Aurrekonturik gabeko jarduketa: Udalak bere baliabideekin egitea aurreikusten da. — (2) IUPIaren denbora-irismena 2026-2029 laurtekoari badagokio ere, 2030-2033 laurtekoa gehitu da jarduketa jasotzeko, epe ertaineko aurreikuspen gisa. Aurrekontua modu berezian jaso da IUPIaren aurrekontu orokorrean (ikus Jarduketa Planaren laburpena).	
Udaleko arduradunak	— “Udal Irisgarria” jarduketa-eremu nagusiko kudeatzailea edo kudeaketa-taldea.	
Beste eragileak	— Herritarrak, bereziki desgaitasunaren inguruan beharrak/interesak/esperientzia/jakintza duten elkarte edo herritarrak.	
Esleipenak eta kanpo-baliabideak	— ---	
Ebaluazio eta jarraipen adierazleak	— Identifikatutako izapideak: kopurua, saila. — Diagnostikoa egiteko ezarritako adierazleak. — Behaketaren emaitza, ezarritako adierazleen arabera. — Erabiltzaileen parte-hartzea: saio kopurua, parte-hartzaileen kopurua eta profila.	
Jarduketarako irizpideak	Izapideak irisgarriagoak egiteko irizpide orokorrak — Urrats argiak eta errazak: Prozedurak urratsez urrats gida laburretan eta hizkera sinplean jasotzea gomendatzen da, gaitasun eta perfil desberdinei ulertteraza izan dadin. — Izapideak sinplifikatzea: Izapide guztiak sinplifikatzea komeni da. Horren bidez, izapideak egiteko beharrezkoak diren urratsak, dokumentuak eta informazioa murriztea lortuko litzateke. Prozesuak azkarragoak eta ulergarriagoak izango lirateke, eta denboraren eta baliabideen erabilera hobetzea ahalbidetuko luke. — Hizkera eta formatu inklusiboak: Audioa, bideoa, piktogramak eta testu sinplea eskaintzea komeni da, ulermen-arazoak, gaitasun kognitibo mugatua edo hizkuntza menperatzen ez dutenentzat. — Laguntza anitz eta pertsonalizatua: Online, telefono zein aurrez aurreko kanaletatik laguntza eskaintzea da gomendagarria, pertsona guztien beharrak kontuan hartuz. — Informazio gidak: Izapide-mota bakoitzeko gida argi eta irisgarriak sortzea gomendatzen da. Gida horiek hizkuntza sinplean eta irakurketa errazean idatzi beharko lirateke, eta irudiak edo piktogramak ere txertatzea komeni da. — Plataforma irisgarri eta errazak: Aplikazio eta webgune digitalak WCAG arauak eta pantaila-irakurgailuekin bateragarritasuna betetzea komeni da, ikusmen murriztua, mugikortasun mugatua edo gaitasun kognitibo mugatua dutenentzat.	

- Leihatila bakarraren eredua: Udal izapide guztiak zentralizatzea da gomendagarria, kolektibo desberdinek prozesua errazagoa izan dezaten.
- Langileen prestakuntza: Langileak izapideak erraztuz komunikatzen trebatu beharko lirateke. Horretarako, irakurketa errazeko teknika eta metodologiak erabiltzeko trebakuntza eman beharko litzateke.

Izapideen identifikazioa eta sailkapena.

- Helburua: Udal-sail bakoitzean egiten diren izapideak identifikatu, sailkatu eta dokumentatzea. Lan ildoak:
 - Izapideen zerrenda osatu: Sail bakoitzak egiten dituen izapideak bildu (errola, laguntza eskaerak, baimenak, ordainketak...).
 - Izapide motak sailkatu: Aurrez aurrekoak, online, telefonikoak; sinpleak vs. konplexuak; herritar guztientzako vs. kolektibo zehatzentzako.
 - Dokumentazio teknika bildu: Inprimakiak, webguneko atalak, prozedura deskribapenak, araudi lotuak.
 - Langileen esperientzia jaso: Izapide bakoitzaren zailtasun ohikoak, herritarren zalantzak, laguntza beharrak.
 - Kolektibo baztertuen ikuspegia: Zein izapideek eragiten dieten gehien desgaitasuna duten pertsonen, adinekoei, hizkuntza menperatzen ez dutenei...
 - Txosten laburra osatu: Izapideen mapa eta sailkapen praktikoa, diagnostikorako oinarri gisa.

Adierazleen diseinua eta behaketa-plana.

- Helburua: Diagnostikoa egiteko erabiliko diren adierazleak definitu eta behaketa-metodologia prestatu. Lan ildoak:
 - Irisgarritasunaren dimentsioak zehaztu: Fisikoa, komunikatiboa, kognitiboa, digitala, emozionala.
 - Inklusio sozialaren ardatzak definitu: Adina, jatorria, hizkuntza, genero, maila sozioekonomikoa.
 - Adierazle multzoa osatu: Sarbide erraztasuna, ulermen-maila, autonomia, laguntza eskuragarritasuna, denbora, gogobetetzea.
 - Behaketa-tresnak prestatu: Check-listak, behaketa-fitxak, langileentzako jarraibideak.
 - Herritarren iritzia jasotzeko tresnak: Inkesta laburrak, elkarriketa-gida, talde fokal egitura.
 - Aholkularitza teknikoaren ekarpena: Adierazleen baliozkotzea eta tresnen egokitzapena.
 - Protokolo operatiboa idatzi: Diagnostikoaren fase praktikoa zehaztu.

Behaketa, neurketa eta iritzien bilketa.

- Helburua: Izapideen erabilera errearen behaketa eta neurketa, eta herritarren iritzia jasotzea. Lan ildoak:
 - Izapide errearen behaketa: Langileek izapideak nola gauzatzen diren behatu, adierazleak aplikatuz.
 - Langileen autoebaluazioa: Prozedura bakoitzaren irisgarritasunaren eta inklusioaren inguruko hausnarketa.
 - Herritarren iritzia jasotzea: Inkestak, elkarriketak edo talde fokalak kolektibo desberdinekin.
 - Datuen bilketa sistematikoa: Fitxa eta tresna guztiak beteta, informazioa zentralizatuta.
 - Lehen ondorioak identifikatu: Zein izapideek arazo nabarmenak dituzten, zein kolektibok zailtasun gehien.

Herritarrentzako Izapideen Gida zehaztea eta argitaratzea.

- Herritarrei zuzendutako gida honetaz gain, udal-langileei zuzendutako Izapideen

	Eskuliburua osatzea aurreikusten da, aholkularitza-zerbitzu baten bitartez. Adibidez, Arrasateko Udalaren Izapideen Eskuliburua idazteko baldintzak: https://www.contratacion.euskadi.eus/webkpe00-kpeperfi/eu/contenidos/anuncio_contratacion/expjaso597129/eu_doc/index.html (ikus “Plegu teknikoa.pdf” fitxategia “Fitxategiak” atalean).
Gomendatutako dokumentazioa	 Estudio de accesibilidad de los trámites con la administración pública en España, 2017. Fundación ONCE, Cermi (2017). https://observatoriodelaaccesibilidad.es/wp-content/uploads/2024/04/Estudio-de-accesibilidad-de-los-tramites-de-la-administracion-publica-en-espana-2017.pdf
	 Mayores y exclusión tecnológica. Radiografía de una desigualdad arrumbada. J. Varela, UGT (2025). https://www.ugt.es/sites/default/files/Microsoft%20Word%20-%20Def.%20ESTUDIO-MAYORES%20Y%20EXCLUSI%C3%93N%20TECNOL%C3%93GICA%20VF%2009052025.pdf
	 La protección de las personas consumidoras vulnerables con discapacidad frente a la brecha digital. Gloria Esperanza Álvarez Ramírez (2024). https://back.cermi.es/catalog/document/file/10rgw-la-proteccion-de-las-personas-consumidoras-vulnerables---cermi.es-88---accesible.pdf
	 Guía breve: claves para la atención a personas autistas en las notarías. Confederación Autismo España et al. (2024). https://www.siiis.net/documentos/ficha/599546.pdf

Aisialdia, ongizatea eta garapena.

8.1.a.	Zerbitzu eta Baliabideen eskaintzaren irugarritasun- eta inklusio-mailaren diagnostikoa osatu eta hobekuntzarako irizpideak ezarri.
Ardatza	8. Aisialdia, ongizatea eta garapena.
Helburua	8.1. Udal-zerbitzu eta baliabide eskaintza irugarriagoak eta inklusiboagoak bermatzea.
Lehenetasuna	— Altua.
Irismena / Hartzaileak	— Irismena: herritarrei eskaintzen zaizkien udal-zerbitzuak, edo eta herritarren eskura udalak jartzen dituen baliabideak. Zuzenean Udalak ematen dituenak, bai eta zeharka ere (adib. kontratu edo emakida bitartez). — Hartzaileak: zerbitzu eta baliabide horiek diseinatzen edo kudeatzen dituzten arduradunak eta langileak.
Eguno egoera	— Zerbitzu eta baliabideen ikuspegi partziala: Udalak eskaintzen dituen zerbitzu eta baliabideak sail bakoitzak bere kabuz kudeatzen ditu, eta ez dago argi zein den zerbitzu bakoitzaren benetako irugarritasun-maila. Ebaluazioa eta jarraipena modu informalean egiten da, eta horrek zaildu egiten du gabeziak identifikatu eta hobekuntza planifikatu ahal izatea. Udal txikia izanik, lan-karga handia da, eta horrek eragozten du eguneroko zereginenez gain, halako proiektu transbertsal eta konplexuei modu eraginkorrean aurre egitea.



- Zerbitzuen eta baliabideen identifikazio, sailkapen eta dokumentazio gabezia: Udalak ez dauka udal-zerbitzu guztien katalogo bateratu eta irisgarri bat. Informazioa, gehienbat, ahozkoa eta sakabanatua da sailen artean. Ondorioz, datu guztiak biltzea, aztertzea eta irudi osatu bat sortzea oso zaila da, eta ez da modu formal batean dokumentatzen.
- Erabilera errealearen ezagutza mugatua: Ez da modu sistematikoan behatu nola erabiltzen dituzten herritarrek zerbitzuak, eta ez da jasotzen kolektibo zaurgarrien esperientzia eta iritzia modu egituratuan.
- Diagnostikorako adierazle eta metodologia zehatzik eza: Ez da ezarri irizpide edo adierazle zehatzik udal-zerbitzuen irisgarritasun-maila eta inklusioa neurtzeko. Ez dago behaketa-plan edo protokolo estandarizaturik, eta horrek zaildu egiten du zerbitzu desberdinen arteko alderaketa edo ebaluazio objektiboa egitea.
- Erabiltzaileen iritzia eta esperientziaren azterketa sistematikorik eza: Herritarren iritziak eta kexak modu informalean jasotzen dira, eta ez da modu estandarizatuan dokumentatzen. Ez dago mekanismo argirik zerbitzuen mugak desgaitasunen bat duten pertsonen, adinekoei edo beste kolektibo zaurgarri batzuei nola eragiten dien neurtzeko, eta horrek ondorio sendoak ateratzea eragozten du.

Zerbitzu eta baliabide askotan hauteman daitezkeen gabeziak:

- Eskaintza heterogeneoa: Udalak eskaintzen dituen aisialdi-jardueretan irisgarritasun eta inklusio maila desberdina da; batzuk ondo egokituak daude, baina askok ez dituzte kontuan hartzen desgaitasun fisiko, kognitibo edo sentorialak dituzten pertsonak.
- Programazio zurrina eta mugatua: Aisialdiko jarduera asko estereotipoetan oinarritzen dira, eta ez dituzte pertsona guztien beharrak kontuan hartzen, eta horrek zenbait pertsona baztertuta uzten ditu. Adibidez, adin, jatorri eta kultura desberdinetako pertsonen parte-hartzea baxuagoa da, eta horrek bazterketa soziala eragin dezake.
- Material espezializatu falta: jolas-parkeetan eta aisialdirako guneeetan ez dira erabiltzen inklusioan oinarritutako jolas-elementuak.
- Bazterkeria soziala: Aisialdiko eskaintza ez da beti inklusiboa. Adibidez, gaisotasun mentalen bat duten pertsonen ezin dute parte hartu jarduera batzuetan, eta horrek estigma soziala areagotu dezake.
- Eskaintzaren inklusibotasuna: Aisialdi-jardueretan ez da beti kontuan hartzen herritarren aniztasun soziala (adina, sexua/generoa, maila ekonomikoa, kultura, jatorria), eta horrek hainbat herritarren parte-hartzea mugatzen du.
- Parte-hartze desorekatua: Ekitaldi edo programa guztietan kolektibo jakin bat edo beste falta izaten bada ere, hauteman da zenbait kolektiboren parte-hartzea oso baxua dela ekitaldi edo programa batzutan.
- Dinamizazio eskasa: askotan, aisialdirako ekimenak ez dira komunitatearen beharren arabera diseinatzen, eta parte-hartze soziala murrizta da.
- Irisgarritasun ekonomikoa: Jardueren kostuek baztertu egiten dituzte maila sozioekonomiko baxuko familak.
- Begiraleen prestakuntza falta: Aisialdi-begiraleek ez dute formakuntza nahikorik irisgarritasunari buruz.
- Langileen prestakuntza ez nahikoa: Jarduerak antolatzen dituzten langileek ez dute beti prestakuntza egokia irisgarritasuna eta inklusioa bermatzeko, eta horrek jardueren kalitatea eta erabilgarritasuna mugatzen du.
- Koordinazio faltak: Aisialdi-eskaintza, informazioa eta erreserba-kanalak ez daude beti koordinatuta, eta horrek zailtzen du herritar guztiek baliabideak modu berdinean erabiltzea.



Udal askotan adinaren ardatzari jarraituz txertatu da inklusibotasuna hainbat zerbitzu, programa edo eta egitasmotan. Adineko pertsonen jardukera fisikoa sustatzeko programak dira horren adibide bat. Aipatzekoa da “AtxabaltaMugi” bezalako programen garapena urteetan zehar, adin-tarte gehiagoetara zabaltu baitira, eta jarduera gehiago txertatu baitituzte (elikadura, ongizate emozionala...), izaera inklusiboago eta sozialagoa hartuz.



Adinaren ardatzarekin jarraituz, eta irisgarritasunarekin duen lotura kontuan izanik, aipatzekoa da abian jarri berria den ASE-Autonomia Sustatzeko Espazioa.

Azalpena

- Banaka edo kolektibo gisa, herritarren aisialdia, ongizatea eta garapena sustatzera edo bermatzera bideratutako zerbitzu eta baliabideen barruan sartu dira, besteak beste, esparru hauekin zerikusia dutenak: kultura, hezkuntza, aisialdia, kirola,

gizarte-ongizatea eta -integrazioa, feminismoa, haurtzarora eta gazteria, mendekotasuna, zainketak eta etxeko laguntza, eta abar.

- Zerbitzu eta baliabide guzti hauen irisgarritasun eta inklusio-maila hobetzea da jarduketaren helburua.
- Lanketaren zailtasuna eta Udalak dituen baliabide zein gaitasunen mugak ikusirik, planteamendu errealista egin da: lehen laurtekoan diagnostikoa osatzea eta ondorioak ateratzea, eta bigarren laurtekora atzeratzea, bai zerbitzu eta baliabideen berrikuspena egitea, bai emaitzaren idazketa eta argitalpena.
- Udaleko arduradun eta langileek gidatutako prozesu bat litzateke, izapideen irisgarritasun-mailaren diagnostiko partekatu bat egitera bideratua.
- Hurrengo laurtekoan etorriko litzateke diagnostikoa bera osatzea, eta ondorioen arabera esku-hartzeak diseinatzea.
- Lanketa Udaleko teknikari eta langileek gidatzea aurreikusten da: beraiek gidatu eta gauzatuko dute. Ez da baztertzeko lehen laurteko faseren batean kanpo-aholkularitza jasotzea.
- Jarduketaren planteamendua progresiboa da: udal-sailek, guztiek batera, urtean pauso bat ematea aurreikusten da. Estrategia hau lehenetsi da, beste alternatiba batzuren artean: adibidez, urte batean sail batek edo biek aurrean hauek hasi eta bukatzea, hurrengoan beste bat edo biek gauza bera egitea aurrekoek ikasitakoa aplikatuz...

2026-2029 laurtekorako jarduketa zehatzak:

- Zerbitzu eta baliabideen identifikazioa.
- Adierazleen diseinua eta behaketa-plana.
- Behaketa, neurketa eta iritzien bilketa.

Zerbitzu eta baliabideen identifikazioa:

- Zerbitzuen zerrenda osatu: Sail bakoitzak eskaintzen dituen zerbitzuak eta baliabideak bildu (adibidez: gizarte-laguntzak, kultura-programak, kirol instalazioak, arreta administratiboa...).
- Sailkapen funtzionala: Zerbitzuak sailkatu helburuaren arabera (informazioa, laguntza, parte-hartzea, prestakuntza, aisialdia...).
- Kolektibo hartzaileak identifikatu: Zerbitzu bakoitzak zein herritar multzori zuzentzen zaion zehaztu, eta zein kolektibo bazterturi eragiten dien bereziki.
- Dokumentazio teknikoa bildu: Inprimakiak, webguneko atalak, araudi lotuak, baliabide osagarriak.
- Langileen esperientzia jaso: Zerbitzu bakoitzaren funtzionamendu praktikoa, zailtasun ohikoak eta herritarren zalantzak.
- Zerbitzuen mapa osatu: Zerbitzu eta baliabideen ikuspegi orokorra, diagnostikorako oinarri gisa.

Adierazleen diseinua eta behaketa-plana:

- Irisgarritasunaren dimentsioak zehaztu: Fisikoa, komunikatiboa, kognitiboa, digitala, soziala, ekonomikoa, geografikoa...
- Inklusio sozialaren ardatzak definitu: Adina, jatorria, hizkuntza, genero, maila sozioekonomikoa, desgaitasun mota desberdinak.
- Adierazle multzoa osatu: Sarbide erraztasuna, ulermen-maila, autonomia, laguntza eskuragarritasuna, denbora, gogobetetzea.
- Behaketa-tresnak prestatu: Check-listak, behaketa-fitxak, langileentzako jarraibideak.
- Herritarren iritzia jasotzeko tresnak: Inkesta laburrak, elkarrikereta-gida, talde fokal egitura.
- Aholkularitza teknikoaren ekarpena: Adierazleen baliozkotzea eta tresnen egokitzapena.
- Protokolo operatiboa idatzi: Diagnostikoaren fase praktikoa nola gauzatuko den

	zehaztuta. Behaketa, neurketa eta iritzien bilketa: — Zerbitzu errealeen behaketa: Langileek zerbitzuak nola gauzatzen diren behatu, adierazleak aplikatuz. — Langileen autoebaluazioa: Zerbitzu bakoitzaren irisgarritasunaren eta inklusioaren inguruko hausnarketa. — Herritarren iritzia jasotzea: Inkestak, elkarrizketak edo talde fokalak kolektibo desberdinekin. — Datuen bilketa sistematikoa: Fitxa eta tresna guztiak beteta, informazioa zentralizatuta. — Lehen ondorioak identifikatu: Zein zerbitzuek arazo nabarmenak dituzten, zein kolektibok zailtasun gehien. Aurreko lanen emaitza 2030-2033 laurtekoan gauzatzea aurreikusten da. Jarduketa zehatza aurrean horietan zehar definituko bada ere, IUPI honetan bertan honakoa iradoki da: — Herriko Zerbitzu eta Baliabideen Katalogoa berrikusi eta argitaratu, irisgarritasun- eta gizarteratze-irizpideak txertatuz, bai eskaintzaren diseinuan, bai sortutako dokumentazioan bertan.	
Kronograma	Jarduketa zehatzak	Kostua (€)
2026	— ---	---
2027	— Udal-sail bakoitzak eskaintzen dituen zerbitzu eta baliabideak identifikatu, sailkatu eta dokumentatu.	(4) 0
2028	— Diagnostikoa egiteko erabiliko diren adierazleak definitu eta behaketa-metodologia prestatu.	(4) 0
2029	— Zerbitzuen eta baliabideen erabilera erreala behatu, adierazleen arabera neurtu eta herritarren iritzia jaso.	(4) 0
2026-2029	— ---	---
2030-2033 (2)	— Herriko Zerbitzu eta Baliabideen Katalogoa berrikusi eta argitaratu.	12.000
Oharrak	— (4) Aurrekonturik gabeko jarduketa: Udalak bere baliabideekin egitea aurreikusten da. — (2) IUPIaren denbora-irismena 2026-2029 laurtekoari badagokio ere, 2030-2033 laurtekoa gehitu da jarduketa jasotzeko, epe ertaineko aurreikuspen gisa. Aurrekontua modu berezian jaso da IUPIaren aurrekontu orokorrean (ikus Jarduketa Planaren laburpena).	
Udaleko arduradunak	— “Udal Irisgarria” jarduketa-eremu nagusiko kudeatzailea edo kudeaketa-taldea. — Beste sail inplikatuak: — Herritarren aisialdirako, ongizaterako eta garapenerako zerbitzuak eta baliabideak diseinatzen edo eta eskaintzen dituzten sailtako arduradunak eta langileak.	
Beste eragileak	— Udal-zerbitzuak eta baliabideak herritarrengana iristea ahalbidetzen duten langileak, klubak, elkarteak, pertsonak... — Udal-zerbitzu eta baliabideen erabiltzaileak, bereziki desgaitasunaren inguruan beharrak/interesak/esperientzia/jakintza duten elkarte edo herritarrak.	

Esleipenak eta kanpo-baliabideak	— ---
Ebaluazio eta jarraipen adierazleak	— Identifikatutako zerbitzuak eta baliabideak: kopurua, Saila. — Diagnostikoa egiteko ezarritako adierazleak. — Behaketaren emaitza, ezarritako adierazleen arabera. — Erabiltzaileen parte-hartzea: saio kopurua, parte-hartzaileen kopurua eta profila.
Jarduketarako irizpideak	Udal-zerbitzuen diagnostikoa osatzeko prozesua modu eraginkor eta sistematiko batean gauzatzeko, beharrezkoa da Udalak dituen baliabideak ondo aprobetxatzea. Jarduketarako zenbait irizpide eta gomendio: — Erregistro bateratua sortzea: Udal-sail guztiek eskaintzen dituzten zerbitzu eta baliabideak modu bateratuan identifikatu, sailkatu eta dokumentatzea, formatu irisgarrietan eta eguneratuta. — Sailkapen eta deskribapen estandarrak: Zerbitzuak helburuaren, hartzaileen eta irisgarritasun-ezaugarrien arabera sailkatzeko irizpide komun eta argiak ezartzea. — Adierazle multzo integrala definitzea: Irisgarritasunaren dimentsio guztiak eta inklusio sozialaren ardatzak jasoko dituen adierazle multzo bateratua adostea, neurketa objektibo eta konparagarriak egiteko. — Behaketa-metodologia bateratua: Datu-bilketa eta behaketa egiteko tresna eta protokolo estandarizatuak erabiltzea, sail guztietan aplikagarriak eta herritarren parte-hartzea errazten dutenak. — Herritarren eta kolektibo zaurgarrien inplikazioa: Nahiz eta herritarren ekarpenak jasotzea denbora-kontsumitzailea izan, garrantzitsua da erabiltzaileen iritzia eta zailtasunak hobeto ezagutzea. Beraz, gomendatzen da diagnostikoaren fase guztietan herritarren iritzia jasotzeko mekanismo irisgarriak ezartzea, bereziki desgaitasunen inguruko pertsonen eta elkarten parte-hartzea bermatuz. — Datuen erabilera estrategikoa: Bildutako informazioa ez bakarrik diagnostikorako, baizik eta hobekuntza-planak diseinatzeko eta lehentasunak ezartzeko erabiltzea. — Koordinazio egonkorra: Sailen arteko koordinazioa bermatzea, prozesuaren jarraipena eta emaitzen homogeneotasuna ahalbidetzeko. Gomendioak. Zerbitzu eta baliabide publikoen eskaintzaren irisgarritasuna eta inklusibotasuna hobetzeko irizpide eta gomendio orokorrak: — Programazio anitza eta orekatua eskaintzea: Adin, genero eta interes desberdinetara egokitutako eskaintza diseinatzea beharko litzateke. — Espazio fisiko egokituak bermatzea: Mugikortasun mugatua duten pertsonentzat irisgarriak diren guneak aukeratzea gomendatzen da. — Komunikazio ulergarria zabaltzea eta formatu irisgarriak erabiltzea: Zeinu-hizkuntza, audiodeskribapena eta irakurketa erraza txertatzea komeni da, informazioa kolektibo guztientzat eskuragarri egiteko. — Baliabide tekniko osagarriak: beharko litzateke jarduera guztietan mugikortasun mugatuko eta entzumen zein ikusmen murriztuko pertsonen parte-hartzea kontuan izatea. — Prezio eta ordutegi malguak: proposatzen da sarrera sozialak eta deskontuak ezartzea, baita ordutegi malguagoak eskaintzea ere, kolektibo gehiagorengana iristeko. Gomendatzen da kolektibo zaurgarrientzako deskontu eta doako jarduera batzuk eskaintzea. — Eskaintzaren diseinua inklusio soziala sustatzera bideratzea: Aisialdiko programazioak bazterkeria soziala murriztea sustatuko du, kohesio soziala eta ongizate komunitarioa hobetuz. Horretara bideratutako jarduerak sortu beharko lirateke. — Kolektibo baztertuekin lankidetzat egitea: Programazioaren diseinuan jatorri anitzeko eta gizarte-bazterkeria jasaten duten kolektiboen iritzia jasotzea komeni da.

- Gizarte-loturak: auzoko elkarteekin elkarlanean aisialdi inklusibo eta anitzak diseinatzea proposatzen da.
- Langileen sentsibilizazioa eta prestakuntza: Langileek aniztasun funtzionalari eta bazterkeria sozialari buruzko formakuntza espezifikoak jaso beharko lukete. Formakuntza horretan, komunikazio inklusiboaren teknikak eta egoera ezberdinetan nola jokatu landu beharko lirateke, herritar guztiek arreta egokia jaso dezaten.
- Parte-hartze datuak neurtzea: Kolektibo desberdinen parte-hartze maila eta esperientzia ebaluatzea gomendatzen da.

Gomendatutako dokumentazioa

Fitxa honek hartzen duen esparrua oso zabala da, eta amaigabeak handik atera daitezkeen hariak. Adibide gisa, haur eta nerabeen aisialdiaren eta kirolaren irisgarritasunean sakontzeko baliabide batzu proposatu dira.

- Dokumentu horiek jaso izanaren asmoa ez da irizpide- edo gomendio-korpus bat osatzea, baizik eta adieraztea esparru horretan (beste edozeinetan bezala) irisgarritasuna diagnostikatzeko eta hobetzeko heldulekuak asko eta anitzak izan daitezkeela.
- Eskola-adineko kirol inklusiboaren gidaren bitartez esperientzia hurbil eta zehatz bat deskribatzen da, inklusioari heltzeko eredu eta irizpide desberdinak integratzen dituen.
- Aisialdian desgaitasunen bat duten nerabe eta gazteen tratu onaren gidak begirada jartzen du zerbitzu publikoen azken mailan dauden pertsonen (begiraleak edo eta entrenatzaileak, kasu honetan) formakuntzaren garrantzian.
- Hurrengo dokumentuek erakusten dute zerbitzu baten diseinuan enfokeak zeinen desberdinak izan daitezkeen: haur edo nerabearen autonomiaren garrantzia, zerbitzu baten diseinuan familien beharrak ere txertatzea, edo eta pobrezia desberdinak (ekonomikoa, denborazkoa...) kontuan izatea.

Gomendatutako dokumentazioa



Eskola adineko kirol inklusiborako gida 2022.

Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioa (2022).
https://www.gkef-fgda.org/wp-content/uploads/2022/11/Kirol_inklusiboa-2022-baja.pdf



Guía de buen trato a jóvenes con discapacidad en el ocio y tiempo libre.

Instituto Aragonés de la Juventud, Cerme Aragon (2025).
<https://www.aragonhoy.es/uploads/files/2025/07/01/IAJ%20CERMI%20Guia%20ocio%20y%20tiempo%20libre.pdf>



Elijo mi ocio.

Plena inclusión (2017).

<https://www.plenainclusion.org/sites/default/files/guiaelijomiocio.pdf>



Las familias de personas con problemas de salud mental en la CAE = Buru osasuneko arazoak dituzten pertsonen familiak EAEn.

FEDEAFES et al. (2023).

<https://www.sjis.net/documentos/ficha/589231.pdf>



Los derechos de la infancia no se van de vacaciones. Infancia en riesgo y alimentación saludable en verano.

C. Giamello et al. (2024).

https://educowebmedia.blob.core.windows.net/educowebmedia/educospain/media/docs/publicaciones/2024/informe-verano-educo-2024_.pdf



Pobreza y usos del tiempo de la ciudadanía guipuzcoana.

R. Sanz et al. (2015).

https://www.zerbitzuan.net/documentos/zerbitzuan/Pobreza_usos_tiempo_ciudadania.pdf

Eskola-kirol inklusiboa Gipuzkoan, zerbitzu inklusiboen eredu bat

Adibide hau ekarri da IUPI honetra, irisgarritasun unibertsala eta inklusioa uztartzen dituen eredu sendoa delako: duen eskalagatik eta jorratzen duen jardueraren berezitasunengatik udalerrriaren eta Udalaren zerbitzu zein baliabide guztietara zuzenean egokitzen ez bada ere, irakasgai ugari eskaintzen ditu, fitxan jaso den jarduketan aplikatzeko modukoak.

Eskola-kirol egokitu inklusiboaren dekalogoia Gipuzkoan

1. **Kirol jarduerarako sarbide unibertsala.** Eskola adinean dauden haur eta gazte guztiek izango dute

kirola egiteko aukera.

2. **Kirolean laguntzeko sarea sortzea, beharrezkoa denean.** Eskola adinean dauden haur eta gazte guztiek kirola egiteko beharrezkoak diren apoioak eta laguntza teknikoak izan beharko dituzte.
3. **Kirola balio positiboan transmisore gisa.** Komunitate osoak (instituzionalak, sozialak, familiakoak eta kirolekoak) zainduko du eskola-kirola hezitzailea izatea, balioak transmititzeko bide bat izatea, eta pertsonaren premietara eta motibazioetara egokituta egotea, modu egokitu edo inklusiboan. Ahal den guztietan behintzat, eta kalitate parametroak betetzen baldin baditu eta behar diren euskarriak baldin baditu.
4. **Irisgarritasun unibertsala eta pertsona guztientzako diseinua, gizarte osoaren erantzukizuna.** Irisgarritasun unibertsalaren eta pertsona guztientzako diseinuaren printzipioak beteko dira.
5. **Jakintza arlo horri buruzko prestakuntza arautua zein etengabea bermatzea.** Kirol eremurako laguntza eta prestakuntza egokia emango dira, aniztasunari arreta ematera begira.
6. **Aniztasun orekiko, hots, aniztasun kultural, funtzional, erlijioso, ideologiko eta abarrekiko errespetua.** Inguruneak ikasle guztiekiko errespetua erakutsiko du, kirol esparru berdinzaleagoa, seguruagoa eta bidezkoagoa sustatuz eta herritar zaurgarrien artean aukera-berdintasuna lortzeko lan eginez.
7. **Eskola adineko kirolaren balioak behar bezala transmititzeko konpromisoa.** Gizarte osoari jakinaraziko zaio eskola adineko kirolaren balio positiboek duten garrantzia, modu kontzienteagoan eta pertsona guztientzat ulargarria izango den mezua argi batez, hain zuzen mezua hori ikastetxeetan, kirol klubetan eta abarretan betearaztearen.
8. **Sentsibilizazioa eta hezkuntza-materialak.** Erakundeek gizartea sentsibilizatzeko eta hezkuntza-materialak sortzeko apustua egin behar dute, aniztasun kulturalaren, ideologikoaren, erlijiosoaren, generokoaren, funtzionalaren eta abarren balio positiboak bultzatzeko.
9. **Laguntza komunitarioa eta inplikazio soziala eskola adineko kirolean.** Garrantzitsua da aniztasunarekiko errespetuaren balioa lantzea, aukera bikaina baita komunitate atseginagoak, konprometituagoak eta solidarioagoak sortzeko.
10. **Komunikabideen hezkuntza-konpromisoa.** Eskatu beharko litzateke komunikabideek ardura eta konpromisoa hartzea, oro har kirolaren eta, bereziki, eskola adineko kirolaren balioak modu arduratsuan transmititzeko.

Ikus daitekeen bezala, dekalogaren lehen puntuak “unibertsaltasuna” hitza darama izenburuan, laugarrenean espezifikoki “irisgarritasun unibertsala eta pertsona guztientzako diseinua” jorratzen ditu, eta seigarrenak intersektionalitatean sakontzen du, aniztasun funtzionalaz gain beste hainbat ardatz kontuan hartzen dituelarik

Eredua ekitatean oinarritzen da, eta inklusioa amaierarik gabeko prozesu gisa hartzen du. Egin behar den lehen ariketa hau da: pentsatu guztia (ber)asmatzeko eta (ber)eraikitzeko dagoela, aurrera egin den guztia eta egindako bide guztia ere kontuan hartuta. Eskualde eta udalerrri bakoitzeko eskola adineko kirola hezitzaileagoa eta inklusiboagoa izatea ahalbidetuko duten estrategiak bultzatu beharko lirateke. Baina, lehenik eta behin, haur eta gazte guztiei bermatu beharko litzaieke edozein egoeratan —kasu honetan— kirola egiteko aukera.

PARTE-HARTZE EREDUAK



Kirol inklusiboago baten aldeko parte-hartze ereduak, Black eta Stevensonek 2011an diseinatutako tresna egokituz gauzatua eta **inklusioa espektro gisa** hartzen duena. Informazio gehiago: https://www.gkef-fqda.org/wp-content/uploads/2022/11/6.Inklusioa_prozesu_gisa_54-59.pdf

Kirol egokitua Gipuzkoako haur eta gazteentzat: EKI estrategia eta EKE programa.

Azken urteotan, Gipuzkoako Foru Aldundiak hainbat dirulaguntza-lerro garatu ditu, eta, praktikan, baliagarriak izan dira dibertsitate funtzionala duten eskola-umeen behar espezifikoak erantzuteko sare bat finkatzeko, bai ikastetxeko erreferentziatzako taldeetan (Eskola Kirol Inklusiboa — EKI), bai dibertsitate funtzionala duten pertsonentzako talde espezifikoetan (Eskola Kirol Egokitua — EKE); azken hori praktika inklusibo bat eskaintzea ezinezkoa den kasuetan soilik.

ESKOLA **KIROL**
Egokitua

DESGAITASUN EGOERAN DAUDEN HAUR ETA GAZTEEN BEHARRETAN
OINARRITUTAKO ESKOLA ADINEKO KIROL - PROGRAMA



Eskola Kirol Egokituko Programa (EKE) desgaitasuna duten eskola- umeei zuzenduriko programa bat da (6–20 urte), kirol praktikarako aukera bermatu nahi diena. Eskola-ume hauek, beraien ezaugarriak direla medio, eskubidez praktikatzea dagokien eskola kiroleko programatik kanpo gelditzen dira maiz, beraien ikastetxe edota beraien bizilekutik gertuen dituzten kirol elkarte nahiz kirol zerbitzuek dibertsitate funtzionalari arreta emateko garaian dituzten gabeziak direla eta. Informazio gehiago:

<https://www.gkef-fgda.org/wp-content/uploads/2024/06/EKE-Aurkezpena.pdf>

Gipuzkoako Kirol Egokituen Federazioak, indarrean dagoen araudiaren arabera, desgaitasuna duten herritarrei zuzendutako Eskola kirol egokituaren programa antolatzen du (Gipuzkoako Foru Aldundiko Kirol Zerbitzuak federazioaren esku uzten baitu esparru hau garatzeko funtzioa) , azken helburua, desgaitasuna duen pertsona orok kirol praktika bere ingurune naturalean egin ahal izatea delarik. Pixkanaka, Gipuzkoako eskualde guztietan eskola kirol egokituaren sarea zabaltzen eta aurrera egiten ari da Gipuzkoako Foru Aldundiaren gidaritza eta udaletxe ezberdinekin hitzarmenak adostearekin, programak 17 urte daramatzalarik martxan.



Hainbat udalerri sartu
dute Eskola Kirol
Egokituaren (EKE)
eskaintza ohiko
eskola-adineko
jarduera fisiko- eta
kirol-jardueren
programaren barruan,
eta, horrela, programa
hori normalizatzea eta
hezkuntza-eragileen
arteazabaltzea
erraztu da. Informazio
gehiago:

<https://www.gkef-fgda.org/wp-content/uploads/2024/06/EKE-Aurkezpena.pdf>

Bestalde, Gipuzkoako Kirol Egokituaren Federazioaren eta Gipuzkoako Foru Aldundiaren arteko lankidetzari esker, EKI gida gauzatu da. Gidak tresna erabilgarria izan nahi du kontzientzia hartzeko eta inklusiorako bidean lagunduko diguten ezagutza jakin batzuk eskuratzeko. Hala, helburua da tresna egokia izatea kirola inklusiboagoa, hezitzaileagoa eta kolaboratiboagoa izan dadin eskola-adinean eremu bakoitzaren barruan, eta bizikidetzak hobetzen lagunduko duten balioak transmititu ahal izan ditzan.



Inklusiotik bizikidetzak positibora

Gida honek, inklusioaren bidean kontzientzia hartu eta aurrera egin ahal izateko zenbait ezagutza eskuratzeko tresna bat izan nahi du, kontuan hartuta eskubide bat ez ezik, bizimodu bat ere badela.


Gauzatzen ari diren estrategiak ezagutarazi nahi ditugu, zonalde bakoitzeko eskola-adinean gauzatzen den kirola inklusiboagoa, hezigarriagoa eta lankidetzakoa izan dadin eta bizikidetzak hobetzen lagunduko duten balioak transmititzeko tresna egokia izan dadin.

Informazio gehiago:

<https://www.gkef-fgda.org/wp-content/uploads/2024/06/EKE-Aurkezpena.pdf>

Emaitzak. 2024-2025 ikasturteko partaidetza-datuak:

- **Eskola Kirol Egokitua — EKE Programa:** 6 eta 21 urte bitarteko dibertsitate funtzionala duten 282 eskola-umek parte hartu dutela 40 taldetan, modu egokitan.
- **Eskola Kirol Inklusiboa — EKI Estrategia:** 175 EKI taldek parte hartu dute, gutxienez, dibertsitate funtzionala duen eskola-ume batekin, bere kideekin batera, modu inklusiboan, eta horietatik 113 taldek begirale laguntzaile batekin egin dute.
- **Laburbilduz:** 6-21 urteko gipuzkoar guztien %2k desgaitasun aitortu bat du. Kolektibo horren heren batek baino gehiagok, %37 inguruk, beren beharretara egokitutako programa aktibo eta erregularretan parte hartu du, eskola-kirolaren esparruko jarduera-politika horiei esker.

8.2.a.	Herriko festak irugarriagoak eta inklusiboagoak egin.
Ardatza	8. Aisialdia, ongizatea eta garapena.
Helburua	8.2. Festak eta ekitaldiak irugarriagoak eta inklusiboagoak egitea.
Lehenetsuna	— Altua.
Irismena / Hartzaileak	— Irismena: udalerrian egiten diren festak. — Hartzaileak, Udaleko arduradun eta langileen artean: — Antolaketaz arduratzen direnak (jaiak, kultura...). — Muntaketaz arduratzen direnak (brigada...). — Segurtasunaz arduratzen direnak (Udaltzaingoa). 
Egungo egoera	— Irugarritasun unibertsalaren gabezia: Herriko bizitzaren ardatz sozial eta kultural garrantzitsua dira, baina antolaketan ez da sistematikoki aplikatzen irugarritasun unibertsalaren ikuspegia, eta horrek kolektibo askoren parte-hartzea mugatzen du. — Parte-hartze desorekak: Ikus daiteke desgaitasuna, adina, jatorria edo egoera sozioekonomikoagatik bazterturik geratzen den jendea. — Gaisotasun mentalak dituzten pertsonen egoera: Osasun mentaleko zailtasunak

dituzten herritarrek ez dute beti behar bezalako laguntza edo egokitzapen psikologikorik jasotzen, eta horrek oztokatzen du beren parte-hartzea eta segurtasuna.

- Zaintzaileen beharrianak kontuan hartu gabe: Familia edo laguntza-zaintzaileek ez dute beti jasotzen behar duten informazioa edo laguntza, eta horrek mugatzen du zaindutako pertsonen parte-hartzea ekitaldietan.
- Segurtasun-neurriak: Ez daude protokolo argiak larrialdi-egoeretarako pertsona desgaitasuna dutenentzat.
- Gizarte-inklusioa: Jaiak aukera ezin hobeia izan arren, diskriminazio eta bazterkeria arriskuak agertzen dira.
- Komunikazio kanal eta formatu mugatuak: Festen inguruko informazioa ez da beti hizkuntza sinplifikatuan, irakurketa errazean edo euskarri bisualetan eskaintzen, eta horrek ulermen-arazoak dituzten pertsonak baztertzen ditu.
- Langileen prestakuntza ez nahikoa: Festak antolatzen dituzten profesionalak ez dute beti prestakuntza egokia desgaitasunak dituzten pertsonen beharriaz modu inklusiboan erantzuteko.
- Eskaintza ez inklusiboa (inklusio soziala): Jardueren programazioa ez da beti egokitzen herritarren aniztasun sozialari (adina, sexua/generoa, maila ekonomikoa, jatorria, kultura), eta horrek parte-hartze zabala mugatzen du.
- Parte-hartze aukerak eta programen diseinua: Ekitaldien egutegi, eduki eta jarduketa-metodologiak ez dira beti malguak edo egokituak herritarren profil sozial desberdinei erantzuteko.



2025eko Andramaixek jarduketa honen adibide garbia ekarri dute, txupinazoa DebaTea elkarteko kideen eskutik egin baita: jai inklusiboagoak aldarrikatu dituzte, eta horregatik, txupinazo klasikoaren ordez konfeti eta puxikak bota dituzte udaletxeko balkoitik. Informazio gehiago eta hitzaldia:

<https://goiena.eus/aretxabaleta/1755198034785-debatea-elkarteak-bota-ditu-progoi-et-a-txupinazo-propioa>



Herritarrek ere inklusioari egiten diote lekua jaietan: 2025eko irailean, GSR Adinekoen Egoitzan eman zaie hasiera Txarapeako jaiak.

Azalpena	— Jarduketa ez da zehatza: IUPIan Udalaren konpromisoa jaso da, festen programazioan eta antolaketan irisgarritasun- eta inklusio-irizpideak txertatzeko. — Esku-hartzeak pixkanaka egitea da asmoa, urtero ebaluatuz eta ondorioen arabera doikuntzak eginez. — Aurrekontu bat erantsi zaio jarduketa bakoitzari, esku-hartzeen eraginkortasuna sustatze aldera. Festak irisgarriagoak eta inklusiboagoak egiteko jorratu daitezkeen lan-ildoak: — Gune irisgarriak sortzea: Festetako ekitaldi-guneak irisgarriagoak izatea da asmoa. Horren bidez, lortu nahi da oztopo fisikoak ezabatzea, eta mugikortasun murriztua duten pertsonentzat arrapalak eta sarbide zabalak jartzea. — Programazio anitza diseinatzea: Adin, genero, jatorri eta gaitasun desberdinetara egokitutako jarduerak eskaintzea da asmoa. — Zarataren kudeaketa: Zarataren kudeaketa egokia egitea proposatzen da. Horren bidez, lortu nahi da musika eta soinu-bolumen altua kontrolatzea, eta gune lasaiak sortzea. Horrek zailtasun kognitiboak edo gaisotasun mentalen bat duten pertsonen lasai egon ahal izatea ahalbidetuko du. — Komunikazio irisgarria: Festen programazioa eta informazioa formatu irisgarrietan eskaintzea proposatzen da. Helburua da informazioa errazago ulertzea ahalbidetzea, Braille-n, letra handiz edo audio-formatuan. — Programazio inklusiboa: Programazioa dibertsifikatzea da asmoa, adin, jatorri eta kultura desberdinetako pertsonen beharrak kontuan hartuz. Horren bidez, lortu nahi da bazterkeria soziala gutxitzea, eta herritar guztiak festetan parte hartzera bultzatzea. — Bazterkeria sozialari heltzea: Lortu nahi da kolektibo ahulenei eta aniztasun sozial nahiz kulturala dutenek parte-hartze zuzena izatea. — Kolektiboekin lankidetzat sustatzea: Elkarrekin eta komunitateekin festen diseinua partekatzea proposatzen da, haien ikuspegia integratuz. — Prezio eskuragarriak: Sarreren prezioak jaitea edo diru-laguntzak ematea proposatzen da, adibidez, maila sozioekonomiko baxua duten pertsonen, festetara sartzeko aukera errazteko. Gainera, hainbat ekitaldi doan eskaintzea pentsatu beharko litzateke.	
Kronograma	Jarduketa zehatzak	Kostua (€)
2026	— Herriko festen irisgarritasun- eta inklusio-maila progresiboki hobetu, ikusgaitasuna emango duten ekintza espezifikoak txertatuz.	1.000
2027	— Herriko festen irisgarritasun- eta inklusio-maila progresiboki hobetu, ikusgaitasuna emango duten ekintza espezifikoak txertatuz.	1.500
2028	— Herriko festen irisgarritasun- eta inklusio-maila progresiboki hobetu, ikusgaitasuna emango duten ekintza espezifikoak txertatuz.	2.000
2029	— Herriko festen irisgarritasun- eta inklusio-maila progresiboki hobetu, ikusgaitasuna emango duten ekintza espezifikoak txertatuz.	2.000
2026-2029	— ---	---
2030-2033	— Herriko festen irisgarritasun- eta inklusio-maila progresiboki hobetu, ikusgaitasuna emango duten ekintza espezifikoak txertatuz.	Jarraia
Oharrak	— Aurrekontuek hobekuntza progresiboaren asmoa islatzen dute. Jarduketaren jarraipenaren eta ebaluaketaren arabera doituko da.	

Udaleko arduradunak	— Festak, edo alor horretan ardurak dituzten pertsonak. — Beste sail/pertsona inplikatuak: — Komunikazioa eta Kultura, edo alor horietan ardurak dituzten pertsonak. — Hirigintza, Obrak.
Beste eragileak	— ---
Esleipenak eta kanpo-baliabideak	— Ezarriko diren esku-hartzeen arabera.
Ebaluazio eta jarraipen adierazleak	— Irugarritasun- eta inklusio-maila hobetzeko neurriak ezarri izana, eta egin bada: — Ezarritako hobekuntza-neurrien kopurua, eta bere kostua.

Jarduketarako irizpideak

- Irugarritasun fisikoak: Festetako guneak eta ibilbideak mugikortasun murriztua duten pertsonentzat irugarri izatea gomendatzen da. Horren bidez, oztopo fisikoak ezabatzea lortu beharko litzateke, arrapalak eta sarbide zabalak jarritz.
- Zarataren kudeaketa: Festetan musika eta soinu-bolumena kontrolatzea komeni da. Horren bidez, gune eta une lasaiak sortu beharko lirateke.
- Informazio-formatuak: Festetako informazioa hainbat formatutan eskaintzea gomendatzen da: hizkuntza sinplifikatua, euskarri bisualetan, eta abar.
- Programazio anitza: Festen programazioa dibertsifikatzea komeni da. Horren bidez, hainbat jarduera berri sortu beharko lirateke, adin, jatorri eta egoera sozioekonomiko desberdinetako pertsonak parte hartzera animatu daitezten.
- Segurtasuna bermatzea: Larrialdi eta ebakuazio-protokoloak berrikusi beharko lirateke. Horrela, lortu nahi da pertsona guztien segurtasuna bermatzea.
- Kolektibo baztertuekin elkarlana egitea: Festen diseinuan haien iritzia jasotzea gomendatzen da, inklusio errealerako bidea zabaltzeko.
- Ebaluazio sistematikoa ezartzea: Parte-hartze datuak eta kolektiboen gogobetetzea neurtu beharko litzateke, hurrengo edizioak hobetzeko.

Eskuorria

Azken urteotan gero eta ohikoagoa da festen programazioko eskuorrian irugarritasunari lotutako informazioa txertatzea.



ABUZTUAK 18, ASTELEHENA

	10:00	Txistularien diana eta txupina.	
	10:30	Areatza.	Sukaldaritza-lehiaketa. Izen ematea: pistoa.
	11:00	Pasio-irudien Museoa.	Erraldien eta buruhandien kalejira txistulariekin eta gaitariekin.
	11:00	Zazpi Kaleak.	Bilboko Udal Txistu Bandaren kalejira.
	11:00-16:30	Casilda Iturrizar parkea.	TXIKIGUNE. (29. orrialdean)
	11:00-14:00	Areatza.	Gastrotxiki. Umeentzako tailerrak.
	12:00	Pergola.	Bilbainadak. BILBAO MAPA MUNDI.
	12:00	Areatzako kioskoa.	Bilboko Udal Musika Bandaren kontzertua.
	12:30	Bizikidetasun plaza.	Kaleko antzerkia. (30. orrialdean)


BILBOKO KONPARTSAK
bulegoa@bilbokokonpartsak.eus


BIZKAIKO DANTZARIEN BILTZARRA


AULKIAK


EGOKITUTAKO LEKUAK


ZEINU BIDEZKO HIZKERAREN INTERPRETEA


TESTU GUTXIKOA


MARIJAIA

2025eko Bilboko Aste Nagusiko eskuorriaren irudi bat:

<https://www.bilbao.eus/astenagusia2025/astenagusiabilbao2025.pdf>

Zarata

Festekin batera doa zarata, eta hori arazo bat da hainbat pertsonentzat (bai eta animalientzat ere). Horren aurrean, Udal askok hainbat neurri txertatu dituzte jaien programazioan (gune eta une lasaiak sartuz programazioan) eta informazioan (zarata askoko/gutxiko guneak zein uneak non eta noiz izango diren...). Udal batzutan bestelako neurriak ere probatu dira: esaterako, 2025eko Karmengo jaierarako Zornotzako Udalak zarata-maila 27 dB-tan murrizten duten 100 kasko berrerabilgarri erosi zituen, bi neurritan, zarata jasan ezin duten herritarren esku jarritz (autismoaren espektroko nahasmendua dutelako, entzumen-sentikortasun altua dutelako...).

**Ekitaldi eta ikuskizun jendetsu irisgarriagoak**

Ikus jarraian “8.2.b. Ekitaldi eta ikuskizun jendetsuak irisgarriagoak egin” fitxa.

Ebakuazio-protokoloak

Ikus beheago “8.2.c. Larrialdi-planak eta ebakuaziorako protokoloak berrikusi, irisgarritasun irizpideak txertatuz” fitxa.

Gomendatutako dokumentazioa**Sanfermines accesibles 2025.**

CERMIN-CERMI Nafarroa (2025).

Ezarritako neurrien txostena:

https://sanferminespamplona.es/wp-content/uploads/MEDIDAS-DE-ACCESIBILIDAD-SANFERMINES_CERMIN-002.pdf

Txosten digitala, gaztelaraz:

<https://cermin.org/una-fiesta-para-todas-las-personas-sanfermines-accesibles/>

Webgunea, euskaraz:

<https://sanferminespamplona.es/eu/sanferminak-irisgarriak/>

8.2.b.	Ekitaldi eta ikuskizun jendetsuak irugarriagoak egin.
Ardatza	8. Aisialdia, ongizatea eta garapena.
Helburua	8.2. Festak eta ekitaldiak irugarriagoak eta inklusiboagoak egitea.
Lehentasuna	— Altua.
Irismena / Hartzaileak	— Irismena: udalerrian egiten diren ekitaldi edo ikuskizun jendetsuak. — Hartzaileak, Udaleko arduradun eta langileen artean: — Antolaketaz arduratzen direnak (kirola, kultura...). — Muntaketaz arduratzen direnak (brigada...). 
Egungo egoera	— Irugarritasun irizpideen ezarpen irregularra: Kultur eta kirol ekitaldi zein ikuskizunetan ez da sistematikoki aplikatzen irugarritasun unibertsalaren ikuspegia, eta horrek parte-hartze desberdintasuna eragiten du. — Inklusio irizpideen aplikazio desorekatua: Kultur eta kirol jardueren programazioa ez da beti egokitzen herritarren aniztasun sozialari (adina, genero-identitatea, maila ekonomikoa, jatorria, kultura), eta horrek mugatzen du parte-hartze zabala. — Programen malgutasun eza: Jardueren ordutegiak, edukiak eta metodologia ez dira beti malguak edo egokituak, eta horrek eragin dezake herritar batzuk kanpoan geratzea. — Publikoaren parte-hartze desberdina: Profil jakin batzuk nagusitzen dira, eta beste batzuk bazterrean gelditzen dira. — Komunikazio baliabide mugatuak: Ekitaldien informazioa ez da beti hizkuntza sinplifikatua, irakurketa errazean edo euskarri bisualetan eskaintzen, eta horrek ulermen-arazoak dituzten pertsonak baztertzen ditu. — Zentzumen eta kognizio premien kontuan hartze eskasa: Ez da eskaintzen zeinu-hizkuntza, audiodeskribapena edo laguntza kognitiboa, eta horrek entzumen murriztua edo gaitasun kognitibo mugatua duten pertsonen parte-hartzea mugatzen du.

	— Osasun mentala: Gaiotasun mentalak dituzten pertsonentzat ez da beti bermatzen beharrezko laguntza edo egokitapenak, eta horrek parte-hartzea mugatzen du ekitaldi guztietan. — Informazioaren irisgarritasun falta: Ekitaldiei buruzko informazioa ez da beti formatu ulergarrietan eskaintzen, eta horrek zaildu egiten du informazioa eskuratzea eta ulertzea. Adibidez, ikusmen-urritasuna edo zailtasun kognitiboak dituzten pertsonak ezin dute informazioa erraz eskuratu, eta horrek oztopoak sortzen ditu ekitaldietan parte hartzeko orduan. — Laguntza-sistemen gabezia: Ekitaldietan ez dago entzumen- eta ikusmen-laguntza sistematik. Adibidez, audio-deskribapenaren edo zeinu hizkuntzako interpreteen falta nabaria da. Horrek zaildu egiten du entzumen- eta ikusmen-urritasuna duten pertsonak ekitaldietan parte hartzea, eta horrek beren eskubideak urratzen ditu. — Zaintzaileen beharrak kontuan hartu gabe: Familia edo zaintza-rolak dituzten pertsonentzat ez dira beti eskuragarri behar dituzten baliabideak, eta horrek eragiten du zaindutakoen parte-hartzea mugatua izatea. — Langileen prestakuntza falta: Ekitaldietan lan egiten duten pertsonak ez dute nahikoa prestakuntzarik pertsona guztien beharrianak ulertzeko. Horrek zaildu egiten du pertsona horiek aniztasun funtzionala duten pertsonen arreta pertsonalizatua eskaintzea, eta horrek herritarren artean frustrazioa sor dezake. — Prezio altuak eta eskaintza murriztua: Kultur eta kirol ekitaldietarako sarrerren prezioak oztopo bat izan daitezke maila sozioekonomiko baxua duten pertsonentzat. Horrez gain, eskaintza murriztua dago, eta ez da kontuan hartzen adin, jatorri eta kultura desberdinetako pertsonen beharrak.
Azalpena	— Jarduketa ez da zehatza: IUPIan Udalaren konpromisoa jaso da, ekitaldien eta ikuskizunen programazioan zein antolaketan irisgarritasun- eta inklusio-irizpideak txertatzeko. — Esku-hartzeak pixkanaka egitea da asmoa, urtero ebaluatuz eta ondorioen arabera doikuntzak eginez. — Aurrekontu bat erantsi zaio jarduketa bakoitzari, esku-hartzeen eraginkortasuna sustatze aldera. Ekitaldiak eta ikuskizunak irisgarriagoak eta inklusiboagoak egiteko jorratu daitezkeen lan-ildoak: — Irisgarritasun irizpideak txertatzea: Kultur eta kirol ekitaldi zein ikuskizunetan irisgarritasun irizpideak txertatzea, parte-hartze inklusiboa bermatzeko. Adibidez, ekitaldi eta ikuskizunetan espazio egokituak bermatuz. — Komunikazio irisgarria zabaltzea: Ekitaldien informazioa hizkuntza sinplifikatuan, irakurketa errazean eta formatu bisualetan eskaintzea egitea. — Zentzumen eta kognizio baliabideak eskaintzea: Zeinu-hizkuntza, audiodeskribapena eta laguntza kognitiboa txertatzea, premia funtzional desberdinak kontuan hartuta. — Langileen prestakuntza: Langileak sentsibilizatzea eta formatzea, aniztasun funtzionala duten pertsonen arreta pertsonalizatua emateko. — Prezio eskuragarriak: Sarrerren prezioak jaitea edo diru-laguntzak ematea, adibidez, maila sozioekonomiko baxua duten pertsonen ekitaldietara sartzeko aukera errazteko. Gainera, hainbat ekitaldi doan eskaintzea pentsatu beharko litzateke. — Bazterkeria soziala murriztea: Kultur eta kirol ekitaldietako programazioa dibertsifikatzea, adin, jatorri eta kultura desberdinetako pertsonen beharrak kontuan hartuz. Horren bidez, bazterkeria sozialaren arriskua murriztu nahi da, eta herritar guztiak ekitaldietan parte hartzera bultzatzea.

Kronograma	Jarduketa zehatzak	Kostua (€)
2026	— Ekitaldi eta ikuskizun jendetsuetako irugarritasun- eta inklusio-maila progresiboki hobetu.	1.000
2027	— Ekitaldi eta ikuskizun jendetsuetako irugarritasun- eta inklusio-maila progresiboki hobetu.	1.500
2028	— Ekitaldi eta ikuskizun jendetsuetako irugarritasun- eta inklusio-maila progresiboki hobetu.	2.000
2029	— Ekitaldi eta ikuskizun jendetsuetako irugarritasun- eta inklusio-maila progresiboki hobetu.	2.000
2026-2029	— ---	---
2030-2033	— Ekitaldi eta ikuskizun jendetsuetako irugarritasun- eta inklusio-maila progresiboki hobetu.	Jarraia
Oharrak	— Aurrekontuek hobekuntza progresiboaren asmoa islatzen dute: jarduketaren jarraipenaren eta ebaluaketaren arabera urtetik urtera doitzea aurreikusten da.	
Udaleko arduradunak	— Udaleko arduradun eta langileen artean: — Ekitaldien edo ikuskizunen antolaketaz arduratzen direnak (Kirola, Kultura...). — Azpiegiturataz eta muntaketaz arduratzen direnak (Bulego Teknikoa, Brigada...). — Segurtasunaz arduratzen direnak (Udaltzaingoa).	
Beste eragileak	— ---	
Esleipenak eta kanpo-baliabideak	— Ezarriko diren esku-hartzeen arabera.	
Ebaluazio eta jarraipen adierazleak	— Irugarritasun- eta inklusio-maila hobetzeko neurriak ezarri izana, eta egin bada: — Eragindako ekitaldi edo eta ikuskizunen kopurua. — Ezarritako hobekuntza-neurrien kopurua. — Kostua.	
Jarduketarako irizpideak	— Irugarritasun unibertsala aplikatzea: Ekitaldien diseinuan irugarritasun fisikoa, komunikatiboa eta kognitiboa kontuan hartzea gomendatzen da. — Irugarritasun fisikoa: Ekitaldiak egiten diren guneak eta ibilbideak mugikortasun murriztua duten pertsonentzat irugarri izatea gomendatzen da, bai eta eserleku egokituak bermatzea ere. — Informazio-formatuak: Ekitaldien informazioa hainbat formatutan eskaintzea gomendatzen da. — Laguntza-sistemak: Ekitaldietan entzumen- eta ikusmen-laguntza sistemak ezartzea komeni da. — Langileen prestakuntza: Langileek aniztasun funtzionalari eta bazterkeria sozialari buruzko formakuntza espezifikoa jaso beharko lukete. — Kolektibo zaurgarriekin elkarlana egitea: Ekitaldien diseinuan haien iritzia jasotzea gomendatzen da, inklusio errealerako bidea zabaltzeko. — Prezio politikak: Ekitaldietarako prezio murriztuak ezartzea komeni da. Horren bidez, lortu nahi da maila sozioekonomiko baxua duten pertsonen ekitaldietan parte hartzera animatzea, eta baita beste talde batzuk ere. — Ebaluazio sistematikoa ezartzea: Parte-hartze datuak eta kolektiboen gogobetetzea neurtzea beharko litzateke, hurrengo ekitaldiak hobetzeko.	

Festa irisgarriago eta inklusiboagoak

Ikus gorago “8.2.a. Herriko festak irisgarriagoak eta inklusiboagoak egin” fitxa.

Ebakuazio-protokoloak

Ikus jarraian “8.2.c. Larrialdi-planak eta ebakuaziorako protokoloak berrikusi, irisgarritasun irizpideak txertatuz” fitxa.


Gune erreserbatuak aire libreko ikuskizunetan

Musika-jaialdi erraldoietan hasi zena, gure herrietara ere hasi da zabaltzen: gero eta gehiago dira ikuskizun jendetsuetan mugikortasun mugatuko pertsonentzako guneak prestatzen dituzten Udalak. Gure inguruan, Andoaingoan izan daiteke adibide horietako bat. Ackzesible herriko elkartearekin batera, festa eta ikuskizun nagusietan guneak aurreikusten dituzte, ez soilik mugikortasun mugatuko pertsonentzako, baita ere haien zaintzaileentzako eta 80 urtetik gorako pertsonentzat ere. Protokoloa egonkortu dute: batzutan nahikoa izaten da hesien bitartez espazio bat hartzea, beste batzutan egitura espezifiko bat muntatzen dute.





Hesiak, zintak, aulkiak eta seinaleak erabiliz, Frantziako Tourra, inauteriak edo Olentzero pasatzen ikusteko gune erreserbatuen irudiak ikus daitezke goiko lau irudietan.



San Juanetan egitura goratu bat muntatzen dute soinu-tenikarien ondoan.

Gomendatutako dokumentazioa



Kultur ekimen irisgarri eta inklusiboak diseinatzeko eta antolatzeko gidaliburua. Guía para diseñar y organizar eventos culturales accesibles e inclusivos.

Elkartu - Gipuzkoako Gutxitasun Fisikoa duten Pertsonen Federazio Koordinatzailea (2016).

https://elkartu.org/pdf/guia_eventos_accesibles_inclusivos_online_16-12-2016.pdf



Guía de comunicación y eventos inclusivos y accesibles.

Fundación Ideas (2022).

https://gobiernoabierto.navarra.es/sites/default/files/guia_de_comunicacion_y_eventos_inclusivos_y_accesibles_del_gobierno_de_navarra.pdf



Eventos accesibles.

Fundación ONCE et al. (2023).

<https://www.sjis.net/documentos/ficha/591579.pdf>



Organización de eventos accesibles.

PREDIF-Plataforma Representativa Estatal de Personas con Discapacidad Física (2022).

https://www.valenciaconventionbureau.com/sites/default/files/media/downloadable-file/files/VisitValencia%20ESPA%C3%91OL%20DEFINITIVO_Acc.pdf



Guía de accesibilidad e inclusión en la música en vivo: adaptación a salas de conciertos, teatros y auditorios.

D. Ferrón, P. Galindo et al. (2023).

https://drive.google.com/file/d/1GxEyS_CX6-Yx5IeO99CDRGW44INPiN_5



¿Cómo organizar eventos culturales accesibles en teatros y museos?

PREDIF - Plataforma Representativa Estatal de Personas con Discapacidad Física (2017).

<https://www.sjis.net/documentos/ficha/529866.pdf>



Manual de buenas prácticas para la organización de eventos deportivos inclusivos.

Àrea d'Educació, Esports i Joventut, Diputació de Barcelona (2020).


<https://www.munideporte.com/imagenes/documentacion/ficheros/020DC167.pdf>



Guía básica para eventos turísticos accesibles e inclusivos.

L. Casado (2023).


<https://www.navarra.es/documents/48192/15430000/GU%C3%8DA+B%C3%81SICA+EVENTOS+TUR+ACCESIB+INCLUS.pdf>

8.2.c.	Larrialdi-planak eta ebakuaziorako protokoloak berrikusi, irisgarritasun irizpideak txertatuz.
Ardatza	8. Aisialdia, ongizatea eta garapena.
Helburua	8.2. Festak eta ekitaldiak irisgarriagoak eta inklusiboagoak egitea.
Lehentasuna	— Altua.
Irismena / Hartzaileak	— Irismena: espazio publikoa eta udalerriko eraikin publikoak, batez ere erabiltzaile asko edo desgaitasunen bat izan dezaketen erabiltzaileak dituztenak, edo puntualki har ditzaketenak. — Hartzaileak: larrialdi-egoeren inguruko arduradun edo eta langileak (hirigintza, obrak, Udaltzaingoa... bakoitzak dagokion esparruan eta neurrian). 
Egungo egoera	— Protokoloen gabezia: Larrialdi- eta ebakuazio-protokoloak ez daude egokituta aniztasun funtzionala duten pertsonentzat. Ez dute kontuan hartzen mugikortasun murriztua, entzumen- edo ikusmen-urritasuna duten pertsonen beharrak, eta ondorioz, pertsona horiek ez dute segurtasunik sentitzen. — Informazioaren ulertezintasuna: Larrialdi-seinaleztapen eta -mezuak ez dira beti ulergarriak. Adibidez, seinaleztapena ez dago Braille-n, edo mezuak ez dira argiak, eta horrek zaildu egiten du zailtasun kognitiboak edo hizkuntza menperatzen ez dituzten pertsonen informazioa ulertzea. — Desgaitasun fisikoa: Festetako ekitaldi eta gune askotan ez da beti bermatzen oinezko mugikortasuna, toki egokituak edo laguntza-materialak; horrek mugatzen du desgaitasun fisikoa duten pertsonen parte-hartzea.

	— Desgaitasun sentzoriala: Entzumen edo ikusmen arazoak dituzten pertsonentzako orientazio, seinaleztapen eta informazio egokirik ez dago, eta horrek parte-hartzea zailtzen du. — Desgaitasun kognitiboa: Protokolo, informazio edo instrukzioak ez dira beti modu errazean eta ulergarrian ematen, eta horrek zailtasunak sortzen ditu pertsona horientzat. — Zaintzaileen laguntza eta informazioa: Familia edo laguntza-zaintzaileentzako gune eta baliabiderik ez dago beti, eta horrek mugatzen du zaindutako pertsonen parte-hartzea. — Sarbide eta kokapen baliabideak: Ekitaldi-espazioetan sarrera, irteera eta gune nagusiak ez daude beti adierazita eta egokituta, eta horrek arriskuak eta oztopoak sortzen ditu. — Seinaleztapen eta orientazio falta: Informazio bisuala eta aurrez-aurreko orientazioa ez da beti koherentea, eta horrek zaildu egiten du pertsona guztien segurtasun eta parte-hartzea. — Langileen prestakuntza falta: Langileek ez dute prestakuntzarik pertsona guztiak modu seguruan ebakutzeko. Ez dakite nola lagundu mugikortasun murriztua duten pertsonen, edo nola komunikatu entzumen- edo ikusmen-urritasuna duten pertsonekin.	
Azalpena	— Larrialdi- eta ebakuazio-protokoloak berrikustea eta eguneratzea aurreikusten da, pertsona guztiak modu seguruan ebakutzeko plan bat izateko, eta aniztasun funtzionala duten pertsonen beharrak kontuan hartzeko.	
Kronograma	Jarduketa zehatzak	Kostua (€)
2026	— ---	---
2027	— ---	---
2028	— ---	---
2029	— ---	---
2026-2029 (1)	— Larrialdi eta ebakuaziorako protokoloak berrikusi, irisgarritasun irizpideak txertatuz. — Kiroldetako harmailetan espazio erreserbatuak ezarri eta egokitu, protokoloak aplikatuz.	6.000
2030-2033	— ---	---
Oharrak	— (1) Lehenengo laurtekoan, urtea zehaztu gabe.	
Udaleko arduradunak	— Larrialdi-egoeren gaineko arduradun edo eta langileak.	
Beste eragileak	— ---	
Esleipenak eta kanpo-baliabideak	— Aholkularitza-zerbitzua, hala badagokio.	
Ebaluazio eta jarraipen adierazleak	— Protokoloak berrikusi izana. — Irisgarritasuna txertatzeko ezarritako neurriak. — Jarduketaren kostua.	

Jarduketarako irizpideak

- Ebakuazio plan sinplifikatuak eta ulergarriak, arduradun zein erabiltzaileentzat.
- Komunikazio ulerterraza bermatzea: Larrialdi mezuak hizkuntza sinplifikatuan eta euskarri bisualetan eskaintzea gomendatzen da.
- Espazio irisgarriak egokitzea: Ebakuazio-bideetan sarbide fisikoa eta orientazio bisuala bermatzea komeni da.
- Seinaleztapen bisuala eta soinuduna: Seinaleztapen bisuala eta soinuduna izatea komeni da.
- Langileen prestakuntza: Langileek aniztasun funtzionalari buruzko formakuntza espezifikoak jaso beharko lukete. Formakuntza horretan, ebakuazio-teknikak eta komunikazio inklusiboaren teknikak landu beharko lirateke, herritar guztiek arreta egokia jaso dezaten.
- Ebakuazio-gune seguruak: Larrialdi- eta ebakuazio-guneak irisgarri izatea gomendatzen da.
- Bazterkeria sozialaren ikuspegia: Protokoloak bazterkeriaren ikuspegitik ere diseinatzea gomendatzen da, eta protokoloen diseinuan kolektibo zaurgarrien iritzia jasotzea.




Prebentzio-neurriak eta ebakuazio-protokoloak ezartzeaz gain, lanketaren emaitza izan daiteke, baita ere, ebakuaziorako produktuak erostea. Esaterako, aulkiak edo mantak.

Gomendatutako dokumentazioa

Guía sobre accesibilidad y seguridad para casos de emergencias en edificios sociales y sanitarios.

Ana Isabel Carpio Ponce (2016).

<https://observatoriodelaaccessibilidad.es/wp-content/uploads/2021/03/Guia-sobre-accessibilidad-y-seguridad-para-casos-de-emergencias-en-edificios-sociales-y-sanitarios.pdf>



Guía para la Elaboración de Planes Inclusivos de Actuación en caso de Emergencia en Festivales de Música.

D. Ferrón, R. García, S. Montoya (2024).

<https://observatoriodelaaccessibilidad.es/wp-content/uploads/2024/09/Guia-para-la-elaboracion-de-planes-inclusivos.pdf>



Guía de accesibilidad cognitiva. Sistemas de emergencia y evacuación.

AFANIAS (2022).


http://riberdis.cedid.es/xmlui/bitstream/handle/1181/6988/Gu%C3%ADa_accesibilidad_cognitiva_emergencia_y_evacuaci%C3%B3n.pdf

Arau-esparrua.

9.1.a.	Ordenantzetan irigarritasun irizpideak txertatu.
Ardatza	9. Arau-esparrua.
Helburua	9.1. Ordenantzetan irigarritasun irizpideak txertatzea.
Lehentasuna	— Ertaina.
Irismena	— Udal-ordenantzak, batez ere herritarrei zuzendutako edo haien eskura dauden inguruneen, prozesuen, zerbitzuen, ondasunen, produktuen edo eta gailuen ingurukoak. — Hurrengo fitxan Ordenantza Fiskalari dagokion jarduketa espezifiko jaso da.
	
Egungo egoera	— Irigarritasunaren integrazio partziala: Udal ordenantzetan irigarritasun irizpideak ez daude beti modu sistematikoan txertatuta, batez ere alderdi fisikoan eta autonomia pertsonalean jartzen delarik fokua. — Desgaitasunaren tratamendu partziala: Ordenantza batzuetan aipamen puntualak badaude ere, ez da kontuan hartzen desgaitasun mota anitzen errealitatea (fisikoa, sensoriala, kognitiboa, mentala...), ez eta zainketa-lanena ere. — Bazterkeria sozialaren ikuspegi eza: Ez da jasotzen arrazoi sozioekonomiko, kultural edo linguistikoek eragindako irigarritasun-desberdintasunik. — Estandarrak eta gida praktikoak ez nahikoak: Ordenantzak ez dute beti jasotzen zehazki zein neurri hartu behar diren espazio publikoetan, zerbitzuetan eta ekitaldietan irigarritasuna bermatzeko. — Arduradunen prestakuntza mugatua: Ordenantzak aplikatzen dituzten teknikari eta langileek ez dute beti prestakuntza nahikoa irigarritasun irizpideak modu koherente eta egokian ezartzeko. — Koordinazio faltak: Sail eta zerbitzu desberdinen artean ez dago beti lankidetzaren egokia, eta horrek oztopatzen du ordenantzen betearazpena eta ebaluazioa. — Hobekuntza beharra: Irigarritasun printzipioak modu argiagoan txertatzea beharrezkoa da, pertsona guztien erabilgarritasuna eta parte-hartzea bermatzeko. — Irigarritasunari dagokionez, zenbait arau-hauste sendoago zigortu edo eragotzi beharko lirakeke. Mugikortasun zein ikusmen mugatua duten pertsonen parte-hartze

	prozesuetan salatzen dute oinezkoen ibilbideak okupatzen dituzten ibilgailuak edo eta ostalaritza-terrazak zorrotzago zaindu beharko liratekela.	
Azalpena	— IUPIaren denbora-irismena 2026-2029 laurtekoari badagokio ere, 2030-2033 laurtekoan jarduketa zehatz bat jaso da epe ertaineko aurreikuspen gisa, besteak beste adierazteko zein den gai honen inguruan Udalak etorkizunean egin dezakeen ibilbidea. — Epe ertain-luzera udalaren araudi guztiak berrikustea eta eguneratzea da asmoa, irisgarritasun unibertsalaren ikuspegia ildo espezikoen bitartez zein zeharka txertatuz. Udalak jorratu ditzakeen lan-ildoak: — Kohesioa eta uniformetasuna: Ordenantza desberdinetan zehar irizpide berdinak ezartzea lortu nahi da, araudi-esparru koherenteago bat sortuz eta interpretazio-akatsak saihestuz. — Desgaitasun mota anitzak kontuan hartzea: Ordenantzetan desgaitasun fisiko, sentensorial, kognitibo eta mentalaren errealitatea jasotzea da asmoa. — Bazterkeria sozialaren ikuspegia txertatzea: Adina, jatorria, hizkuntza, genero edo maila ekonomikoaren arabera sortzen diren oztopoak arauetan kontuan izatea proposatzen da. — Komunikazio inklusiboa: Ordenantza-testuetan hizkuntza erraz eta ulergarria erabiltzea proposatzen da, gaitasun kognitibo mugatuak edo hizkuntza menderatzen ez duten pertsonen informazioa eskuratzeko duten eskubidea errazteko. — Aholku teknikoak: Proposatzen da adituen eta kolektiboen ekarpenak jasotzea. — Udal-ordenantzak, irisgarritasunari lotuta daudenak. Esaterako: — Dauden eraikinetan igogailua jartzeko obrari edo eta zoru publikoaren okupazioari dagozkien zergatan hobariak aurreikusi dira: ikus atal honen amaieran. — Herri bidearen erabilera eta okupazioari buruzko ordenantzan (terrazak eta mahai-multzoak) oinezkoen irisgarritasuna bermatzen da. Informazio gehiago. — Trafikoa eta aparkalekuak arautzen dituen ordenantzak erreserbatutako aparkalekuak ere arautzen ditu. Aipatzekoa da, 2008koa izanik, honakoa jasotzen duela: “Udalak, sortzen diren behar berrien arabera, aparkalekuen eremu erreserbatuen mapa egin eta eguneratuko du, pertsona horien beharrei erantzuteko.” Aipatzekoa baita ere “ezinduak” erabiltzen duela “desgaitasuna duten pertsonak” edo, zuzenean, “desgaituak” erabili ordez. Informazio gehiago. Eraikuntza, instalazio eta obren gaineko zerga arautzen duen ordenantza fiskalean aurreikusi diren hobariak, irisgarritasunarekin lotuak: — %90 igogailuak jartzeko lanetarako. — %90 desgaituen eta/edo mendekotasun balorazioa duten pertsonen irisgarritasun eta bizigarritasun baldintzak hobetzen dituzten obretarako. — Informazio gehiago.	
Kronograma	Jarduketa zehatzak	Kostua (€)
2026	— ---	---
2027	— ---	---
2028	— ---	---
2029	— ---	---

2026-2029	— ---	---
2030-2033 (2)	— Udal-ordenantzak eta Ordenantza Fiskala berrikusi irisgarritasun irizpideak txertatuz.	12.000
Oharrak	— (2) IUPIaren denbora-irismena 2026-2029 laurtekoari badagokio ere, 2030-2033 laurtekoa gehitu da jarduketa jasotzeko, epe ertaineko aurreikuspen gisa. Aurrekontua modu berezian jaso da IUPIaren aurrekontu orokorrean (ikus Jarduketa Planaren laburpena).	
Udaleko arduradunak	— ---	
Beste eragileak	— ---	
Esleipenak eta kanpo-baliabideak	— ---	
Ebaluazio eta jarraipen adierazleak	— ---	
Jarduketarako irizpideak	— Diagnostiko sakona: Gomendatzen da lehenik udal-ordenantza guztien diagnostiko sakon bat egitea, gaur egungo egoera zein den jakiteko eta berrikuspen-lehentasunak ezartzeko. — Desgaitasun mota anitzak jasotzea: Araudiak desgaitasunaren dimentsio anitzak esplizituki jasotzea komeni da. — Bazterkeria sozialaren ikuspegia gehitzea: Arauetan arrazoi sozioekonomiko eta kulturelek eragindako oztopoak islatzea beharko litzateke. — Aniztasuna kontuan hartu: Gomendatzen da ordenantzen berrikuspenean desgaitasunen bat duten pertsonen beharrak kontuan hartzea, eta horretarako, beharrezkoa litzateke kolektibo horien parte-hartzea bermatzea. — Genero ikuspegia: Komeni da emakumeen eta gizonen esperientzia desberdinak aintzat hartzea. — Talde teknikoaren lanketa: Komeni da udaleko arlo ezberdinetako teknikariz eta irisgarritasunean adituz osatutako lantalde bat sortzea, ordenantza bakoitzaren berrikuspen integrala egiteko. — Hizkuntza inklusiboa: Irizpide argi eta zehatzak ezarri beharko lirateke, ordenantzetako testuak hizkuntza ulerterrazean idazteko, bazterkeria soziala pairatzeko arriskuan dauden pertsona guztiek araudia ulertu dezaten. — Sentsibilizazioa: Beharrezkoa litzateke ordenantza berri eta egokituak herritarrei eta udal-eragileei modu ulergarrian komunikatzea, haien aplikazio egokia bermatzeko eta udalerrri inklusiboago bat sortzeko.	

9.2.a.	Dirulaguntzen Plan Estrategikoa eta Ordenantza Fiskala berrikusi irisgarritasun irizpideak txertatuz.
Ardatza	9. Arau-esparrua.
Helburua	9.2. Irisgarritasun ekonomikoa hobetzea.
Lehentasuna	— Ertaina.
Irismena	— Dirulaguntzen Plan Estrategikoa, Dirulaguntzak. — Ordenantza Fiskala. 
Egungo egoera	— Desgaitasuna eta pobrezia gurutzatzea: Desgaitasuna duten pertsonen artean pobrezia-arriskua handiagoa da. — Oztopo ekonomikoak: Pertsona askok, batez ere baliabide ekonomiko mugatuak dituztenek, ez dute beren etxebizitza, lanbide-jarduera edo ibilgailuak egokitzeko gaitasunik. Egoera honek gizarte bazterkeria sustatzen du eta irisgarritasun-arazoak larriagotu egiten ditu. — Sarbide mugatua ordainpeko udal-zerbitzuetara: Desgaitasunari lotutako errenta baxuagoagatik, pertsona eta familiek sarritan zailtasunak dituzte ordainpeko udal-zerbitzuetako erabiltzaile izateko. — Gabeziak diru-laguntzen diseinuan: Dirulaguntzen diseinuan irisgarritasun- eta inklusio-irizpideak ez dira sistematikoki txertatzen, eta aukera hori oraindik garatzeko dago. Erreferentzia gisa, urteetako lanaren ondorioz, euskararen eta berdintasunaren inguruko baldintzak sistematikoki txertatzen dira. — Dirulaguntzen esparru mugatua: Gaur egungo dirulaguntzen planek sarritan ez dituzte kontuan hartzen pertsona anitzen beharrak, horien artean desgaitasunen bat duten pertsonenak. Esparru horri dagokionez, zehazki oztopoak ezabatzeke eta laguntza produktuak eskuratzeko, Udalak bitartekaritza lana egiten du eskatzailearen eta Aldundiaren artean, Gizarte Zerbitzuen bitartez. — Araudiaren mugak: Udalaren Ordenantza Fiskalak baditu zerga-pizgarriak edo salbuespenak irisgarritasun-hobekuntzak egiten dituztenentzat. — Informazio eta komunikazio eskasa: Herritarrei eskari eta dirulaguntzen inguruan argibide egokia emateko protokoloak mugatuak dira, eta gainera informazioa ez da beti ulerterraza. Horrek arazoak sortzen ditu hizkuntza-oztopoak dituztenentzat edota gaitasun kognitibo mugatuak dituzten pertsonentzat, sarbidea zaildu egiten

	delarik. — Burokrazia konplexua: Prozedura burokratikoak konplikatuak dira, dirulaguntzak eskuratzeko zailtasunak sortuz. Hori bereziki nabaria da adinekoentzat, gaixotasun mentalak dituztenentzat edo mendekotasun-egoeran dauden pertsonentzat.	
Azalpena	— IUPIaren denbora-irismena 2026-2029 laurtekoari badagokio ere, 2030-2033 laurtekoan jarduketa zehatz bat jaso da epe ertaineko aurreikuspen gisa, besteak beste adierazteko zein den gai honen inguruan Udalak etorkizunean egin dezakeen ibilbidea. — Epe ertain-luzera udalaren dirulaguntzak eta ordenantza fiskalak berrikustea eta eguneratzea da asmoa, irisgarritasun unibertsalaren ikuspegia ildo espezikoen bitartez zein modu transbertsalean txertatuz. Udalak jorratu ditzakeen lan-ildoak: — Dirulaguntzen Planaren eta Ordenantza Fiskalaren berrikuspena egitea: Dirulaguntzen Plan Estrategikoa eta Ordenantza Fiskala irisgarritasun irizpideak txertatuz berrikustea proposatzen da. — Esaterako, Udal askok igogailuak jartzeko obrak sustatzeko, hobariak aurreikusteaz gain, dirulaguntzak ere ematen dituzte. — Zerga-politika inklusiboa diseinatzea: Kolektibo baztertuentzako salbuespen eta hobari fiskalak ezartzea lortu nahi da. — Desgaitasunaren eta pobrezia-arriskuaren arteko lotura lantzea: Laguntza ekonomikoen diseinuan desgaitasuna duten pertsonen egoera berezia kontuan hartzea egitea da asmoa. — Ekonomia-oztopoak gainditzea: Lortu nahi da udal-laguntza ekonomikoek desgaitasuna duten pertsonen eta maila sozioekonomiko baxuagoko pertsonen beharrak modu berezian kontuan hartzea. Horrela, hainbat pertsonak pairatzen duten bazterkeria saihestea da asmoa. — Aplikazio erraza: Prozedura burokratikoak sinplifikatzea eta hizkuntza ulerterraza erabiltzea da asmoa, informazioa eskuratzeko zailtasunak dituztenentzat edota adinekoentzat dirulaguntzak eskuratzeko erraztuz. — Zerga-pizgarriak sortzea: Ordenantza Fiskalean zerga-pizgarri berriak sortzea proposatzen da. Horren bidez, jabetza pribatuan irisgarritasun-obrak egitea sustatuko da, eta hori, gure udalerri osoaren onurarako izango da. — Hedatze eta komunikazio eraginkorra: Proposatzen da dirulaguntza eta pizgarri fiskalei buruzko informazioa modu ulergarri eta hainbat formatutan zabaltzea. Horrela, pertsona guztiek izango dute informazioa eskuratzeko aukera.	
Kronograma	Jarduketa zehatzak	Kostua (€)
2026	— Hobariak aplikatzen jarraitu.	(5) 0
2027	— Hobariak aplikatzen jarraitu.	(5) 0
2028	— Hobariak aplikatzen jarraitu.	(5) 0
2029	— Hobariak aplikatzen jarraitu.	(5) 0
2026-2029	— ---	---
2030-2033 (2)	— Dirulaguntzen Plan Estrategikoa eta Ordenantza Fiskala berrikusi irisgarritasun irizpideak txertatuz.	12.000

Oharrak	— (2) IUPIaren denbora-irismena 2026-2029 laurtekoari badagokio ere, 2030-2033 laurtekoa gehitu da jarduketa jasotzeko, epe ertaineko aurreikuspen gisa. Aurrekontua modu berezian jaso da IUPIaren aurrekontu orokorrean (ikus Jarduketa Planaren laburpena). — (5) Aurrekontuetan ez da kopururik adierazi: partidak zehazteko zailtasunagatik, hobariei ez dagokielako aurrekonturik...
Udaleko arduradunak	— ---
Beste eragileak	— ---
Esleipenak eta kanpo-baliabideak	— ---
Ebaluazio eta jarraipen adierazleak	— ---
Jarduketarako irizpideak	— Lehenetasunak ezartzea: Gomendatzen da aurrekontuak lehenestea irisgarritasun-hobekuntza gehien behar dituztenentzat eta bazterkeria soziala pairatzeko arriskuan daudenentzat. — Irisgarritasun ekonomikoa bermatzea: Laguntza eta zerga-politikan kolektibo baztertuen egoera kontuan hartzea gomendatzen da. — Salbuespen fiskalak aurreikustea: Desgaitasuna duten pertsonentzat eta pobrezia-arriskuan daudenentzat hobariak ezartzea beharko litzateke. — Diskriminazio anitzak: Genero, adin, jatorri eta egoera sozioekonomikoaren arabera oztupoak identifikatzea gomendatzen da. — Prozedura sinpleak: Komeni da dirulaguntzen eskaera-prozesuak arintzea, informazio sinplea eta eskuragarria erabiliz. Horrela, gaitasun kognitibo mugatuak edo hizkuntza menderatzen ez dituzten pertsonak ere eskaerak arazorik gabe egin ahal izango dituzte. — Baldintza malguak: Gomendatzen da baldintzak eta betekizunak malgutzea kolektibo ahulentzat. — Irizpide zabalak: Dirulaguntzen irizpideek irisgarritasunaren dimentsio guztiak barne hartzea, baita zentzumenezkoak eta kognitiboak ere. — Kontrol-mekanismoak: Beharrezkoa litzateke onurak jasotzen dituzten pertsonen jarraipena egiteko mekanismoak ezartzea. Horrek dirulaguntzen eragina neurtu ahal izatea eta haien kudeaketa egokia bermatzea ahalbidetuko du. — Gardentasuna: Gomendatzen da ordenantza eta dirulaguntzen xehetasunak gardentasunez eta hainbat formatutan argitaratzea. Horrek herritar guztiei informazioa arazorik gabe ulertzea erraztuko die. — Dirulaguntzen berrikuspina egiteko, hiru esparrutan eragitea gomendatzen da: — Desgaitasunarekin edo/eta mendekotasunarekin lotutako laguntza espezifikoak sortzeko edo aldatzeko. Laguntza espezifiko hauen bitartez, desgaitasunen bat duten edo mendekotasun egoeran dauden pertsonak (eta familia edo zaintzaileak) bizitza duina izateko ezinbesteko gastu bereziak arinduko lirateke. — Desgaitasunarekin edo/eta mendekotasunarekin lotutako baldintzak zeharka txertatzeko. Euskararen edo berdintasunaren sustapen-baldintzak hainbat dirulaguntzatan zeharka txertatu ohi diren bezalaxe, desgaitasunarekin edo/eta mendekotasunarekin lotutako baldintzak txertatuz: autonomiarako, ongizaterako, inklusiorako, parte-hartzeko... — Gizarte-bazterkeriaren aurrean laguntza espezifikoak sortzeko edo aldatzeko, bai eta hari lotutako baldintzak zeharka txertatzeko ere.

IUPIaren kudeaketa eta komunikazioa.

10.1.a. IUPIa kudeatu, jarraipena egin eta ebaluatu.	
Ardatza	10. IUPIaren kudeaketa eta komunikazioa.
Helburua	10.1. Plana gauzatzea errazteko baldintzak ezartzea.
Lehentasuna	— Altua.
Irismena / Hartzaileak	— Irismena: IUPIa bera. — Hartzaileak: Udaleko ordezkari politikoak.
	
Egungo egoera	— Kudeaketa-eredu ez-integrala: Lehendik zegoen Planaren kudeaketa ez zen integrala eta sistematikoa, eta horrek ekintzen betearazpena zaildu zuen. — Kohesio falta sailen artean: Plana bi eremutan banatuta egon arren, "Udalerrri irisgarria" eta "Udal irisgarria", ez da lortu sailen arteko lankidetza eta koordinazioa modu eraginkorrean bermatzea. — Ebaluazio eta jarraipen sistematikorik ez: Planaren betetze-maila ez da modu sistematikoan ebaluatu, eta herritarren parte-hartzea ia hutsala izan da, ezta desgaitasunen inguruko taldeena ere. — Gardentasun falta: Planaren kudeaketa, jarraipena eta ebaluazioa ez dira herritarrekin partekatu, eta horrek gardentasun falta eta herritarren konfiantza murriztea eragin du. — Jarduketaren inpaktuaren azterketarik ez: Ez da aztertu planaren jarduketek herritarren bizitzan izan duten benetako inpaktua, eta horrek ebaluazioaren zati kualitatiboa mugatu du.

Kudeaketa

- Aurreko Irisgarritasun Planean ez zen kudeaketa argi eta egituraturik izan; ez ziren izendatu erantzukizun zehatzak, eta jarduketak sailek modu isolatuan garatu zituzten.
- “Udalerri irisgarria” eremuan, Hirigintza sailak hartu zuen protagonismo handiagoa, baina ez zen nahikoa izan udalerri osoko ikuspegia txertatzeko.
- “Udal irisgarria” eremuko jarduketei dagokienez, ez zen kudeatzaile bakar eta bateraturik egon, eta horrek koordinazio-falta ekarri zuen.
- Horren ondorioz, udalaren barruko antolaketa ez da irisgarritasunaren ikuspegitik koherentea izan, eta Planaren lidergoa ez da behar bezala nabarmendu.

Jarraipena

- Ez da ezarri jarraipen-prozedura sistematiko bat: ez dago aurreko planaren betetze-mailari buruzko datu fidagarriak.
- Jarraipenaren informazioa ez da modu egituratuan bildu, eta horrek ezinezko bihurtu du urteko bilakaera aztertzea eta erabaki zuzentzaileak hartzea.
- Adierazle kuantitatibo eta kualitatiboen gabezia nabarmentzen da; jarduketan inpaktuari buruzko informazioa ez da neurtu.
- Jarraipenaren emaitzak ez dira sailen artean partekatu, eta horrek koordinazioa gehiago zaildu du.

Ebaluazioa

- Aurreko Planean ez zen aurreikusitako ebaluazio formalik egin; beraz, ez dago dokumentu bateraturik emaitzen balorazioarekin.
- Ebaluazio faltak herritarrekiko gardentasun eskasa ekarri du: herritarrek ez dakite aurreko Planean zer gauzatu den eta zer ez.
- Ez da herritarren edo desgaitasunen inguruko elkarten parte-hartzerik egon ebaluazio-prozesuan.
- Oro har, ez dago ikasketa kolektiborik aurreko esperientziatik, eta horrek oraingo Planaren arrakasta baldintzatu dezake.

Azalpena

Jarduketa honen helburua irisgarritasun-planaren kudeaketa, jarraipena eta ebaluazioa hobetzea da, prozesua proaktibo, parte-hartzailea eta gardena izan dadin.

Kudeaketa


- Plan berriaren kudeaketa Udalaren ardura zuzena izango da: Hirigintza sailak gidatuko ditu “Udalerri irisgarria” eremuko jarduketak, eta gainerako sailek elkarrekin hartuko dute ardura “Udal irisgarria” eremukoetan.
- Jarduketa bakoitzean sail arduradunak zehaztuko dira, zalantzak saihesteko eta erantzukizunak argi uzteko.
- Koordinazio mekanismoak ezarriko dira (batzorde teknikoa, barne bilerak, partekatutako txostenak), udalaren ikuspegi bateratua bermatzeko.
- Kudeaketa-eredu honek lidergo argia uztartu nahi du, baina sailen arteko lankidetzak sustatuz.

Jarraipena

- Jarraipena urtean behin egingo da, adierazle kuantitatibo eta kualitatiboen bitartez: jarduketan betetze-maila, epeen errespetua, eta inpaktu soziala.
- Jarraipena dokumentu bakarrean bilduko da, eta udal arduradunei zein herritarrei aurkeztuko zaie gardentasuna indartzeko.
- Barneko jarraipena sailen artean partekatzeko mekanismoekin uztartuko da, koordinazioa hobetzeko eta norabide bateratua mantentzeko.
- Jarraipenaren emaitzak etengabeko hobekuntza-prozesu baten parte izango dira, hurrengo urteetako plangintzan txertatuz.

	Ebaluazioa - Plan osoaren ebaluazioa urteko txosten batean gauzatuko da, betetze-maila eta eragin soziala baloratuz. - Ebaluazioan herritarren parte-hartzea txertatuko da: desgaitasunen inguruko elkarteak eta norbanakoak deituko dira iritzia ematera. - Ebaluazioak ez du soilik datu teknikoetan oinarritu behar; herritarren pertzepzioa eta bizipenak ere jasoko dira. - Ebaluazio-txostena publiko egingo da, udal webgunean eta aurkezpen publiko baten bidez, gardentasuna eta konfiantza bermatuz.	
Kronograma	Jarduketa zehatzak	Kostua (€)
2026	“Udal Irisgarria” jarduketa-eremu nagusiaren kudeaketa-eredua zehaztu (adib. arduradun bat identifikatuz, kudeaketa partekatua egiteko espazioak eta baliabideak zehaztuz, etab.). - IUPIaren kudeaketa malgua. Dagokion urteko jarduketak gauzatu eta hurrengokoak aurrekontu-proiektuan sartu. - IUPIaren jarraipena egin eta jarraipen-txostena idatzi.	(4) 0 (4) 0 (4) 0
2027	- IUPIaren kudeaketa malgua. Dagokion urteko jarduketak gauzatu eta hurrengokoak aurrekontu-proiektuan sartu. - IUPIaren jarraipena egin eta jarraipen-txostena idatzi.	(4) 0 (4) 0
2028	- IUPIaren kudeaketa malgua. Dagokion urteko jarduketak gauzatu eta hurrengokoak aurrekontu-proiektuan sartu. - IUPIaren jarraipena egin eta jarraipen-txostena idatzi.	(4) 0 (4) 0
2029	- IUPIaren kudeaketa malgua. Dagokion urteko jarduketak gauzatu eta hurrengokoak aurrekontu-proiektuan sartu. - IUPIaren jarraipena egin eta jarraipen-txostena idatzi. - IUPIa ebaluatu eta ebaluazio-txostena idatzi. - Hurrengo IUPIa idatzi, edo bere idazketa esleitu.	(4) 0 (4) 0 (4) 0 (*) 9.000
2026-2029	— ---	---
2030-2033	— ---	---
Oharrak	(4) Aurrekonturik gabeko jarduketa: Udalak bere baliabideekin egitea aurreikusten da. (*) 2029an hurrengo IUPI idatzi beharko luke Udalak, 2030-2033 laurtekoari dagokiona alegia. Hala egitekotan, erabakiko da nola gauzatuko den idazketa: Udalak bere baliabide propioekin ala kanpo-aholkularitza baten bitartez. Bigarren aukera honi legokiokkeen aurrekontua jaso da IUPIan.	
Udaleko arduradunak	“Udal Irisgarria” jarduketa-eremu nagusiko kudeatzailea edo kudeaketa-taldea. - Beste sail inplikatuak: - IUPIaren jarduketa-planaren arabera ardura edo inplikazioa duten arduradun edo langileak.	
Beste eragileak	Hala badagokio, desgaitasunaren inguruan beharrak/interesak/esperientzia/jakintza duten elkarte edo herritarrak.	
Esleipenak eta kanpo-baliabideak	Hurrengo IUPIaren idazketa.	

Ebaluazio eta jarraipen adierazleak	— Kudeaketa eta jarraipen-saioak: _ Udaleko sailek elkarrekin saiorik egin izana, eta kopurua. _ Udalaz kanpoko eragileek parte hartu izana, bereziki desgaitasunaren inguruan beharrak/interesak/esperientzia/jakintza duten elkarte edo herritarrak. _ Jarraipen-txostena idatzi izana. — Ebaluazio-saioak: _ Udaleko sailek elkarrekin saiorik egin izana, eta kopurua. _ Udalaz kanpoko eragileek parte hartu izana, bereziki desgaitasunaren inguruan beharrak/interesak/esperientzia/jakintza duten elkarte edo herritarrak. _ Ebaluazio-txostena idatzi izana.
Jarduketarako irizpideak	Kudeaketa — Kudeaketa arduradun argiekin antolatu behar da, eremu bakoitzean lidergo instituzionala bermatuz. — Udal sail guztiek irisgarritasunaren ikuspegi integrala txertatu behar dute beren jardueretan, ez soilik Hirigintza sailak. — Koordinazio-organo bat (batzorde tekniko edo politikoa) sortzea gomendatzen da, plan osoaren jarraipena gidatzeko. — Kudeaketa-lanetan gardentasuna eta informazio trukea lehentasun izan behar dute. Jarraipena — Jarraipena egiteko adierazle zehatzak definitu behar dira: jarduketa kopurua, betetze-portzentajeak, epeak, eta inpaktu soziala. — Urteko jarraipen-txostenak udal organo politikoetan aurkeztu behar dira, erabakiak informazioan oinarrituta hartzeko. — Herritarrei jarraipenaren emaitzak modu erraz eta ulergarrian helaraztea ezinbestekoa da (infografiak, laburpenak, aurkezpen publikoak). — Jarraipenaren emaitzak plangintzan txertatzeko mekanismoa sortu behar da, hobekuntza jarraituaren logikarekin. Ebaluazioa — Ebaluazioa ez da formalitate hutsa izan behar: benetako balorazio kritikoa egin behar da, lortutako aurrerapenak eta gabeziak identifikatuz. — Herritarren parte-hartzea sistematikoki txertatu behar da, desgaitasunak dituzten pertsonen ikuspegia barne. — Ebaluazioak ikuspegi integrala izan behar du: irisgarritasun fisikoa, digitala, komunikatiboa eta soziala kontuan hartuz. — Txosten publikoek hizkera argia eta inklusiboa izan behar dute, irisgarritasunaren inguruan pedagogia soziala ere eginez.

10.1.b.	Udal-kartografia eguneratu.
Ardatza	10. IUPIaren kudeaketa eta komunikazioa.
Helburua	10.1. Plana gauzatzea errazteko baldintzak ezartzea.
Lehentasuna	— Ertaina.
Irismena / Hartzaileak	— Irismen geografikoa: gutxienez, herrigunea edo hiri-lurrek hartzen duten eremua. — Hartzaileak: Udala bera (Hirigintza Saila). 
Egungo egoera	— Egun eskuragarri dagoen informazio kartografikoa ez da nahikoa herriguneko ingurunearen irugarritasun-egoera zehatz-mehatz ezagutzeko. Diagnostikoa: — Informazio espezifikoaren gabezia: Irugarritasunaren esparruko informazioa mugatua da eta ez dauka geruza tematiko bereziak. Esaterako, hiri-instalazioei ematen zaion trataera har liteke erreferentzia gisa. — Oztopen inguruko informazio mugatua: Ez daude sistematikoki identifikatuta oinezkoen ibilbideetan dauden oztopo fisikoak (adib. 2 cm-tik gorako koskak). — Altuera-kotak ez dira kokatzen sistematikoki irugarritasunaren ikuspegitik esanguratsuak diren puntuetan (eskailera eta arrapalen hasieran zein amaieran, eraikinen sarbideen bi aldeetan...). — Elementu irugarrietan hutsuneak: Ez dira modu berezian jasotzen aparkaleku egokituak, igogailuak, komun egokituak edo ukimenezko zoladurak. — Datuen zehaztasun mugatua: Ez da bereizten, adibidez, Zebra-bideak goratuak diren ala ez. — Aipatzekoa da Aretxabaletako 2023ko udal-ordenantza, lan topografikoei buruzkoa, 2023-08-01eko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean argitaratua (147 zk.): https://www.aretxabaleta.eus/eu/dokumentuak/2023IERR0001016001.pdf Izan ere, ez da inguruko udal askotan egin den lana. Jarduketa honetan proposatutakoak zehaztu eta bertan txerta litezke.

Azalpena	— Udal-kartografian irisgarritasun unibertsalaren inguruko informazioa modu egituratuan jaso nahi da, diagnostiko zehatzagoak egiteko eta proiektuetan irisgarritasun unibertsalaren integrazioa sustatzeko. — Informazio kartografikoa eguneratzea aurreikusten da, irisgarritasunari lotutako elementuak sartuz eta geruza espezifikoetan antolatuz. Esaterako: — Oztopoak adieraziz (adib. 2cm baino gehiagoko koskak oinezkoen ibilbideetan). — Altuera-kotak sistematikoki puntu esanguratsuetan jarritz (oinetakoentzako ibilbideetan, eskailera eta arrapaletan, eraikinetako sarbideen bi aldeetan...). — Irisgarritasuneko elementu espezifikoak berariazko geruzatan jasoz (aparkaleku egokituak, igogailuak, ukimenezko zoladurak, etab.). — Informazioa zehaztasun gehiagorekin jasoz (adib. zebra-bideak goratuta dauden ala ez desberdinduz).	
Kronograma	Jarduketa zehatzak	Kostua (€)
2026	— ---	---
2027	— ---	---
2028	— ---	---
2029	— ---	---
2026-2029	— ---	---
2030-2033 (2)	— Udal-kartografia eguneratu, irisgarritasunaren inguruko informazioa txertatuz.	15.000
Oharrak	— (2) IUPIaren denbora-irismena 2026-2029 laurtekoari badagokio ere, 2030-2033 laurtekoa gehitu da jarduketa jasotzeko, epe ertaineko aurreikuspen gisa. Aurrekontua modu berezian jaso da IUPIaren aurrekontu orokorrean (ikus Jarduketa Planaren laburpena).	
Udaleko arduradunak	— Hirigintza.	
Beste eragileak	— ---	
Esleipenak eta kanpo-baliabideak	— Zerbitzu topografiko eta kartografikoa.	
Ebaluazio eta jarraipen adierazleak	— Udal-kartografia eguneratu izana, eta hala egin balitz: — Irisgarritasuna txertatzeko ezarri diren neurriak. — Kostua.	
Jarduketarako irizpideak	— Kartografia eguneratzeko esleipena egiteko lehiaketa bidez egingo balitz, baldintza-pleguetan atal bat sartzea gomendatzen da, lizitatzailleek bere proposamenetan deskriba dezaten nola gauzatuko luketen jarduketa honetan adierazitakoa. — Atal horri puntuazio bat egokitzea gomendatzen da. — Herrigunearen edo hiri-lurraren mugak adierazten badira, informazio espezifiko honen jasoketa eremu horretara mugatu daiteke.	

10.2.a.	IUPIa komunikatu eta sozializatu.
Ardatza	10. IUPIaren kudeaketa eta komunikazioa.
Helburua	10.2. Plana komunikatzea eta sozializatzea.
Lehentasuna	— Altua.
Irismena / Hartzailerak	— Herritarrak. — Udaleko teknikariak eta langileak. — Udalerriko zerbitzu publikoetako langileak. — Udalerriko jarduera ekonomikoetako langileak. 
Egungo egoera	— Komunikazio sistematikoaren gabezia: Aurreko Irisgarritasun Plana ez da modu jarraituan eta egituratuan komunikatu herritarren artean, eta informazioa ez da kanal guztietara iritsi. — Gardentasun falta: Planaren betetze-mailaren ebaluazioak ez dira herritarrei iritsi, eta horrek gardentasun falta eta herritarren konfiantza murriztea eragin du. — Pedagogia sozial mugatua: Irisgarritasunaren eta inklusioaren inguruko pedagogia soziala mugatua izan da; herritar askok ez dute kontzientziarik edo informazio zehatzik udalaren konpromisoei eta aurrerapenei buruz. — Pedagogia egiteko aukerak galtzea: Komunikazioak, oro har, izaera informatiboa izan du, eta ez dira probestu komunikazioak eskaintzen dituen aukerak irisgarritasunaren eta inklusio sozialaren inguruko sentibilizazio eta heziketa egiteko. — Kanal eta formatu mugatuak: Orain arteko komunikazioa gehienbat ohiko bideetara mugatu da (webgunea, prentsa-oharrak), formatu irisgarri gutxiarekin. — Herritarren inplikazio eskasa: Informazio faltak eta komunikazio ez egituratuak ez du sustatu herritarrak planaren kudeaketan eta ebaluazioan inplikatzeko. — Barne-komunikazioaren hutsuneak: Udal-langile guztiek ez dute izan planaren egoeraren berri eguneratua, eta horrek koordinazioa zaildu du.
Azalpena	— Jarduketa honen helburua da Irisgarritasun Planaren komunikazio eta hedapen sistematikoa modu proaktiboan bermatzea: batez ere herritarrei zuzenduta, baina baita barne-mailan ere (udal langile eta arduradunei). — Ekintza bakoitzaren berri ematea: Ekintza-planeko jarduketa bakoitza gauzatzen denean, informazioa kanal irisgarrietan argitaratzea egitea da asmoa.

	— Urteroko ebaluazioaren zabalkundea: Ebaluazioaren emaitzak herritarrei aurkeztea proposatzen da, gardentasuna eta konfiantza indartzeko. — Herritarrei jakinaraziko zaie zer jarduera burutu den, zein emaitza lortu diren eta zein konpromiso bete diren; gardentasuna eta konfiantza indartzeko. — Hedapenak pedagogia-funtzioa ere izango du: irisgarritasunaren garrantziaz kontzientziatu eta inklusio sozialaren aldeko balioak zabaltu. — Komunikaziorako baliabide anitz erabiliko dira, irisgarritasuna kontuan hartuz: webgunea, sare sozialak, prentsa idatzia, udal-aldizkaria, informazio-panelak eta herritarrei zuzendutako aurkezpen publikoak. — Herritarren parte-hartzea sustatzea: Komunikazioak herritarren iritzia jasotzeko eta ekarpenak egiteko aukera ere eskainiko du.	
Kronograma	Jarduketa zehatzak	Kostua (€)
2026	— IUPIaren laburpena argitaratu (inprimatua, digitala), komunikatu eta hedatu. — IUPIaren jarraipena komunikatu eta sozializatu.	2.500 (4) 0
2027	— IUPIaren jarraipena komunikatu eta sozializatu.	(4) 0
2028	— IUPIaren jarraipena komunikatu eta sozializatu.	(4) 0
2029	— IUPIaren jarraipena eta ebaluazioa komunikatu eta sozializatu.	(4) 0
2026-2029	— ---	---
2030-2033	— IUPIaren jarraipena eta ebaluazioa komunikatu eta sozializatu.	Jarraia
Oharrak	— (4) Aurrekonturik gabeko jarduketa: Udalak bere baliabideekin egitea aurreikusten da.	
Udaleko arduradunak	— Komunikazioa, edo alor horretan ardurak dituzten pertsonak. — Alkatea.	
Beste eragileak	— ---	
Esleipenak eta kanpo-baliabideak	— IUPIaren argitalpena.	
Ebaluazio eta jarraipen adierazleak	— IUPIaren laburpena eta bere argitalpena egin izana, eta hala egin bada: — Ale kopurua, banaketa egin izana eta banaketa-moduak. — Kostua. — Komunikazioa egin izana, eta hala egin bada: — Jarraipen- edo eta ebaluazio-txostenak sozializatu izana. — Komunikazio-ekintzen kopurua. — Erabili diren kanalak eta horien araberako irismenaren estimazioa. — Irisgarritasuna eta ulerterreztasuna areagotzeko neurriak txertatu izana, eta hala egin bada: — Txertatutako neurriak. — Herritarren ekarpenak jaso izana, eta hala egin bada: — Ekarpenen kopurua eta balorazioa.	
Jarduketarako irizpideak	— Ikus "Informazioa eta komunikazioa" fitxa, "Araudia, irizpideak eta gomendioak" atalean.	



Irugarritasun Unibertsalerako Plan Integrala hurrengo dokumentuek osatzen dute:

- I. IUPI: Memoria.
- II. Eranskina: Jarduketa-Plana: Udal irugarria.
- III. Eranskina: Jarduketa-Plana: Udal irugarria.**
- IV. Eranskina: Araudia, irizpideak eta gomendioak.
- V. Eranskina: Parte-hartzearen memoria.

